Con este último tomo de la colección de legislación mercantil especial se logra dar un paso más en el ansiado objetivo de otorgar una presencia significativa al euskera en el mundo jurídico-mercantil y, el operador jurídico dispone de herramientas básicas con las que poder desarrollar su labor en los distintos ámbitos del derecho mercantil, cuestión fundamental en un momento como el actual, en el que el impulso a la presencia del euskera en el mundo jurídico y socio-económico es un objetivo básico en la normalización lingüística y social.

*Los autores*



§1.  
**Merkataritza Kodea**

§1.  
**Código de Comercio**



# **Real Decreto de 22 de agosto de 1885 por el que se publica el Código de Comercio**

Teniendo presente lo dispuesto en la Ley sancionada por Mí con esta fecha, que autoriza al Gobierno para publicar como Ley el proyecto del Código de Comercio, y conformándome con el parecer del Conserjo de Ministros, vengo a decretar lo siguiente:

1. El Código de Comercio referido se observará como Ley en la Península e islas adyacentes desde el 1 de enero de 1886.

2. Un ejemplar de la edición oficial, firmado por Mí y refrendado por el Ministro de Gracia y Justicia, se conservará en el Archivo del Ministerio y servirá de original para todos los efectos legales.

3. Las Compañías anónimas mercantiles existentes en 31 de diciembre de 1886 que, según el artículo 159 del mismo Código tienen derecho a elegir entre continuar regiéndose por sus reglamentos o estatutos o someterse a las prescripciones del nuevo Código, deberán ejercer este derecho por medio de un acuerdo adoptado por sus asociados en junta general extraordinaria, convocada expresamente para este objeto, con arreglo a sus actuales estatutos, debiendo hacer insertar este acuerdo en la Gaceta de Madrid antes de 1 de enero de 1886, y presentar una copia

# **1885eko abuztuaren 22ko Errege Dekretua, Merkataritza Kodea argitaratzekoa**

Data honetan Neronek sendetsitako legean eskuespena eman zaio Gobernuari, beronek Merkataritza Kodearen proiektua lege moduan argitara dezan; hori kontuan izanda, eta Ministroen Kontseiluaren iritziarekin bat etorritz, hauxe dekretatu dut:

1. Aipatu Merkataritza Kodea lege moduan bete behar da penintsulan eta alboko uharteetan, 1886ko urtarrilaren 1etik aurrera.

2. Argitaraldi ofizialaren ale bat, Neronek sinatua eta Grazia- eta Justiziaministroak berronetsia, Ministerioaren artxiboan gordeko da; ale hori jatorrizkoa izango da, lege-ondore guztietarako.

3. 1886ko abenduaren 31n dauden merkataritzako konpainia anonimoek kode beraren 159. artikulua arabera aukeratu ahal badute euren erregelamenduak nahiz estatutuak aplikatzeko edo kode berriaren aginduen mende jartzea, eskubide hori egikaritzeko dute, bazkideek hartutako erabakiaren bidez; horretarako, aparteko batzarako deialdia egin behar da, egungo estatutuen arabera. Erabaki hori Madrilgo Gaze-tan agerrarazi behar da 1886ko urtarrilaren 1a baino lehen, eta horren kopia eskuetsia aurkeztu behar da Merkataritzako Erregistroan. Aukeratzeko es-

autorizada en el Registro Mercantil. Las Compañías que no hagan uso del expresado derecho de opción en el plazo indicado continuarán rigiéndose por sus propios estatutos y reglamentos.

4. El Gobierno dictará, previa audiencia del Consejo de Estado en pleno, antes del día en que empiece a regir el nuevo Código, los reglamentos oportunos para la organización y régimen del Registro Mercantil y de las Bolsas de Comercio, y las disposiciones transitorias que estas nuevas organizaciones exigen.

kubide hori epe barruan egikaritu ez duten konpainiei euren estatutuak eta erregelamenduak aplikatuko zaizkie.

4. Estatu-kontseiluaren osoko bilkurak esan beharrekoa entzun ondoren eta Kode berria indarrean jarri baino lehen, Gobernuak, batetik, kasuan kasuko erregelamenduak emango ditu, Merkataritzako Erregistroa nahiz Merkataritzako Burtsak antolatu eta horien arauketa ezartzeko, eta, bestetik, erakunde berri horiek dakartzaten xedapen iragankorrak ere emango ditu.

## **Código de Comercio**

### **LIBRO PRIMERO**

#### **DE LOS COMERCIANTES Y DEL COMERCIO EN GENERAL**

### **TÍTULO PRIMERO**

#### **DE LOS COMERCIANTES Y DE LOS ACTOS DE COMERCIO**

#### **Artículo 1**

Son comerciantes para los efectos de este Código:

1. Los que, teniendo capacidad legal para ejercer el comercio, se dedican a él habitualmente.

2. Las Compañías mercantiles o industriales que se constituyeren con arreglo a este Código.

## **Merkataritza Kodea**

### **LEHENENGO LIBURUA**

#### **MERKATARIAK ETA MERKATARITZA OROKORREAN**

### **LEHENENGO TITULUA**

#### **MERKATARIAK ETA MERKATARITZAKO EGINTZAK**

#### **1. artikulua**

Kode honen ondoreetarako, merkatariak dira:

1. Merkataritzan ohikotasunez dihardutenak, horretarako lege-gaitasuna izanda.

2. Kode honen arabera eratu diren merkataritza- edo industria-konpainiak.



**Artículo 2**

Los actos de comercio, sean o no comerciantes los que los ejecuten, y estén o no especificados en este Código, se regirán por las disposiciones contenidas en él; en su defecto, por los usos del comercio observados generalmente en cada plaza; y a falta de ambas reglas, por las del Derecho común.

Serán reputados actos de comercio los comprendidos en este Código y cualesquiera otros de naturaleza análoga.

**Artículo 3**

Existirá la presunción legal del ejercicio habitual del comercio, desde que la persona que se proponga ejercerlo anunciare por circulares, periódicos, carteles, rótulos expuestos al público, o de otro modo cualquiera, un establecimiento que tenga por objeto alguna operación mercantil.

**Artículo 4**

Tendrán capacidad legal para el ejercicio habitual del comercio las personas mayores de edad y que tengan la libre disposición de sus bienes.

**Artículo 5**

Los menores de dieciocho años y los incapacitados podrán continuar, por medio de sus guardadores, el comercio que hubieren ejercido sus padres o sus causantes. Si los guardadores carecieren de capacidad legal para comerciar, o tuvieren alguna incompatibilidad, es-

**2. artikulua**

Merkataritzako egintzak arautuko dira kodean jasotako xedapenen bidez, egintzok gauzatzen dituztenak merkatariak izan zein ez, eta kodean zehaztuta agertu ez arren; halako xedapenik izan ezean, hiri bakoitzean ohiko diren merkataritzako usadioen bitartez, eta, horrelako erregelarik ez badago, Zuzenbide erkidekoak erabilita.

Merkataritzako egintzak izango dira kodean jasotakoak eta antzeko izaera dutenak.

**3. artikulua**

Merkataritzan ohikotasunez aritzearen aldeko lege-presuntzioa dago, horretarako asmoa duenak merkataritzako eragiketaren bat gauzatzeko establezimendua iragartzen duenetik, hala zirkular, egunkari, kartel edota jendaurrean jarritako errotuluen bitartez, nola beste edozein baliabide erabilita.

**4. artikulua**

Merkataritzan ohikotasunez aritzeko lege-gaitasuna izango dute adin nagusikoek, baldin eta euren ondasunak xedatzeko askatasuna badute.

**5. artikulua**

Adingabeko eta ezgaituek, zaintzaileen bidez, ekin ahal diote euren guraso edo kausatzaileek gauzatutako merkataritza-jarduerari. Zaintzaileek ez badute merkataritzan aritzeko lege-gaitasunik edota bateraezintasun-arrazoien bat badute, lege-baldintzak betetzen dituen

tarán obligados a nombrar uno o más factores que reúnan las condiciones legales, quienes les suplirán en el ejercicio del comercio.

### **Artículo 6**

En caso de ejercicio del comercio por persona casada, quedarán obligados a las resultas del mismo los bienes propios del cónyuge que lo ejerza y los adquiridos por esas resultas, pudiendo enajenar e hipotecar los unos y los otros. Para que los demás bienes comunes queden obligados será necesario el consentimiento de ambos cónyuges.

### **Artículo 7**

Se presumirá otorgado el consentimiento a que se refiere el artículo anterior cuando se ejerza el comercio con conocimiento y sin oposición expresa del cónyuge que deba prestarlo.

### **Artículo 8**

También se presumirá prestado el consentimiento a que se refiere el artículo 6 cuando al contraer matrimonio se hallare uno de los cónyuges ejerciendo el comercio y lo continuare sin oposición del otro.

### **Artículo 9**

El consentimiento para obligar los bienes propios del cónyuge del comerciante habrá de ser expreso en cada caso.

faktore bat edo gehiago izendatu behar-kodituzte, berauek merkataritzan euren ordez jardun dezaten.

### **6. artikulua**

Pertsona ezkonduak merkataritzan badihardu, merkataritzako jarduera horren ondorioei lotzen zaizkie ezkontide horren bakarreko ondasunak eta jarduera horren bidez lortutakoak, eta batzuk zein besteak besterendu nahiz hipotekatu egin daitezke. Gainerako ondasun erkideak jarduera horren ondorioei lotzeko, beharrezkoa da ezkontide biek horren gaineko adostasuna ematea.

### **7. artikulua**

Aurreko artikulua aipatu adostasuna eman dela uste izango da, adostasuna eman behar duen ezkontideak merkataritzako jardueren berri izan, eta horien aurka esanbidez jotzen ez duenean.

### **8. artikulua**

Halaber, 6. artikulua aipatu adostasuna dagoela uste izango da, ezkontza egiten den garaian, ezkontide bat merkataritzan aritu eta jarduera horri ekiten badio, beste ezkontidearen aurkajartzerik gabe.

### **9. artikulua**

Merkatariaren ezkontidearen bakarreko ondasunak lotzeko, azken horren esanbidezko adostasuna behar da, kasu bakoitzean.

**Artículo 10**

El cónyuge del comerciante podrá revocar libremente el consentimiento expreso o presunto a que se refieren los artículos anteriores.

**Artículo 11**

Los actos de consentimiento, oposición y revocación a que se refieren los artículos 7, 9 y 10, habrán de constar, a los efectos de tercero, en escritura pública inscrita en el Registro Mercantil. Los de revocación no podrán, en ningún caso, perjudicar derechos adquiridos con anterioridad.

**Artículo 12**

Lo dispuesto en los artículos anteriores se entiende sin perjuicio de pactos en contrario, contenidos en capitulaciones matrimoniales debidamente inscritas en el Registro Mercantil.

**Artículo 13**

No podrán ejercer el comercio ni tener cargo ni intervención directa administrativa o económica en compañías mercantiles o industriales:

1. Suprimido por Ley 6/1984, de 31 de marzo.
2. Las personas que sean inhabilitadas conforme a la Ley Concursal mientras no haya concluido el período de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.
3. Los que, por leyes o disposiciones especiales, no puedan comerciar.

**10. artikulua**

Merkatariaren ezkontideak askatasunez ezezta dezake aurreko artikuluetan aipatu adostasun esanbidezkoa edo ustezkoa.

**11. artikulua**

Hirugarrenei begira, 7, 9 eta 10. artikuluek aipatu adostasun-, aurkajartze- eta ezeztatze-egintzak agerrarazi behar dira Merkataritzako Erregistroan inskribatutako eskritura publikoan. Ezeztatze-egintzek ezin die, inola ere, kalterik eragin aurretiaz eskuratutako eskubideei.

**12. artikulua**

Aurreko artikuluetan xedatutakoa ulertu behar da, ezkontzako itunetan jasotako kontrako egintzei kalterik egin gabe; ezkontzako itunok behar bezala inskribatu behar dira Merkataritzako Erregistroan.

**13. artikulua**

Hurrengoak ezin izango dira merkataritzan aritu, ezta merkataritza- edo industria-konpainietan kargurik edota zuzeneko administrazio zein ekonomi esku-harterik gauzatu ere:

1. Martxoaren 31ko 6/1984 Legeak indargabetua.
2. Konkurtso Legearen arabera desgaitu diren pertsonak, konkurtsoa kalifikatzeko epaian zehaztu desgaituntza-epelaldia amaitu ez den bitartean.
3. Lege edo xedapen berezien ondorioz merkataritzan aritu ezin direnak.

## Artículo 14

No podrán ejercer la profesión mercantil por sí ni por otro, ni obtener cargo ni intervención directa administrativa o económica en sociedades mercantiles o industriales, dentro de los límites de los distritos, provincias o pueblos en que desempeñan sus funciones:

1. Los Magistrados, Jueces y funcionarios del Ministerio Fiscal en servicio activo.

Esta disposición no será aplicable a los Alcaldes, Jueces y Fiscales municipales ni a los que accidentalmente desempeñen funciones judiciales o fiscales.

2. Los Jefes gubernativos, económicos o militares de distrito, provincias o plazas.

3. Los empleados en la recaudación y administración de fondos del Estado, nombrados por el Gobierno, exceptuándose los que administren y recauden por asiento, y sus representantes.

4. Los agentes de cambio y Correos de Comercio, de cualquier clase que sean.

5. Los que por leyes o disposiciones especiales no puedan comerciar en determinado territorio.

## Artículo 15

Los extranjeros y las compañías constituidas en el extranjero podrán ejercer el comercio en España con sujeción a las Leyes de su país, en lo que se refiera a su capacidad para contratar, y a las dispo-

## 14. artikulua

Eginkizunak zein barruti, probintzia edo herritan bete, eta toki horietan hurrengoak ezin izango dira merkataritzan aritu, ezta merkataritza- edo industria-sozietateetan kargurik edota zuzeneko administrazio zein ekonomi esku-hartzerik gauzatu ere:

1. Jarduneko magistratu, epaile eta Fiskaltzako funtzionarioak.

Xedapen hau ez zaie aplikatuko toki-ko alkate, epaile eta fiskalei, ezta noizean behin epaile- nahiz fiskal-eginkizunak betetzen dituztenei ere.

2. Barruti, probintzia edo hirietako gobernu-, ekonomia- eta militar-buruak.

3. Estatuaren funtsak bildu edo administratzen dituzten langileak, idazkun bidez biltzen dutenak izan ezik, eta euren ordezkariak.

4. Kanbio-agente eta merkataritza-ko artekari oro.

5. Lege edo xedapen berezien aginduz, lurralde jakin batzuetan merkataritzan aritu ezin direnak.

## 15. artikulua

Atzerritarrek eta atzerrian eratutako konpainiak merkataritzan aritu ahal dira Espainian, kontratatzeko gaitasunari dagokionez euren herriko legea aplikatuz, baina kode honetako xeda-

siciones de este Código, en todo cuanto concierna a la creación de sus establecimientos dentro del territorio español, a sus operaciones mercantiles y a la jurisdicción de los Tribunales de la nación.

Lo prescrito en este artículo se entenderá sin perjuicio de lo que en casos particulares pueda establecerse por los Tratados y Convenios con las demás potencias.

## TÍTULO II DEL REGISTRO MERCANTIL

### Artículo 16

1. El Registro Mercantil tiene por objeto la inscripción de:

1.º Los empresarios individuales.

2.º Las sociedades mercantiles.

3.º Las entidades de crédito y de seguros, así como las sociedades de garantía recíproca.

4.º Las instituciones de inversión colectiva y los fondos de pensiones.

5.º Cualesquiera personas, naturales o jurídicas, cuando así lo disponga la Ley.

6.º Las agrupaciones de interés económico.

7.º Las Sociedades Civiles Profesionales, constituidas con los requisitos establecidos en la legislación específica de Sociedades Profesionales.

penak aplikatuko zaizkie, Espainian establezimenduak sortzeari, merkataritzako eragiketei eta nazioko auzitegien jurisdikzioari dagokionez.

Artikulu honetan ezarritakoa aplikatuko da, betiere beste potentzia batzuekin egindako Tratatu eta Hitzarmenek kasu berezietarako agindu ahal dutenari kalterik egin gabe.

## II. TITULUA MERKATARITZAKO ERREGISTROA

### 16. artikulua

1. Merkataritzako Erregistroaren xedea da ondokoak inskribatzea:

1) Banakako enpresaburuak.

2) Merkataritzako sozietateak.

3) Kreditu- eta aseguru-erakundeak, baita elkarrekiko berme-sozietateak ere.

4) Inbertsio kolektiborako erakundeak eta pentsio-funtsak.

5) Pertsona fisiko eta juridiko oro, legeak hala xedatzen duenean.

6) Ekonomia-intereseko elkarteak.

7) Lanbide-sozietate zibilak, baldin eta lanbide-sozietateen legeria bereziaren arabera eratu badira.

8.º Los actos y contratos que establezca la Ley.

2. Igualmente corresponderá al Registro Mercantil la legalización de los libros de los empresarios, el depósito y la publicidad de los documentos contables y cualesquiera otras funciones que le atribuyan las Leyes.

### Artículo 17

1. El Registro Mercantil se llevará bajo la dependencia del Ministerio de Justicia con el sistema de hoja personal.

2. El Registro Mercantil radicará en las capitales de provincia y en las poblaciones donde por necesidades de servicio se establezca de acuerdo con las disposiciones legales vigentes.

3. En Madrid se establecerá además un Registro Mercantil Central, de carácter meramente informativo, cuya estructura y funcionamiento se determinará reglamentariamente.

4. El cargo de Registrador Mercantil se proveerá de conformidad con lo dispuesto en el Reglamento del Registro Mercantil.

### Artículo 18

1. La inscripción en el Registro Mercantil se practicará en virtud de documento público. Sólo podrá practicarse en virtud de documento privado en los casos expresamente prevenidos en las Leyes y en el Reglamento del Registro Mercantil.

2. Los Registradores calificarán bajo su responsabilidad la legalidad

8) Legeak agindutako egintza eta kontratuak.

2. Halaber, Merkataritzako Erregistroari dagokio enpresaburuen liburuak legeztatzea, kontabilitate-agiriak gordailutu eta horiei publikitatea ematea, eta legeek agindutako beste eginkizun guztiak betetzea.

### 17. artikulua

1. Merkataritzako Erregistroa Justizia Ministerioaren mende dago eta orri pertsonalaren sistemaren bidez antolatuko da.

2. Merkataritzako Erregistroa probintziatiko hiriburuetan finkatuko da, baita hortik kanpo ere, zerbitzuaren beharriak direla-bide hori agintzen badute in-darreko legeek.

3. Horrez gain, Madrilen Merkataritzako Erregistro Nagusia ezarriko da, informazio-eginkizun hutsarekin, eta horren egitura nahiz jardunbidea erregelamendu bidez zehaztuko dira.

4. Merkataritzako erregistroailearen kargua arautuko da Merkataritzako Erregistroaren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera.

### 18. artikulua

1. Merkataritzako Erregistroan, inskripzioa agiri publikoaren bidez egingo da. Agiri pribatuen bidez egin daiteke, legetan eta Merkataritzako Erregistroari buruzko Erregelamenduan esanbidez ezarritako kasuetan bakarrik.

2. Erregistroaileek euren erantzukizunpean kalifikatu behar dituzte ho-

de las formas extrínsecas de los documentos de toda clase en cuya virtud se solicita la inscripción, así como la capacidad y legitimación de los que los otorgan o suscriban y la validez de su contenido, por lo que resulta de ellos y de los asientos del Registro.

3. Practicados los asientos en el Registro Mercantil, se comunicarán sus datos esenciales al Registro central, en cuyo boletín serán objeto de publicación. De esta publicación se tomará razón en el Registro correspondiente.

4. El plazo máximo para inscribir el documento será de quince días contados desde la fecha del asiento de presentación. El registrador en la nota a pie de título, si la calificación es positiva, o en la calificación negativa deberá expresar inexcusablemente la fecha de la inscripción y, en su caso, de la calificación negativa a los efectos del cómputo del plazo de quince días. Si el título hubiera sido retirado antes de la inscripción, tuviera defectos subsanables o existiera pendiente de inscripción un título presentado con anterioridad, el plazo de quince días se computará desde la fecha de la devolución del título, la subsanación o la inscripción del título previo, respectivamente. En estos casos, la vigencia del asiento de presentación se entenderá prorrogada hasta la terminación del plazo de inscripción.

5. Si, transcurrido el plazo máximo señalado en el apartado anterior, no hubiere tenido lugar la inscripción, el interesado podrá instar del registrador

nako alde hauek: inskripzioa eskatzeko erabiltzen diren orotariko agirien kanpo-formen legezketasuna; agiria egiletsi edo sinatzen dutenen gaitasuna eta legitimazioa, eta agiriaren edukiak duen baliozketasuna, agiri horretatik eta Erregistroko idazkUNETATIK ondorioztatzen denaren arabera.

3. Merkataritzako Erregistroan idazkunak egin eta gero, oinarritzko datuak Erregistro Nagusira bidali behar dira, bertako aldizkarian argitaratzeko. Argitaratze hori kasuan kasuko Erregistroan jaso behar da.

4. Agiria inskribatzeko gehieneko epea hamabost egunekoa da, aurkezte-idazkunaren datatik zenbatzen hasita. Erregistratzaileak titulua oinoharrean, kalifikazioa baiezkoa bada, edo ezezko kalifikazioan, derrigor agerraziti behar du inskripzioaren data, eta, hala denean, ezezko kalifikazioarena, hamabost eguneko epe hori zenbatzeko. Titulua Erregistrotik eraman bada inskripzioa egin baino lehen, titulu horrek ongitzeko moduko akatsak baditu edo aurretiaz aurkeztutako titulua inskripzioa egiteke badago, hamabost eguneko epea zenbatuko da titulua itzuli, akatsa ongitu zein aurreko titulua inskripzioa egiten denetik, hurrenez hurren. Halakoetan, ulertzen da aurkezte-idazkunaren indarraldia luzatzen dela inskripzio-epea amaitu arte.

5. Aurreko paragrafoan aipatu gehieneko epea igaro baina inskripziorik egin ez bada, interesdunak titulua zein erregistratzaileari aurkeztu eta erregis-

ante quien se presentó el título que la lleve a cabo en el término improrrogable de tres días o la aplicación del cuadro de sustituciones previsto en el artículo 275 bis del Texto Refundido de la Ley Hipotecaria, aprobado por Decreto de 8 de febrero de 1946. Igualmente, si transcurrido el plazo de tres días el registrador no inscribe el título, el interesado podrá instar la aplicación del cuadro de sustituciones.

6. La inscripción realizada fuera de plazo por el registrador titular producirá una reducción de aranceles de un treinta por ciento sin perjuicio de la aplicación del régimen sancionador correspondiente. A los efectos del adecuado cumplimiento del plazo de inscripción, los registradores deberán remitir a la Dirección General de los Registros y del Notariado en los primeros veinte días de los meses de abril, julio, octubre y enero una estadística en formato electrónico que contenga el número de títulos presentados y fecha de inscripción de los mismos, así como el porcentaje de títulos inscritos fuera del plazo previsto en este artículo. La Dirección General de los Registros y del Notariado concretará mediante Instrucción el formato electrónico y datos que deban remitir los registradores.

7. Si el registrador califica negativamente el título, sea total o parcialmente, dentro o fuera del plazo a que se refiere el apartado cuarto de este artículo, el interesado podrá recurrir ante la Dirección General de los Registros y del Notariado o bien instar la calificación del cuadro de sustituciones previsto en el artículo 275 bis del Texto Refundi-

tratzaile horri eska diezaioke inskripzioa egin dezan hiru eguneko epe-muga luzaezinean, edo Hipoteka Legearen testu bateginaren 275 bis artikuluan ezarritako ordezen-zerrenda aplika dezan; testu hori 1946ko otsailaren 8ko Dekretuak onetsi du. Gisa bertsuan, hiru eguneko epea igarotakoan erregistraztaileak ez badu inskripziorik egin, interesdunak eska dezake ordezen-zerrenda aplikatzeko.

6. Erregistraztaile titularrak epez kanpo egin badu inskripzioa, arantzelak ehuneko hogeita hamarrean urritu behar dira, kasuan-kasuan aplikatu beharreko zehapen-araubideari kalterik egin gabe. Inskripzio-epena behar bezala betetzeko, apirilaren, uztailaren, urriaren eta urtarrilaren lehenengo hogeiei eguntan erregistraztaileek estatistika bidali behar dute Erregistro eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiari euskarri informatikoan, aurkeztutako tituluen kopurua nahiz inskripzio-data zehaztuz, eta artikulua honetan ezarritako epetik kanpo aurkeztutakoen portzentajea aipatuz. Erregistro eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak jarraibide baten bitartez zehaztuko ditu erregistraztaileek bidali beharreko formatu elektronikoa eta datuak.

7. Erregistraztaileak ezezko kalifikazioa eman badio titulu osoari edo horren zati bati, artikulua honen laugarren paragrafoak aipatu epean edo epez kanpo, interesdunak errekurtsioa jar dezake Erregistro eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusian edo eska dezake Hipoteka Legearen testu bateginaren 275 bis artikuluan ezarritako or-



do de la Ley Hipotecaria, aprobado por Decreto de 8 de febrero de 1946.

8. Si un Registro Mercantil estuviere a cargo de dos o más registradores, se procurará, en lo posible, la uniformidad de los criterios de calificación. A tal efecto, llevarán el despacho de los documentos con arreglo al convenio de distribución de materias o sectores que acuerden. El convenio y sus modificaciones posteriores deberán ser sometidos a la aprobación de la Dirección General de los Registros y del Notariado.

Siempre que el registrador a quien corresponda la calificación de un documento apreciar defectos que impidan practicar la operación solicitada, los pondrá en conocimiento del cotitular o cotitulares del mismo sector o del sector único. Antes del transcurso del plazo máximo establecido para la inscripción del documento les pasará la documentación, y el que entendiere que la operación es procedente la practicará bajo su responsabilidad antes de expirar dicho plazo.

En la calificación negativa el registrador a quien corresponda deberá expresar que la misma se ha extendido con la conformidad de los cotitulares. Si falta dicha indicación, la calificación se entenderá incompleta, sin perjuicio de que los legitimados para ello puedan recurrirla, instar la intervención del sustituto, o pedir expresamente que se complete.

No se tendrá en cuenta una calificación incompleta para interrumpir

dezpen-zerrendaren kalifikazioa; testu hori 1946ko otsailaren 8ko Dekretuak onetsi du.

8. Merkataritzako Erregistroa bi erregistratzaile edo gehiagoren ardurapean izanez gero, ahaleginak egin behar dira kalifikazio-irizpideak eraberekoak izan daitezten. Horretarako, agiriak emango dituzte, gaiak edo sektoreak banatzeko itundu duten hitzarmenaren arabera. Hitzarmenak eta horren geroko aldarazpenek Erregistro eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren onespena behar dute.

Agiriaren kalifikazioa egin behar duen erregistratzaileak uste badu eskatutako eragiketa oztopatzen duen akatsen bat dagoela, sektore bereko edo sektore bakarreko titularkideari edo titularkideei emango die horren berri. Inskripzioa egiteko gehieneko epea igaro baino lehen agiri guztiak emango dizkie, eta eragiketa bidezkoa dela uste duenak bere erantzukizunpean gauzatu ahal izango du hori, epea amaitu baino lehen.

Kalifikazioa ezezkoa izanez gero, kasuan kasuko erregistratzaileak adierazi behar du titularkideen adostasunarekin eman dela kalifikazio hori. Hala ere aipamenik egin ezean, ulertzen da kalifikazioa ez dela osoa, eta legitimazioa dutenek errekurtsioa jar dezakete horren aurka, ordezkoaren esku-hartzea eska dezakete edo esanbidez aipa dezakete kalifikazioa osatzeko.

Kalifikazio osatugabeak ez du geldiarazten berori egiteko epea. Titu-

el plazo en que debe hacerse la calificación. Los cotitulares serán también responsables a todos los efectos de la calificación a la que prestan su conformidad.

El registrador que califique un documento conocerá de todas las incidencias que se produzcan hasta la terminación del procedimiento registral.

### **Artículo 19**

1. La inscripción en el Registro Mercantil será potestativa para los empresarios individuales, con excepción del naviero.

El empresario individual no inscrito no podrá pedir la inscripción de ningún documento en el Registro Mercantil ni aprovecharse de sus efectos legales.

2. En los demás supuestos contemplados por el apartado uno del artículo 16.1, la inscripción será obligatoria. Salvo disposición legal o reglamentaria en contrario, la inscripción deberá procurarse dentro del mes siguiente al otorgamiento de los documentos necesarios para la práctica de los asientos.

3. El naviero no inscrito responderá con todo su patrimonio de las obligaciones contraídas.

### **Artículo 20**

1. El contenido del Registro se presume exacto y válido. Los asientos del Registro están bajo la salvaguardia de los Tribunales y producirán sus efectos mientras no se inscriba la de-

larkideek ere kalifikazioaren gaineko erantzukizuna izango dute ondore guztietarako, baldin eta euren adostasuna eman badiote kalifikazio horri.

Agiria zein erregistratzailek kalifikatu eta horrek izango du erregistro-prozedura amaitu arte gerta daitezkeen gorabehera guztien ardura.

### **19. artikulua**

1. Banakako enpresaburuei dago-kienez, Erregistroko inskripzioa nahibadakoa da, ontzi-ustiatzailearen kasuan izan ezik.

Banakako enpresaburua ez badago inskribatuta, ezin du eskatu Merkataritzako Erregistroan inolako agiririk inskribatzeko, eta, era berean, ezin ditu erabili Erregistro horen lege-ondoreak.

2. 16.1. artikularen lehenengo paragrafoak aipatu gainerako kasuetan, inskripzioa nahitaezkoa da. Legeak edo erregelamenduak kontrakoa xedatu ezean, idazkunak egiteko agiriak egiletsi eta hurrengo hilabetean egin behar da inskripzioa.

3. Inskribatu ez den ontzi-ustiatzaileak erantzukizuna izango du hartutako betebeharren gain, bere ondare osoarekin.

### **20. artikulua**

1. Erregistroaren edukia zehatza eta baliozkoa dela uste izango da. Erregistroko idazkunak auzitegien zaintzapean daude, eta idazkun horiek ondoreak sortzen dituzte, euren zehaztugabeta-

claración judicial de su inexactitud o nulidad.

2. La inscripción no convalida los actos o contratos que sean nulos con arreglo a las Leyes. La declaración de inexactitud o nulidad no perjudicará los derechos de terceros de buena fe, adquiridos conforme a derecho.

## Artículo 21

1. Los actos sujetos a inscripción sólo serán oponibles a terceros de buena fe desde su publicación en el Boletín Oficial del Registro Mercantil. Quedan a salvo los efectos propios de la inscripción.

2. Cuando se trate de operaciones realizadas dentro de los quince días siguientes a la publicación, los actos inscritos y publicados no serán oponibles a terceros que prueben que no pudieron conocerlos.

3. En caso de discordancia entre el contenido de la publicación y el contenido de la inscripción, los terceros de buena fe podrán invocar la publicación si les fuere favorable.

Quienes hayan ocasionado la discordancia estarán obligados a resarcir al perjudicado.

4. La buena fe del tercero se presume en tanto no se pruebe que conocía el acto sujeto a inscripción y no inscrito, el acto inscrito y no publicado o la discordancia entre la publicación y la inscripción.

sun edo deuseztasunari buruzko adierazpen judiziala inskribatzen ez den bitartean.

2. Inskripzioak ez ditu baliozkotzen legeen arabera deusezak diren egintza zein kontratuak. Zehaztugabetasun edo deuseztasunari buruzko adierazpenek ez diete kalterik egingo onustedun hirugarrenen eskubideei, horiek Zuzenbidearekin bat etorri eskuratu badira.

## 21. artikulua

1. Inskribatu beharreko egintzak hirugarren onustedunen aurka jar daitezke, egintzok Merkataritzako Erregistroaren Aldizkari Ofizialean argitaratukoan bakarrik. Horrek ezin die kalterik egin inskripzioaren berezko ondoreei.

2. Eragiketak gauzatu badira horiek argitaratu eta hamabost egun igaro baino lehen, inskribatu eta argitaratutako egintzok ezin dira hirugarrenen aurka jarri, haiek frogatzen badute ez zutela aukerarik izan egintza horiek jakiteko.

3. Argitalpenaren edukiaren eta inskripzioaren edukiaren artean kontraesana badago, onustedun hirugarrenek argitalpena balia dezakete, hori euren onerako bada.

Kontraesana eragin dutenek medea-pena eman beharko diote kaltetunari.

4. Hirugarrena onusteduna dela uste izango da, frogatzen ez bada hirugarren horrek jakin bazekiela zein zen inskribatu beharreko baina inskribatu gabeko egintza, inskribatutako baina argitaratu gabeko egintza edota argitalpenaren eta inskripzioaren arteko kontraesana.

## Artículo 22

1. En la hoja abierta a cada empresario individual se inscribirán los datos identificativos del mismo, así como su nombre comercial y, en su caso, el rótulo de su establecimiento, la sede de éste y de las sucursales, si las tuviere, el objeto de su empresa, la fecha de comienzo de las operaciones, los poderes generales que otorgue, el consentimiento, la oposición y la revocación a que se refieren los artículos 6, 7, 8, 9 y 10; las capitulaciones matrimoniales así como las sentencias firmes en materia de nulidad, de separación y de divorcio; y los demás extremos que establezcan las leyes o el Reglamento.

2. En la hoja abierta a las sociedades mercantiles y demás entidades a que se refiere el artículo 16 se inscribirán el acto constitutivo y sus modificaciones, la rescisión, disolución, reactivación, transformación, fusión o escisión de la entidad, la creación de sucursales, el nombramiento y cese de administradores, liquidadores y auditores, los poderes generales, la emisión de obligaciones u otros valores negociables agrupados en emisiones cuando la entidad inscrita pudiera emitirlos de conformidad con la ley, y cualesquiera otras circunstancias que determinen las leyes o el Reglamento.

3. A las sucursales se abrirá, además, hoja propia en el Registro de la provincia en que se hallen establecidas, en la forma y con el contenido y los efectos que reglamentariamente se determinen.

## 22. artikulua

1. Banakako enpresaburu bakoitzari irekitako orrian berori identifikatzeko datuak inskribatuko dira, baita horren merkataritzako izena eta, hala behar denean, haren establezimenduaren errotulua ere, establezimendu nagusiaren egoitza eta, halakoak izanez gero, sukurtsalena, enpresaren xedea, eragiketak hasteko data, emandako ahalorde orokorrak, 6, 7, 8, 9 eta 10. artikuluek aipatu adostasuna, aurkajartzea eta ezeztapena, ezkontzako itunak, baita deuseztasun-, banantze- eta dibortzio-kasuetan emandako epai irmoak ere, edota legeek eta Erregelamenduak zehaztutako beste aipamenak.

2. Merkataritzako sozietateei eta 16. artikuluek aipatu gainerako erakundeei irekitako orrian inskribatuko dira egintza eratzaillea eta horren aldarazpenak, erakundearen hutsalketa, desgitea, berpiztea, transformazioa, bat-egitea edo zatiketa, sukurtsalak sortzea, administratzaile, likidatzaile eta auditoreak izendatu eta euri kargua kentzea, ahalorde orokorrak, obligazioen jaulkipena nahiz jaulkipenetara bildutako beste balore negoziagarriena, baldin eta inskribatutako erakundeak halakoak jaulki ahal baditu legearekin bat etorritz, eta lege nahiz erregelamenduek zehazten dituzten beste inguruabar guztiak.

3. Horrez landara, sukurtsala zein probintzian izan eta probintzia horretako Erregistroan orria irekiko zaio sukurtsalari, erregelamenduak ezarritako moduan eta zehaztutako eduki zein ondorekin.

## Artículo 23

1. El Registro Mercantil es público. La publicidad se hará efectiva por certificación del contenido de los asientos expedidos por los Registradores o por simple nota informativa o copia de los asientos y de los documentos depositados en el Registro. La certificación será el único medio de acreditar fehacientemente el contenido de los asientos del Registro.

2. Tanto la certificación como la simple nota informativa podrán obtenerse por correspondencia, sin que su importe exceda del coste administrativo.

3. El Registro Central no expedirá certificaciones de los datos de su archivo, salvo con relación con las razones y denominaciones de sociedades y demás entidades inscribibles.

4. La publicidad telemática del contenido de los Registros Mercantiles y de Bienes Muebles se realizará de acuerdo con los principios contenidos en los artículos 221, 222, 227 y 248 del texto refundido de la Ley Hipotecaria, aprobado por el Decreto de 8 de febrero de 1946, en relación con los Registros de la Propiedad.

## Artículo 24

1. Los empresarios individuales, sociedades y entidades sujetos a inscripción obligatoria harán constar en toda su documentación, correspondencia, notas de pedido y facturas, el domicilio y los datos identificadores de su inscripción en el Registro Mercantil. Las sociedades mercantiles y de

## 23. artikulua

1. Merkataritzako Erregistroa publikoa da. Publizitatea gauzatuko da, erregistratzaileek idazkunen edukiari buruz luzatutako ziurtagirien bitartez, edo Erregistroko idazkun nahiz agiriari buruzko informazio-oharraren edo kopia hutsaren bitartez. Erregistroko idazkunen edukia modu sinesgarrian egiaztatzeko, ziurtagiria besterik ez da onartuko.

2. Ziurtagiria zein informazio-ohar hutsa postaz jaso daiteke, administrazio-kostuak bakarrik ordainduta.

3. Erregistro Nagusiak ez du ziurtagiririk luzatuko bertako artxiboko datuei buruz, inskribatzeko moduko sozietateen eta beste erakundeen izenak salbu.

4. Merkataritzako Erregistroaren eta Ondasun Higigarrien Erregistroaren edukiari buruzko publizitate telematikoa egingo da, jabetza erregistroen inguruan Hipoteka Legearen testu bateginaren 221, 222, 227 eta 248. artikuluek ezarritako printzipioen arabera; 1946ko otsailaren 8ko Dekretuak onetsi du testu bategin hori.

## 24. artikulua

1. Nahitaez inskribatu behar diren banakako enpresaburu, sozietate eta erakundeek euren agirietan, postan, eskaera-orrietan eta fakturretan egoitza agerrarazi behar dute, baita Merkataritzako Erregistroan egindako inskripzioa identifikatzeko datuak ere. Horrez gain, merkataritzako sozietateek eta

más entidades harán constar, además, su forma jurídica y, en su caso, la situación de liquidación en que se encuentren. Si mencionan el capital, deberá hacerse referencia al capital suscrito y al desembolsado.

2. El incumplimiento de estas obligaciones será sancionado, previa instrucción de expediente por el Ministerio de Economía y Hacienda, con audiencia de los interesados y conforme a la Ley de Procedimiento Administrativo con una multa de cuantía de 50 000 a 500 000 pesetas.

### TÍTULO III DE LA CONTABILIDAD DE LOS EMPRESARIOS

#### SECCIÓN PRIMERA

#### *De los libros de los empresarios*

#### **Artículo 25**

1. Todo empresario deberá llevar una contabilidad ordenada, adecuada a la actividad de su empresa que permita un seguimiento cronológico de todas sus operaciones, así como la elaboración periódica de balances e inventarios. Llevará necesariamente, sin perjuicio de lo establecido en las leyes o disposiciones especiales, un libro de Inventarios y Cuentas anuales y otro Diario.

2. La contabilidad será llevada directamente por los empresarios o por

beste erakundeek euren forma juridikoa aipatu behar dute, eta, hala denean, likidazio-egoeran daudela. Kapitala aipatuz gero, harpidetutako kapitala eta ordaindutakoa zehaztu behar dira.

2. Betebehar horiek bete ezean, isuna jarriko da, eta horren zenbatekoa 50 000 pezetatik 500 000rainokoa izan daiteke, Administrazio Prozeduraren Legeak ezarritakoaren arabera; aldez aurretik Ekonomia eta Ogasun Ministerioak espedientea instruitu behar du eta interesdunak entzun behar dira.

### III. TITULUA ENPRESABURUEN KONTABILITATEA

#### LEHENENGO ATALA

#### *Enpresaburuen liburua*

#### **25. artikulua**

1. Enpresaburuek kontabilitate antolatua eta euren merkataritzako jardueri egokitua eraman behar dute, eragiketen jarraipen kronologikoa egin ahal izateko; orobat, balantze nahiz inbentarioak egin behar dituzte, aldian-aldian. Horretarako, nahitaezkoa da inbentarioen eta urteko kontuen liburua egitea, baita liburu-egunkaria ere, lege eta xedapen berezietan ezarritakoari kalterik egin gabe.

2. Kontabilitate hori enpresaburuak eraman dezake zuzenean edota horre-

otras personas debidamente autorizadas, sin perjuicio de la responsabilidad de aquéllos. Se presumirá concedida la autorización, salvo prueba en contrario.

### Artículo 26

1. Las sociedades mercantiles llevarán también un libro o libros de actas, en las que constarán, al menos todos los acuerdos tomados por las juntas generales y especiales y los demás órganos colegiados de la sociedad, con expresión de los datos relativos a la convocatoria y a la constitución del órgano, un resumen de los asuntos debatidos, las intervenciones de las que se haya solicitado constancia, los acuerdos adoptados y los resultados de las votaciones.

2. Cualquier socio y las personas que, en su caso, hubiesen asistido a la Junta general en representación de los socios no asistentes, podrán obtener en cualquier momento certificación de los acuerdos y de las actas de las juntas generales.

3. Los administradores deberán presentar en el Registro Mercantil, dentro de los ocho días siguientes a la aprobación del acta, testimonio notarial de los acuerdos inscribibles.

### Artículo 27

1. Los empresarios presentarán los libros que obligatoriamente deben llevar en el Registro Mercantil del lugar donde tuvieren su domicilio, para que antes de su utilización, se ponga en el primer folio de cada uno diligencia de

tarako baimena duten pertsonen bitartez, baina enpresaburuak du horren gaineko erantzukizuna. Uste izango da harako baimena eman dela, horren kontrako frogarik izan ezean.

### 26. artikulua

1. Merkataritzako sozietateek akta-liburua edo liburuak eramango dituzte, eta halakoetan agertuko dira batza orokor nahiz bereziek eta sozietateen gainerako kide anitzeko organoek hartutako erabaki guztiak, hurrengo datuak aipatuz: deialdia eta organoaren eraketa, eztabaidatutako gaien laburpena, izandako esku-hartzeak, baldin eta halakoak aktan agerraraztea eskatu bada, hartutako erabakiak eta botazioen emaitzak.

2. Bazkideek eta, hala denean, batzara joan ez diren bazkideen ordezkariak edozein unetan lor dezakete batza orokorretako erabakien eta akten ziurtagiria.

3. Akta onetsi eta hurrengo zortzi egunetan, inskribatzeko moduko erabakien notario-lekukotza aurkeztu behar dute administratzaileek Merkataritzako Erregistroan.

### 27. artikulua

1. Enpresaburuak euren egoitzari dagokion Merkataritzako Erregistroan aurkeztu behar dituzte nahitaez eraman beharreko liburuak, horiek erabiltzen hasi aurretik lehenengo folioan liburu horren folio kopurua adierazten duen

los que tuviere el libro y, en todas las hojas de cada libro, el sello del Registro. En los supuestos de cambio de domicilio tendrá pleno valor la legalización efectuada por el Registro de origen.

2. Será válida, sin embargo, la realización de asientos y anotaciones por cualquier procedimiento idóneo sobre hojas que después habrán de ser encuadradas correlativamente para formar los libros obligatorios, los cuales serán legalizados antes de que transcurran los cuatro meses siguientes a la fecha de cierre del ejercicio. En cuanto al libro de actas, se estará a lo dispuesto en el Reglamento del Registro Mercantil.

3. Lo dispuesto en los párrafos anteriores se aplicará al libro registro de acciones nominativas en las sociedades anónimas y en comandita por acciones y al libro de registro de socios en las sociedades de responsabilidad limitada, que podrán llevarse por medios informáticos, de acuerdo con lo que se dispone reglamentariamente.

4. Cada Registro Mercantil llevará un libro de legalizaciones.

## Artículo 28

1. El libro de Inventarios y Cuentas anuales se abrirá con el balance inicial detallado de la empresa. Al menos trimestralmente se transcribirán con sumas y saldos los balances de comprobación. Se transcribirán también el inventario de cierre de ejercicio y las cuentas anuales.

eginbidea jartzeko, eta liburuaren orri guztietan Erregistroko zigilua jartzeko. Egoitza aldatuz gero, jatorrizko Erregistroak eginiko legeztatzea guztiz baliozkoa izango da.

2. Hala ere, idazkun eta idatzoharrak baliozkoak dira orrien gain edozein sistema egoki erabilia, baldin eta gero orri horiek hurrenez hurren azalztatzen badira nahitaezko liburuak osatzeko; liburu horiek legeztatu behar dira ekitaldia itxi eta hurrengo lau hilabeteak igaro baino lehen. Akta-liburuari dagokionez, Merkataritzako Erregistroaren Erregelamenduak xedatutakoa izan behar da kontuan.

3. Aurreko paragrafoetan xedatutakoa aplikatuko zaie, hala akzio izendunen liburu-erregistroari, sozietate anonimoetan eta komanditako sozietate akziodunetan, nola bazkideen liburu-erregistroari, erantzukizun mugatuko sozietateetan; liburu horiek eraman daitezke baliabide informatikoak erabilia, erregelamendu bidez xedatutakoan arabera.

4. Merkataritzako Erregistro bakoitzak legeztatze-liburu bat izan behar du.

## 28. artikulua

1. Inbentarioen eta urteko kontuen liburu irekiko da enpresaren hasierako balantze xehearekin. Gutxienez hiru hilabetetik behin, egiaztatze-balantzeak berridatziko dira, kopuru eta saldoak barne. Aldi berean, ekitaldiaren itxierako inbentarioa eta urteko kontuak jasoko dira.



2. El libro Diario registrará día a día todas las operaciones relativas a la actividad de la empresa. Será válida, sin embargo, la anotación conjunta de los totales de las operaciones por períodos no superiores al mes, a condición de que su detalle aparezca en otros libros o registros concordantes, de acuerdo con la naturaleza de la actividad de que trate.

### Artículo 29

1. Todos los libros y documentos contables deben ser llevados, cualquiera que sea el procedimiento utilizado, con claridad, por orden de fechas, sin espacios en blanco, interpolaciones, tachaduras ni raspaduras. Deberán salvarse a continuación, inmediatamente que se adviertan, los errores u omisiones padecidos en las anotaciones contables. No podrán utilizarse abreviaturas o símbolos cuyo significado no sea preciso con arreglo a la ley, el reglamento o la práctica mercantil de general aplicación.

2. Las anotaciones contables deberán ser hechas expresando los valores en pesetas.

### Artículo 30

1. Los empresarios conservarán los libros, correspondencia, documentación y justificantes concernientes a su negocio, debidamente ordenados, durante seis años, a partir del último asiento realizado en los libros, salvo lo que se establezca por disposiciones generales o especiales.

2. El cese del empresario en el ejercicio de sus actividades no le exime

2. Liburu-egunkariak enpresa jardueraren eragiketa guztiak erregistratu behar ditu egunero. Dena den, baliozkoa da eragiketen kopuruak batera idaztea, hilabetekoak edo epe laburrakoa badira; horretarako, beharrezkoa da eragiketa horien zehaztopenak liburu-egunkariari loturiko beste liburu edo erregistroetan agertzea, egindako jarduerak duen izaeraren arabera.

### 29. artikulua

1. Kontabilitate-liburu eta -agiri guztiak argitasunez eta data-hurrenkeraren arabera eraman behar dira, horiek egiteko prozedura edozein izanda ere; horrez gain, ezin da zuriune, tartekatze, zirriborro edo karraskaterik agertu. Jarraian, kontabilitate-idatzoharretako akats eta ez-aiptzeak ongitu behar dira, horiek antzeman bezain laster. Ezin daiteke laburdura edo ikurrik erabili, horien esangura ez bada zehatza, legearen, erregelamenduaren edo orokorrean aplikatutako merkataritza-egineren arabera.

2. Kontabilitate-idatzoharrak egin behar dira, horien balioa pezetatant adierazita.

### 30. artikulua

1. Enpresaburuak bere negozioari buruzko liburuak, posta, agiriak eta frogagiriak behar bezala antolatuta artatu behar ditu, liburuan egindako azken idazkUNETIK hurrengo sei urteetan zehar, xedapen orokor nahiz bereziek ezarritakoa salbu.

2. Enpresaburuak bere merkataritza jarduera uzten badu ere, ez da

del deber a que se refiere el párrafo anterior y si hubiese fallecido recaerá sobre sus herederos. En caso de disolución de sociedades, serán sus liquidadores los obligados a cumplir lo prevenido en dicho párrafo.

### **Artículo 31**

El valor probatorio de los libros de los empresarios y demás documentos contables será apreciado por los Tribunales conforme a las reglas generales del Derecho.

### **Artículo 32**

1. La contabilidad de los empresarios es secreta, sin perjuicio de lo que se derive de lo dispuesto en las Leyes.

2. La comunicación o reconocimiento general de los libros, correspondencia y demás documentos de los empresarios, sólo podrá decretarse, de oficio o a instancia de parte, en los casos de sucesión universal, suspensión de pagos, quiebras, liquidaciones de sociedades o entidades mercantiles, expedientes de regulación de empleo, y cuando los socios o los representantes legales de los trabajadores tengan derecho a su examen directo.

3. En todo caso, fuera de los casos prefijados en el párrafo anterior, podrá decretarse la exhibición de los libros y documentos de los empresarios a instancia de parte o de oficio, cuando la persona a quien pertenezcan tenga interés o responsabilidad en el asunto en que proceda la exhibición. El recono-

aurreko artikulua aipatu egin beharretik askatuko, eta hura hiltzen bada, beraren jaraunslerei eskualdatuko zaie egin behar hori. Desegindako merkataritza-sozietateen kasuan, likidatzaileek izango dute paragrafo horretan aipaturikoa betetzeko betebeharra.

### **31. artikulua**

Auzitegiek erabakiko dute enpresaburuen liburu eta gainerako kontabilitate-agirien froga-balioa, Zuzenbidearen arau orokorren arabera.

### **32. artikulua**

1. Enpresaburuen kontabilitatea sekretua da, legeetan xedatutakoari kalterik egin gabe.

2. Enpresaburuek dituzten liburuen, postaren eta gainerako agirien edukia azaltzea edo halakoak orokorrean aztertzea agindu daiteke ofizioz zein alderdiak hala eskatuta, baina hurrengo kasuetan bakarrik: ondasun guztien oinordetza, ordainketa-etendura, porrota, sozietateen edo merkataritzako erakundeen likidazioa edota enplegu-erregulazioko espedientea gauzatzen denean, baita bazkideek nahiz langileen lege-ordezkariek halakoak zuzenean aztertzeo eskubidea dutenean ere.

3. Aurreko paragrafoan zehaztu kasuez landara, enpresaburuen liburuak eta agiriak erakustea agindu ahal da, ofizioz zein alderdiak hala eskatuta, baldin eta horiek norenak izan eta pertsona horrek interesa edo erantzukizuna badu, erakustea ekarri duen gaiari dagokionez. Kasuan kasuko autuari

cimiento se contraerá exclusivamente a los puntos que tengan relación con la cuestión de que se trate.

### Artículo 33

1. El reconocimiento al que se refiere el artículo anterior, ya sea general o particular, se hará en el establecimiento del empresario, en su presencia o en la de la persona que comisione, debiendo adoptarse las medidas oportunas para la debida conservación y custodia de los libros y documentos.

Igual facultad tendrán los mancebos que vendan en el almacén al por mayor, siempre que las ventas fueren al contado y el pago se verifique en el mismo almacén; pero cuando las cobranzas se hubieren de hacer fuera de éste, o procedan de ventas hechas a plazos, los recibos se firmarán necesariamente por el principal o su factor, o por apoderado legítimamente constituido para cobrar.

te euren trafikoari lotutako eragiketa bat edo batzuk gauzatzeko haien ize-nean eta kontura; agindu hori idatziz nahiz ahoz eman daiteke; konpainiek euren erregelamenduetan jaso behar dute hori, eta norbanakoek ere horren berri eman behar dute, jendaurreko abisuen zein berriemaileei bidalitako zirkularren bidez.

Dependente edo mandatari berezi horien egintzen ondorioz betebeharrak sortuko dira nagusiarentzat, baldin eta eurei agindutako arloaren barruan sartzen badira egintzok.

### **293. artikulua**

Merkataritzako eragiketa bat edo nagusiak gauzaturiko trafikoaren zati bat zuzentzeko ahalmena duten langinei ere aurreko artikuluko xedapenak aplikatu ahal zaizkie.

### **294. artikulua**

Ulertuko da jendaurreko biltegi-tan txikizkako salmentak burutzen dituzten langinek ahalmena dutela eurek egindako salmenten zenbatekoa kobratzeko, eta baliozkoak izango dira nagusien izenean luzatutako jasoagiriak.

Biltegian handizkako salmentak burutzen dituztenek ere ahalmen berbera izango dute, baldin eta salmentak esku- ra egin badira eta ordainketa biltegian bertan egin bada; kobrantzak biltegitik kanpo egin badira edo eperako salmen- ten ondoriozkoak badira, ordea, nagusiak, horren faktoreak edota kobrantzak egiteko legebidezko ahalordea duenak sinatu behar ditu jasoagiriak.

### **Artículo 295**

Cuando un comerciante encargare a su mancebo la recepción de mercaderías y éste las recibiere sin reparo sobre su cantidad o calidad, surtirá su recepción los mismos efectos que si la hubiere hecho el principal.

### **Artículo 296**

Sin consentimiento de sus principales, ni los factores ni los mancebos de comercio podrán delegar en otros los encargos que recibieren de aquéllos; y en caso de hacerlo sin dicho consentimiento, responderán directamente de las gestiones de los sustitutos y de las obligaciones contraídas por éstos.

### **Artículo 297**

Los factores y mancebos de comercio serán responsables a sus principales de cualquier perjuicio que causen a sus intereses por haber procedido en el desempeño de sus funciones con malicia, negligencia o infracción de las órdenes o instrucciones que hubieren recibido.

### **Artículo 298**

Si por efecto del servicio que preste, un mancebo de comercio hiciere algún gasto extraordinario, o experimentare alguna pérdida, no habiendo mediado sobre ello pacto expreso entre él y su principal, será de cargo de éste indemnizarle del quebranto sufrido.

### **Artículo 299**

Si el contrato entre los comerciantes y sus mancebos y dependientes se

### **295. artikulua**

Merkatariak merkatugaiak jasotzeko agindua eman badio langinari, eta merkatugaiak jaso ostean langinak ez badu eragozpenik jarri kopuru edo kalitateari dagokionez, merkatugai horiek nagusiak jaso dituela uste izango da.

### **296. artikulua**

Nagusiaren adostasunik gabe, faktoreek eta langinek ezin izango dute beste inorengan eskuordetu jasotako agindua, eta adostasunik gabe hori eginenez gero, eurek izango dute ordezkoez egindako kudeaketen eta hartutako betebeharren gaineko erantzukizuna.

### **297. artikulua**

Merkataritzako faktore eta langinek nagusiaren interesei kalte egiten badiete, erantzukizuna izango dute horiei begira baldin eta maltzurkeriaz, arduragabekeriak edo jasotako agindu nahiz jarraibideak urratuz jokatu badute.

### **298. artikulua**

Emandako zerbitzuaren ondorioz merkataritzako langinak aparteko gastuak edo galerak izan baditu, eta horren inguruan ez bada esanbidezko itunik egin langinaren eta nagusiaren artean, nagusiak kalte-galeren ordaina eman beharko dio langinari.

### **299. artikulua**

Merkatarien eta langin edo dependenteen arteko kontratua epe finkorako

hubiere celebrado por tiempo fijo, no podrá ninguna de las partes contratantes separarse, sin consentimiento de la otra, de su cumplimiento, hasta la terminación del plazo convenido.

Los que contravinieren a esta cláusula quedarán sujetos a la indemnización de daños y perjuicios, salvo lo dispuesto en los artículos siguientes.

### Artículo 300

Serán causas especiales para que los comerciantes puedan despedir a sus dependientes, no obstante no haber cumplido el plazo del empeño:

1. El fraude o abuso de confianza en las gestiones que les hubieren confiado.
2. Hacer alguna negociación de comercio por cuenta propia, sin conocimiento expreso y licencia del principal.
3. Faltar gravemente al respeto y consideración debidos a éste o a las personas de su familia o dependencia.

### Artículo 301

Serán causas para que los dependientes puedan despedirse de sus principales, aunque no hayan cumplido el plazo del empeño:

1. La falta de pago en los plazos fijados del sueldo o estipendios convenidos.
2. La falta de cumplimiento de cualquiera de las demás condiciones concertadas en beneficio del dependiente.
3. Los malos tratamientos u ofensas graves por parte del principal.

egin bada, hitzartutako epe hori igaro arte, kontratugile bakoitzak bestearen adostasuna beharko du kontratua ez betetzeko.

Klausula hori betetzen ez dutenek kalte-galeren ordaina eman beharko dute, hurrengo artikuluetan xedatutakoa salbu.

### 300. artikulua

Aginduaren epea amaitzeke egon arren, merkatariek euren dependenteak kaleratu ahal dituzte honako arrazoi berezien ondorioz:

1. Eurei emandako kudeaketetan iruzurrez edo konfiantza-abusuz jardutea.
2. Merkataritzako negoziazioa euren kontura egitea, nagusiak horren berriz izan gabe eta baimenik eman gabe.
3. Nagusiari edo horren familiari nahiz mendekoei zor zaien begirunearen kontra jardutea modu larrian.

### 301. artikulua

Aginduaren epea amaitzeke egon arren, dependenteek nagusiarekin duten lotura apur dezakete, honako arrazoien ondorioz:

1. Hitzartutako soldata edo zerbitzariak ez ordaintzea finkaturiko epeetan.
2. Dependentearen mesederako hitzartu diren beste baldintzetatik edozein ez betetzea.
3. Nagusiak tratu txarrak edo irain larriak gauzatzea.

### **Artículo 302**

En los casos de que el empeño no tuviere tiempo señalado, cualquiera de las partes podrá darlo por fenecido, avisando a la otra con un mes de anticipación.

El factor o mancebo tendrá derecho, en este caso, al sueldo que corresponda a dicha mesada.

## **TÍTULO IV DEL DEPÓSITO MERCANTIL**

### **Artículo 303**

Para que el depósito sea mercantil se requiere:

1. Que el depositario, al menos, sea comerciante.
2. Que las cosas depositadas sean objeto de comercio.
3. Que el depósito constituya por sí una operación mercantil, o se haga como causa o a consecuencia de operaciones mercantiles.

### **Artículo 304**

El depositario tendrá derecho a exigir retribución por el depósito, a no mediar pacto expreso en contrario.

Si las partes contratantes no hubieren fijado la cuota de la retribución, se regularán según los usos de la plaza en que el depósito se hubiere constituido.

### **302. artikulua**

Agindua epe zehatzik gabe eman denean, alderdietatik edozeinek esan dezake berori amaitu dela, hilabete lehenago horren berri ematen badio beste alderdiari.

Halakoetan, hileroko horri dagokion soldata erreklamatu ahal izango du faktore edo langinak.

## **IV. TITULUA MERKATARITZAKO GORDAILUA**

### **303. artikulua**

Gordailua merkataritzakoa izan dadin, honako betekizunak bete behar dira:

1. Gordailuzaina, behintzat, merkatarizatea.
2. Gordailuturiko gauzak merkataritzako gaiak izatea.
3. Gordailua bera merkataritzako eragiketa izatea, edota berori merkataritzako eragiketen arrazoi edo ondorio izatea.

### **304. artikulua**

Kontrako itunik izan ezean, gordailuzainak gordailuaren ondoriozko ordainketa eska dezake.

Kontratugileek ez badute zehaztu ordainketaren zenbatekoa, gordailua zein hiritan eratu eta hiri horretako usadioen arabera zehaztuko da berori.

**Artículo 305**

El depósito quedará constituido mediante la entrega, al depositario, de la cosa que constituya su objeto.

**Artículo 306**

El depositario está obligado a conservar la cosa objeto del depósito según la reciba, y a devolverla con sus aumentos, si los tuviere, cuando el depositante se la pida.

En la conservación del depósito responderá el depositario de los menoscabos, daños y perjuicios que las cosas depositadas sufrieren por su malicia o negligencia, y también de los que provengan de la naturaleza o vicio de las cosas, si en estos casos no hizo por su parte lo necesario para evitarlos o remediarlos, dando aviso de ellos además al depositante inmediatamente que se manifestaren.

**Artículo 307**

Cuando los depósitos sean de numerario, con especificación de las monedas que los constituyan, o cuando se entreguen sellados o cerrados, los aumentos o bajas que su valor experimente serán de cuenta del depositante.

Los riesgos de dichos depósitos correrán a cargo del depositario, siendo de cuenta del mismo los daños que sufrieren, a no probar que ocurrieron por fuerza mayor o caso fortuito insuperable.

Cuando los depósitos de numerario se constituyeren sin especificación de monedas o sin cerrar o sellar, el depo-

**305. artikulua**

Gordailua eratzen da, gordailuzainari kontratuaren objektu den gauza ematen zaionean.

**306. artikulua**

Gordailuzainak gordailupeko gauza artatu behar du berak jaso duen moduan, eta gehikuntzekin batera itzuli beharko du, gordailugileak eskatzen dionean.

Gordailuzainak gordailupeko gauzen kalte-galeren gaineko erantzukizuna izango du, kalteok beraren maltzurkeria edo arduragabekeriaren ondorioz sortu direnean, eta kalteen oinarria gauzen izaeran edo akatsetan egonda, gordailuzainak ez dituenen beharrezko egingizak gauzatu, kalteok saihestu edo konpontzeko; kalteok sortzearekin batera, gordailuzainak horien berri eman behar dio gordailugileari.

**307. artikulua**

Diru-gordailuetan monetak zehaztu direnean, edota gordailu horiek itxita edo prezintatuta eman direnean, gordailugilearen kontura geratuko dira moneta horien balio-igoera edo -jaitsierak.

Gordailuzainak gordailuaren arriskuak hartuko ditu bere gain, eta gordailuzainaren kontura geratuko dira gauzaren kalteak, beroriek ezinbestearen edo ezuste gaindiezinaren ondorioz gertatu direla frogatu ezean.

Diru-gordailuetan monetarik zehaztu ez denean, edota gordailu horiek itxi edo prezintatu gabe eman direnean,

sitario responderá de su conservación y riesgos en los términos establecidos por el párrafo 2 del artículo 306.

### **Artículo 308**

Los depositarios de títulos, valores, efectos o documentos que devenguen intereses, quedan obligados a realizar el cobro de éstos en las épocas de sus vencimientos, así como también a practicar cuantos actos sean necesarios para que los efectos depositados conserven el valor y los derechos que les correspondan con arreglo a disposiciones legales.

### **Artículo 309**

Siempre que, con asentimiento del depositante, dispusiere el depositario de las cosas que fueren objeto de depósito, ya para sí o sus negocios, ya para operaciones que aquél le encomendare, cesarán los derechos y obligaciones propios del depositante y depositario, y se observarán las reglas y disposiciones aplicables al préstamo mercantil, a la comisión o al contrato que en sustitución del depósito hubieren celebrado.

### **Artículo 310**

No obstante lo dispuesto en los artículos anteriores, los depósitos verificados en los bancos, en los almacenes generales, en las sociedades de crédito o en otras cualesquiera compañías, se regirán en primer lugar por los estatutos de las mismas; en segundo, por las prescripciones de este Código, y últimamente, por las reglas del Derecho común, que son aplicables a todos los depósitos.

gordailuzainak artatzearen eta arriskuaren gaineko erantzukizuna izango du, 306. artikulua 2. lerroakad ezarritakoaren arabera.

### **308. artikulua**

Korrituak sortzen dituzten titulu, balore, efektu edo agirien gordailuetan, gordailuzainak korritu horiek kobratu beharko ditu muga-egunetan, eta, horrez gain, gordailuturiko efektuen balioa eta legearen arabera horiek dituzten eskubideak iraunarazteko egintzak gauzatu beharko ditu.

### **309. artikulua**

Gordailuzainak gordailupeko gauzak xedatzen dituean gordailugilearen adostasunarekin, dela berarentzat, dela bere negozioarentzat, dela gordailugileak agindutako eragiketegi begira, bertan behera geratuko dira gordailugile eta gordailuzainaren eskubide eta betebeharrak, eta merkataritzako mailleguaren, komisioaren edota gordailuaren ordezkariaren kontratuaren xedapenak aplikatuko dira.

### **310. artikulua**

Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, banku, biltegi nagusi, kreditu-sozietate edo bestelako konpainietan eginiko gordailuei, lehenik eta behin euren estatutuak aplikatuko zaizkie; bigarrenik, kode honen xedapenak; eta, azkenik, zuzenbide erkidearen erregelak, gordailu guztiei aplikatu ahal zaizkienak.



TÍTULO V  
DE LOS PRÉSTAMOS  
MERCANTILES

SECCIÓN PRIMERA  
*Del préstamo mercantil*

**Artículo 311**

Se reputará mercantil el préstamo, concurriendo las circunstancias siguientes:

1. Si alguno de los contratantes fuere comerciante.
2. Si las cosas prestadas se destinaren a actos de comercio.

**Artículo 312**

Consistiendo el préstamo en dinero, pagará el deudor devolviendo una cantidad igual a la recibida, con arreglo al valor legal que tuviere la moneda al tiempo de la devolución, salvo si se hubiere pactado la especie de moneda en que había de hacerse el pago, en cuyo caso la alteración que hubiese experimentado su valor será en daño o en beneficio del prestador.

En los préstamos de títulos o valores, pagará el deudor devolviendo otros tantos de la misma clase e idénticas condiciones o sus equivalentes si aquéllos se hubiesen extinguido, salvo pacto en contrario.

Si los préstamos fueren en especie, deberá el deudor devolver, a no mediar pacto en distinto sentido, igual canti-

V. TITULUA  
MERKATARITZAKO  
MAILEGUAK

LEHENENGO ATALA  
*Merkataritzako mailegua*

**311. artikulua**

Mailegua merkataritzakoa izango da, hurrengo inguruabarrak betetzen direnean:

1. Kontratugileetako bat merkatarizatea.
2. Maileguan emandako gauzak merkataritzako egintzetan erabiltzea.

**312. artikulua**

Diru-maileguetan, zordunak itzuli behar du berak jaso duen zenbateko bera, itzultze-unean monetak duen lege-balioa kontuan izanik, salbu eta ordainketa egiteko moneta itundu denean; halakoetan, moneta horren balioak izandako aldaketak mailegu-emailaren mesederako edo kalterako izango dira.

Titulu edo baloreen maileguetan, kontrako itunik izan ezean, zordunak itzuli behar du berak jaso duen beste horrenbeste titulu, mota eta baldintza berekoak; tituluok azkendu badira, horien baliokideak itzuli behar dira.

Gauza-maileguetan, kontrako itunik izan ezean, zordunak itzuli behar du berak jaso duen espezie eta kalitate

dad en la misma especie y calidad, o su equivalente en metálico si se hubiese extinguido la especie debida.

### **Artículo 313**

En los préstamos por tiempo indeterminado, o sin plazo marcado de vencimiento, no podrá exigirse al deudor el pago sino pasados treinta días, a contar desde la fecha del requerimiento notarial que se le hubiere hecho.

### **Artículo 314**

Los préstamos no devengarán interés si no se hubiese pactado por escrito.

### **Artículo 315**

Podrá pactarse el interés del préstamo sin tasa ni limitación de ninguna especie.

Se reputará interés toda prestación pactada a favor del acreedor.

### **Artículo 316**

Los deudores que demoren el pago de sus deudas después de vencidas, deberán satisfacer desde el día siguiente al del vencimiento el interés pactado para este caso o, en su defecto, el legal.

Si el préstamo consistiere en especies, para computar el crédito se graduará su valor por los precios que las mercaderías prestadas tengan en la plaza en que deba hacerse la devolución, el día siguiente al del vencimiento, o por el que determinen peritos, si

bereko beste horrenbeste; espezie hori azkendu bada, horren baliokidea eman beharko du eskudiruz.

### **313. artikulua**

Epe zehaztugabea duten maileguetan edo muga-egun zehatzik ez duten besteetan, zordunari ordainketa eskatu ahal zaio notario-agindeia egin eta hogeita hamar egun igaro ostean.

### **314. artikulua**

Maileguak korrituak sor ditzan, horren gaineko ituna egin behar da idatziz.

### **315. artikulua**

Maileguaren korritua inolako mugapen edo tasarik gabe itundu ahal izango da.

Korritua da hartzekodunaren mesedetan itundutako edozein prestazio.

### **316. artikulua**

Zorra muga-eguneratu eta zordunak horren ordainketa atzeratzen badu, itundutako korritua eman beharko du kontratua muga-eguneratu eta hurrengo egunetik, eta, halakorik izan ezean, lege-korritua.

Gauza-maileguetan, merkatugaien balioa zehazteko, merkatugai horiek zein hiritan itzuli eta bertan duten prezioa hartu behar da kontuan; prezio hori izan behar da kontratua muga-eguneratu eta hurrengo egunekoan. Merkatugaiaren balioespina egin behar

la mercadería estuviere extinguida al tiempo de hacerse su evaluación.

Y si consistiere el préstamo en títulos o valores, el rédito por mora será el que los mismos valores o títulos devengaren, o, en su defecto, el legal, determinándose el precio de los valores por el que tengan en Bolsa, si fueren cotizables, o en la plaza, en otro caso, el día siguiente al del vencimiento.

### Artículo 317

Los intereses vencidos y no pagados no devengan intereses. Los contratantes podrán, sin embargo, capitalizar los intereses líquidos y no satisfechos, que, como aumento de capital, devengarán nuevos réditos.

### Artículo 318

El recibo del capital por el acreedor, sin reservarse expresamente el derecho a los intereses pactados o debidos, extinguirá la obligación del deudor respecto a los mismos.

Las entregas a cuenta, cuando no resulte expresa su aplicación, se imputarán en primer término al pago de intereses por orden de vencimiento, y después al del capital.

### Artículo 319

Interpuesta una demanda, no podrá hacerse la acumulación de interés al capital para exigir mayores réditos.

denean horiek azkendu badira, adituek zehaztu beharko dute merkatugaion balioa.

Titulu edo baloreen maileguetan, berandutze-korrituak izango dira titulu edo baloreek eurek sortzen dituztenak, eta, horiek izan ezean, lege-korrituak; titulu edo baloreak kotizagarriak direnean, aintzat hartu behar da horiek Burtsan duten balioa, eta gainerako kasuetan, hirian dutena, kontratua muga-eguneratu eta hurrengo egunean.

### 317. artikulua

Muga-eguneratutako eta ordaindu gabeko korrituek ez dute beste korriturik sortuko. Hala ere, kontratugileek ahalmena dute ordaindu ez diren korritu likidoak kapitalizatzeke; horren bitartez, eta kapital-gehikuntza baten moduan, beste korritu batzuk sortuko dira.

### 318. artikulua

Hartzekodunak kapitala jasotzen badu itundutako korrituak berarentzat erreserbatu gabe, azkendu egingo da horien gainean zordunak duen bete-beharra.

Kontura emandako diru-kopuruen aplikazioa beren-beregi zehazten ez denean, kopuru horiek korrituen ordainketari egotziko zaizkio lehenik eta behin, horien muga-egunen arabera; eta, bigarrenik, kapitalaren ordainketari.

### 319. artikulua

Demanda jarri eta gero, korrituak ezin zaizkio kapitalari gehitu korritu gehiago eskatu ahal izateko.

SECCIÓN II

*De los préstamos  
con garantía de valores*

II. ATALA

*Balore-bermedun  
maileguak*

**Artículo 320**

El préstamo con garantía de valores admitido a negociación en un mercado secundario oficial, hecho en póliza con intervención del Corredor de Comercio Colegiado o en escritura pública, se reputará siempre mercantil.

El prestador tendrá sobre los valores pignorados, conforme a las disposiciones de esta sección, derecho a cobrar su crédito con preferencia a los demás acreedores, quienes no podrán disponer de los mismos a no ser satisfaciendo el crédito constituido sobre ellos.

**Artículo 321**

En la póliza del contrato deberán expresarse los datos y circunstancias necesarios para la adecuada identificación de los valores dados en garantía.

**Artículo 322**

Vencido el plazo del préstamo, el acreedor, salvo pacto en contrario y sin necesidad de requerir al deudor, estará autorizado para pedir la enajenación de los valores dados en garantía, a cuyo fin entregará a los organismos rectores del correspondiente mercado secundario oficial la póliza o escritura de préstamos, acompañada de los títulos pig-

**320. artikulua**

Balore-bermedun maileguaren negoziazioa onartuta badago bigarren mailako merkatu ofizialean, eta mailegu horren poliza egitean merkataritzako artekari elkargokideak esku hartu badu edo mailegua eskritura publikoan egin bada, mailegu hori merkataritzakoa izango da.

Gainerako hartzekodunei begira eta atal honetako xedapenen arabera, mailegu-emaileak lehenespena izango du beste hartzekodunen gain bere kreditua kobratzeko balore pignoratuen bidez; hartzekodun horiek ezin izango dituzte baloreok xedatu, aldez aurretik balore horien gain eraturako kredituak ordaindu gabe.

**321. artikulua**

Bermean emandako baloreak behar bezala identifikatzeko datu eta inguruabarrak adierazi behar dira kontratuaren polizan.

**322. artikulua**

Maileguaren epea muga-eguneratutakoan eta kontrako itunik izan ezean, hartzekodunak, zordunari agindeirik egin behar izan gabe, berme moduan emandako baloreak besterentzeko eska dezake; horretarako, poliza edo maileguaren eskritura emango die bigarren mailako merkatu ofizial egokiaren erakunde artezkariei, eta, horrekin bate-

norados o del certificado acreditativo de la inscripción de la garantía, expedido por la entidad encargada del correspondiente registro contable.

El organismo rector, una vez hechas las oportunas comprobaciones, adoptará las medidas necesarias para enajenar los valores pignorados, en el mismo día en que reciba la comunicación del acreedor, o, de no ser posible, en el día siguiente, a través de un miembro del correspondiente mercado secundario oficial.

El acreedor pignoraticio sólo podrá hacer uso del procedimiento ejecutivo especial regulado en este artículo durante los tres días hábiles siguientes al vencimiento del préstamo.

### Artículo 323

Lo dispuesto en esta Sección será también aplicable a las cuentas corrientes de crédito abiertas por entidades de crédito cuando se hubiere convenido que la cantidad exigible en caso de ejecución será la especificada en certificación expedida por la entidad acreedora, en cuyo caso, además de los documentos contemplados en el artículo anterior, se entregará la mencionada certificación acompañada del documento fehaciente a que se refiere el artículo 1435 de la Ley de Enjuiciamiento Civil

### Artículo 324

Los valores pignorados conforme a lo que se establece en los artículos anteriores no estarán sujetos a reivindicación mientras no sea reembolsado el

ra, titulu pignoratuak aurkeztuko ditu, edota bermearen inskripzioa egiaztatzeke ziurtagiria, kasuan kasuko kontabilitate-erregistroak luzatutakoa.

Erakunde artezkariak egiaztatze egokiak egin ostean balore pignoratuak besterentzeko neurriak hartuko ditu, hartzekodunak berriematea egin duen egunean bertan edo, hori ezinezkoa bada, biharamunean; horretarako, bigarren mailako merkatu ofizial egokiaren kide batengana joko du.

Artikulu honetan araututako prozedura betearazle berezia erabili ahal izango du hartzekodun pignorazioak, mailegua muga-eguneratu eta hurrengo hiru egunetan bakarrik.

### 323. artikulua

Kreditu-erakundeek irekitako kreditu kontu-korronteei ere atal honetan xedatutakoa aplika dakieke, baldin eta itundu bada betearazpen-kasuetan eska daitekeen zenbatekoa izango dela erakunde hartzekodunak luzatutako ziurtagirian zehaztutakoa; halakoetan, aurreko artikuluan aipatu agiriez landa, ziurtagiri hori aurkeztu behar da, Prozedura Zibilaren Legearen 1435 artikulua aipatu agiri sinesgarriarekin batera.

### 324. artikulua

Aurreko artikuluetan ezarritakoaren arabera pignoratu diren baloreak ezin izango dira errebindikatu mailegu-emailari ordaindu arte; hala ere,

prestador, sin perjuicio de los derechos y acciones del titular desposeído contra las personas responsables según las leyes, por los actos en virtud de los cuales haya sido privado de los valores dados en garantía.

**TÍTULO VI  
DE LA COMPRAVENTA  
Y PERMUTA MERCANTILES  
Y DE LA TRANSFERENCIA DE  
CRÉDITOS NO ENDOSABLES**

SECCIÓN PRIMERA  
*De la compraventa*

**Artículo 325**

Será mercantil la compraventa de cosas muebles para revenderlas, bien en la misma forma que se compraron o bien en otra diferente, con ánimo de lucrarse en la reventa.

**Artículo 326**

No se reputarán mercantiles:

1. Las compras de efectos destinados al consumo del comprador o de las personas por cuyo encargo se adquieren.

2. Las ventas que hicieren los propietarios y los labradores o ganaderos de los frutos o productos de sus cosechas o ganado, o de las especies en que se les paguen las rentas.

titularrari berme gisa emandako balore horiek kentzen zaizkionean, titular horrek eskubide eta akzioak izango ditu legearen arabera egintza horien gaineko erantzukizuna duten pertsonen aurka.

**VI. TITULUA  
MERKATARITZAKO  
SALEROSKETA ETA TRUKEA  
ETA KREDITU ENDOSAEZINAK  
ESKUALDATZEA**

LEHENENGO ATALA  
*Salerosketa*

**325. artikulua**

Merkataritzakoa da, irabaziak lortzeko asmotan, gauza higigarriak birsaltzeko egiten den salerosketa; gauza horiek birsal daitezke eurak erosi bezala zein beste egoera batean.

**326. artikulua**

Hurrengoak ez dira merkataritzakoak izango:

1. Efektuen erosketak, erosleak bere kontsumorako edota erosteko agindua eman dionaren kontsumorako egin dituztean.

2. Jabe eta nekazari zein abeltzainek euren uzta nahiz aziendetatik jasotako fruitu eta produktuen salmentak, edota errenta gisa jaso dituzten gauzenak.

3. Las ventas que de los objetos contruidos o fabricados por los artesanos hicieren éstos en sus talleres.

4. La reventa que haga cualquier persona no comerciante del resto de los acopios que hizo para su consumo.

### Artículo 327

Si la venta se hiciere sobre muestras o determinando calidad conocida en el comercio, el comprador no podrá rehusar el recibo de los géneros contratados si fueren conformes a las muestras o a la calidad prefijada en el contrato.

En el caso de que el comprador se negare a recibirlos se nombrarán peritos por ambas partes, que decidirán si los géneros son o no de recibo.

Si los peritos declarasen ser de recibo, se estimará consumada la venta, y en caso contrario se rescindirá el contrato, sin perjuicio de la indemnización a que tenga derecho el comprador.

### Artículo 328

En las compras de géneros que no se tengan a la vista ni puedan clasificarse por una calidad determinada y conocida en el comercio, se entenderá que el comprador se reserva la facultad de examinarlos y de rescindir libremente el contrato si los géneros no le convinieren.

También tendrá el comprador el derecho de rescisión si por pacto expreso se hubiere reservado ensayar el género contratado.

3. Eskulangileek, euren lantegietan eta euren egindako objektuen gain, egindako salmentak.

4. Merkatarari ez denak bere kontsumorako bildutakotik geratzen zaionaren birsalmenta.

### 327. artikulua

Salmenta egin bada laginen arabera edo merkatuan ezaguna den kalitatearen arabera, eta kontratatutako gaiak bat badatoz lagin edo kalitate horiekin, erosleak ezin dio uko egin gaiok jasotzeari.

Erosleak uko egiten badio gaiak jasotzeari, bi alderdiek izendatutako adituek finkatu beharko dute gai horiek jasotzeko modukoak diren edo ez.

Adituek adierazten badute gauza horiek jasotzeko modukoak direla, gauzatutzat hartuko da salmenta, eta, alderantzizko kasuan, hutsaldu egingo da; hala ere, erosleari kalte-ordaina eman beharko zaio.

### 328. artikulua

Erositako gaiak ezin badira ikusi edo ezin badira sailkatu merkataritzan ezaguna den kalitate zehatza izateagatik, ulertzen da erosleak gaiok aztertze-ko eskubidea duela, eta, beraren gutukoak ez badira, askatasunez hutsaldu ahal izango duela kontratua.

Halaber, erosleak hutsaltze-eskubidea izango du, baldin eta esanbidezko itunaren ondorioz gaiaren entsegua egiteko ahalmena eman bazaio.

### **Artículo 329**

Si el vendedor no entregare en el plazo estipulado los efectos vendidos, podrá el comprador pedir el cumplimiento o la rescisión del contrato, con indemnización en uno y otro caso, de los perjuicios que se le hayan irrogado por la tardanza.

### **Artículo 330**

En los contratos en que se pacte la entrega de una cantidad determinada de mercaderías en un plazo fijo, no estará obligado el comprador a recibir una parte ni aún bajo promesa de entregar el resto; pero si aceptare la entrega parcial, quedará consumada la venta en cuanto a los géneros recibidos, salvo el derecho del comprador a pedir por el resto el cumplimiento del contrato o su rescisión con arreglo al artículo anterior.

### **Artículo 331**

La pérdida o deterioro de los efectos antes de su entrega, por accidente imprevisto o sin culpa del vendedor, dará derecho al comprador para rescindir el contrato, a no ser que el vendedor se hubiere constituido en depositario de las mercaderías con arreglo al artículo 339, en cuyo caso se limitará su obligación a la que nazca del depósito.

### **Artículo 332**

Si el comprador rehusase sin justa causa el recibo de los efectos comprados, podrá el vendedor pedir el cumplimiento o rescisión del contrato, depo-

### **329. artikulua**

Saltzaileak ez baditu eman efektuak hitzartutako epean, erosleak kontratuaren betepena zein hutsalketa eska dezake, eta kasu bietan, atzerapenaren ondorioz sortutako galeren ordaina jasoko du.

### **330. artikulua**

Kontratuan itundu denean merkatugai kopuru zehatz bat eman behar dela epe finko batean, erosleak ez ditu zertan jaso batzuk bakarrik, nahiz eta besteak emango zaizkiolako hitz-ematea egon; zatikako ematea onartzen badu, alabaina, salmenta gauzatutzat joko da jasotako gai horiei begira, eta, besteei dagokienez, erosleak kontratuaren betepena zein hutsalketa eska dezake, arreko artikulua araberara.

### **331. artikulua**

Ustekabeko istripuz edota saltzailearen errurik gabe gauza galdu edo narriatzen bada berori eman aurretik, erosleak kontratua hutsaltzeko eskubidea izango du, salbu eta 339. artikulua araberara saltzailea denean merkatu-gaien gordailuzain; kasu horretan saltzaileak gordailuaren ondoriozko betebeharrak bakarrik izango ditu.

### **332. artikulua**

Erosleak bidezko arrazoirik gabe, gauzak jasotzeari uko egiten badiu, saltzaileak kontratua betetzea edo hutsaltzea eska dezake, eta, lehenengo



sitando judicialmente en el primer caso las mercaderías.

El mismo depósito judicial podrá constituir el vendedor siempre que el comprador demore hacerse cargo de las mercaderías.

Los gastos que origine el depósito serán de cuenta de quien hubiere dado motivo para constituirlo.

### Artículo 333

Los daños y menoscabos que sobrevinieren a las mercaderías, perfecto el contrato y teniendo el vendedor los efectos a disposición del comprador en el lugar y tiempo convenidos, serán de cuenta del comprador, excepto en los casos de dolo o negligencia del vendedor.

### Artículo 334

Los daños y menoscabos que sufran las mercaderías, aun por caso fortuito, serán de cuenta del vendedor en los casos siguientes:

1. Si la venta se hubiere hecho por número, peso o medida, o la cosa vendida no fuera cierta y determinada con marcas y señales que la identifiquen.
2. Si por pacto expreso o por uso del comercio, atendida la naturaleza de la cosa vendida, tuviere el comprador la facultad de reconocerla y examinarla previamente.
3. Si el contrato tuviere la condición de no hacer la entrega hasta que la cosa vendida adquiriera las condiciones estipuladas.

kasuan, epailearen zainpean utziko ditu gauza horiek.

Saltzaileak epailearen zainpean utzi ahal ditu gauzak, erosleak ez baditu garaiz jasotzen.

Zainpean uzte hori nork eragin eta pertsona horrek ordainduko ditu eragindako gastuak.

### 333. artikulua

Kontratua burutu eta saltzaileak eroslearen esku jarri baditu efektuak hitzartutako tokian eta epean, erosleak ordaindu beharko ditu merkatu-gaietan gertatze bidez sortutako kalte eta narriadurak, salbu eta saltzaileak doloz edo arduragabekeriaz jardun duenean.

### 334. artikulua

Hurrengo kasuetan, saltzaileak ordainduko ditu merkatu-gaiei eragindako kalteak eta narriadurak, horiek ezustearen ondoriozkoak izan arren:

1. Salmenta egin denean kopuru, pisu edo neurriaren arabera, edota saldutako gauza zehaztu ez denean, berori identifikatzeko marka eta zeinuen bitartez.
2. Esanbidezko itunaren ondorioz edo merkataritzako usadioen arabera eta saldutako gauzaren izaera kontuan izanda, erosleak gauza aurretiaz aztertzeko aukera izan duenean.
3. Kontratuan baldintza moduan ezarri denean, ez dela ematerik egingo, saldutako gauzak hitzartu diren betekizunak bete arte.

### Artículo 335

Si los efectos vendidos perecieren o se deterioraren a cargo del vendedor, devolverá al comprador la parte del precio que hubiera recibido.

### Artículo 336

El comprador que al tiempo de recibir las mercaderías las examinare a su contento, no tendrá acción para repetir contra el vendedor alegando vicio o defecto de cantidad o calidad en las mercaderías.

El comprador tendrá el derecho de repetir contra el vendedor por defecto en la cantidad o calidad de las mercaderías recibidas enfardadas o embaladas, siempre que ejercite su acción dentro de los cuatro días siguientes al de su recibo y no proceda la avería de caso fortuito, vicio propio de la cosa o fraude.

En estos casos, podrá el comprador optar por la rescisión del contrato, o por su cumplimiento con arreglo a lo convenido, pero siempre con la indemnización de los perjuicios que se le hubieren causado por los defectos o faltas.

El vendedor podrá evitar esta reclamación exigiendo en el acto de la entrega que se haga el reconocimiento, en cuanto a cantidad y calidad, a contento del comprador.

### Artículo 337

Si no se hubiere estipulado el plazo para la entrega de las mercaderías

### 335. artikulua

Saldutako efektuak saltzailearen kontura galdu edo narriatzen badira, erosleari itzuli behar zaio hark jasotako prezioaren zatia.

### 336. artikulua

Erosleak merkatugaiak jasotzean horiek aztertu eta bere adostasuna ematen badu, ez du izango saltzailearen aurka errepititzeko akziorik, merkatugai horien akatsak edo kalitate zein kopuruaren inguruko arazoak aipatuz.

Jasotako merkatugaiak enbalatuta edo fardeletan bilduta daudenean, erosleak saltzailearen aurka errepititzeko eskubidea izango du, kopuru- edo kalitate-akatsak aipatuz, baldin eta gauzak jaso eta hurrengo lau egunetan erabiltzen badu akzioa, eta matxura ez bada ezustearen, berezko akats baten edo iruzurraren ondorio.

Halakoetan, erosleak kontratua hutsal dezake edo horren betepena eska dezake hitzartutakoaren arabera eta akatsen ondorioz eragindako galeren ordainari kalterik egin gabe.

Saltzaileak erreklamazio horiek saihestu ditzake, baldin eta, gauza emateko unean, berorren kopuru eta kalitatea aztertzea eskatzen badu.

### 337. artikulua

Kontratuak ez badu merkatugaiak emateko eperik zehaztu, saltzaileak eros-

vendidas, el vendedor deberá tenerlas a disposición del comprador dentro de las veinticuatro horas siguientes al contrato.

### Artículo 338

Los gastos de la entrega de los géneros en las ventas mercantiles serán de cargo del vendedor hasta ponerlos, pesados o medidos, a disposición del comprador, a no mediar pacto expreso en contrario.

Los de su recibo y extracción fuera del lugar de la entrega, serán de cuenta del comprador.

### Artículo 339

Puestas las mercaderías vendidas a disposición del comprador, y dándose éste por satisfecho, o depositándose aquéllas judicialmente en el caso previsto en el artículo 332 empezará para el comprador la obligación de pagar el precio al contado o en los plazos convenidos con el vendedor.

Este se constituirá depositario de los efectos vendidos, y quedará obligado a su custodia y conservación según las leyes del depósito.

### Artículo 340

En tanto que los géneros vendidos estén en poder del vendedor, aunque sea en calidad de depósito, tendrá éste preferencia sobre ellos a cualquier otro acreedor, para obtener el pago del precio con los intereses ocasionados por la demora.

learen eskura izan behar ditu merkatu-gaiok, kontratua egin eta hurrengo hogeita lau orduetan.

### 338. artikulua

Kontrako itunik izan ezean, saltzai-leak ordainduko ditu gaiak ematearen ziozko gastuak, gai horiek pisatu edo neurtu ostean eroslearen esku jarri arte.

Erosleak ordainduko ditu, berriz, gai horiek jaso eta emate-tokitik ateratzeko gastuak.

### 339. artikulua

Saldutako gaiak eroslearen esku jarri eta horrek onartzen dituenetik, edota gai horiek epailearen zainpean jarri direnetik 332. artikuluan ezarritakoaren ondorioz, erosleak prezioa ordaintzeko betebeharra izango du, dela eskura, dela saltzailearekin hitzartutako epeetan.

Saltzailea saldutako efektuen gordailuzain bihurtzen denez, horiek zaindu eta artatu beharko ditu, gordailuari buruzko legeek ezarritakoaren arabera.

### 340. artikulua

Saldutako gaiak saltzailearen esku dauden bitartean, gordailu moduan izan arren, prezioa eta berandutze-korrituak kobratzerakoan, saltzaile horrek gaien inguruko lehenespena izango du, beste hartzekodunen gainetik.

### **Artículo 341**

La demora en el pago del precio de la cosa comprada constituirá al comprador en la obligación de pagar el interés legal de la cantidad que adeude al vendedor.

### **Artículo 342**

El comprador que no haya hecho reclamación alguna fundada en los vicios internos de la cosa vendida, dentro de los treinta días siguientes a su entrega, perderá toda acción y derecho a repetir por esta causa contra el vendedor.

### **Artículo 343**

Las cantidades que, por vía de señal, se entreguen en las ventas mercantiles se reputarán siempre dadas a cuenta del precio y en prueba de la ratificación del contrato, salvo pacto en contrario.

### **Artículo 344**

No se rescindirán las ventas mercantiles por causa de lesión; pero indemnizará daños y perjuicios el contratante que hubiere procedido con malicia o fraude en el contrato o en su cumplimiento, sin perjuicio de la acción criminal.

### **Artículo 345**

En toda venta mercantil el vendedor quedará obligado a la evicción y saneamiento en favor del comprador, salvo pacto en contrario.

### **341. artikulua**

Prezioaren ordainketa atzeratzen bada, erosleak saltzaileari zor dion zenbatekoaren gaineko lege-korrituak ordaindu beharko ditu.

### **342. artikulua**

Gauza ematen denetik hogeita hamar eguneko epean, erosleak ez badu egiten gauzaren barne akatsen ondoriozko erreklamaziorik, saltzailearen aurkako akzioak eta errepetizio-eskubideak galduko ditu.

### **343. artikulua**

Kontrako itunik izan ezean, ulertzen da merkataritzako salmentetan zeinu moduan emandako zenbatekoak prezioaren kontura eman direla, kontratua berretsi dela erakusteko.

### **344. artikulua**

Merkataritzako salmentak ez dira hutsalduko lesioaren ondorioz, baina kontratua egin edo betetzerakoan maltzurkeriaz edo iruzurrez jardun duen kontratugileak galeren ordaina eman beharko dio besteari, kasuan kasuko akzio kriminalari kalterik egin gabe.

### **345. artikulua**

Kontrako itunik izan ezean, merkataritzako salmentetan saltzaileak ebikzio- eta saneamendu-betebeharrak izango ditu, erosleari begira.

## SECCIÓN II

*De las permutas***Artículo 346**

Las permutas mercantiles se regirán por las mismas reglas que van prescritas en este título, respecto de las compras y ventas, en cuanto sean aplicables a las circunstancias y condiciones de aquellos contratos.

## SECCIÓN III

*De las transferencias  
de créditos no endosables***Artículo 347**

Los créditos mercantiles no endosables ni al portador, se podrán transferir por el acreedor sin necesidad del consentimiento del deudor, bastando poner en su conocimiento la transferencia.

El deudor quedará obligado para con el nuevo acreedor en virtud de la notificación, y desde que tenga lugar no se reputará pago legítimo sino el que se hiciera a éste.

**Artículo 348**

El cedente responderá de la legitimidad del crédito y de la personalidad con que hizo la cesión; pero no de la solvencia del deudor, a no mediar pacto expreso que así lo declare

## II. ATALA

*Trukeak***346. artikulua**

Titulu honetan erosketa eta salmenten inguruan ezarritako erregelak aplikatuko zaizkie merkataritzako trukeei, horiek aplikatzeko modukoak diren heinean, truke-kontratuen inguruabarrak eta baldintzak kontuan izanda.

## III. ATALA

*Kreditu endosaezinak  
eskualdatzea***347. artikulua**

Merkataritzako kreditu endosaezinak eta eramailearentzakoak ez direnak hartzekodunari eskualdatu ahal zaizkio zordunaren adostasunik gabe, baldin eta zordun horri eskualdaketa berri ematen bazaio.

Jakinarazpenaren ondorioz, zordunak betebeharra izango du hartzekodun berriari begira, eta, jakinarazpen hori gertatzen denetik, hartzekodun berriari egindako ordainketa bakarrik izango da legearen arabera.

**348. artikulua**

Lagatzaileak erantzukizuna izango du kredituaren legebidezkotasanari eta lagapena egiterakoan berak zuen izaerari begira, baina ez zordunaren kaudimenaren gain; horretarako esanbidezko ituna behar da.

**TÍTULO VII  
DEL CONTRATO  
MERCANTIL DE  
TRANSPORTE TERRESTRE**

**Artículo 349**

El contrato de transporte por vías terrestres o fluviales de todo género, se reputará mercantil:

1. Cuando tenga por objeto mercaderías o cualesquiera efectos del comercio.
2. Cuando, siendo cualquiera su objeto, sea comerciante el porteador, o se dedique habitualmente a verificar transportes para el público.

**Artículo 350**

Tanto el cargador como el porteador de mercaderías o efectos, podrán exigirse mutuamente que se extienda una carta de porte en que se expresarán:

1. El nombre, apellido y domicilio del cargador.
2. El nombre, apellido y domicilio del porteador.
3. El nombre, apellido y domicilio de la persona a quien o a cuya orden vayan dirigidos los efectos, o si han de entregarse al portador de la misma carta.
4. La designación de los efectos, con expresión de su calidad genérica, de su peso y de las marcas o signos exteriores de los bultos en que se contengan.

**VII. TITULUA  
LURGAINEKO GARRAIOAREN  
MERKATARITZAKO  
KONTRATUA**

**349. artikulua**

Edozein motatako lur edota ibaien bidez gauzatu garraioa merkataritzakoa izateko, hurrengo bi baldintzak bete behar dira:

1. Garraioaren objektuak merkatu-gaiak zein merkataritzako beste edozein efektu izatea.
2. Objektua edozein izanda ere, eroalea merkataria izatea, edota horrek ohikotasunez jendearentzat garraio-lanetan jardutea.

**350. artikulua**

Kontratugileek elkar behartu dezakete garraio-gutuna luzatzera, eta gutun horretan, hurrengo datuak adierazi behar dira:

1. Zamatzailearen izen-abizenak eta egoitza.
2. Eroalearen izen-abizenak eta egoitza.
3. Efektuak nori edo noren agindupean bidali eta pertsona horren izen-abizenak eta egoitza, edota efektuok gutunaren eramaileari eman behar zaizkion.
4. Garraiatutako efektuen izendapena, horien generoa, pisua eta efektuok biltzen dituzten fardelen marka edo zeinu bereizleak adierazita.

5. El precio del transporte.
6. La fecha en que se hace la expedición.
7. El lugar de la entrega al porteador.
8. El lugar y el plazo en que habrá de hacerse la entrega al consignatario.
9. La indemnización que haya de abonar el porteador en caso de retardo, si sobre este punto mediare algún pacto.

### Artículo 351

En los transportes que se verifiquen por ferrocarriles u otras empresas sujetas a tarifas o plazos reglamentarios, bastará que las cartas de porte o declaraciones de expedición facilitadas por el cargador se refieran, en cuanto al precio, plazos y condiciones especiales del transporte, a las tarifas y reglamentos cuya aplicación solicita; y si no determinare tarifa, deberá el porteador aplicar el precio de las que resulten más baratas, con las condiciones que a ellas sean inherentes, consignando siempre su expresión o referencia en la carta de porte que entregue al cargador.

### Artículo 352

Las cartas de portes o billetes, en los casos de transporte de viajeros, podrán ser diferentes, unos para las personas y otros para los equipajes; pero todos contendrán la indicación del porteador, la fecha de la expedición, los puntos de salida y llegada, el precio, y, en lo tocante a los equipajes, el número y peso de los bultos, con las demás indicaciones que se crean necesarias para su fácil identificación.

5. Garraioaren prezioa.
6. Igorpen-data.
7. Eroaleari zama emateko tokia.
8. Kontsignatarioari zama emateko tokia eta epea.
9. Atzerapen-kasuetan eroaleak eman beharreko kalte-ordaina, horren inguruko ituna egin bada.

### 351. artikulua

Trenbideen bitartez edo erregelamenduetan ezarritako tarifa nahiz epeak bete behar dituzten enpresen bitartez gauzatutako garraioetan, prezio, epe eta baldintza bereziei dagokienez, nahiko izango da zamatzailleak garraio-gutunean edo igorpen-adierazpenetan aipatzea aplikatu nahi diren tarifa eta erregelamenduak; tarifarik zehaztu ezean, eroaleak merkeenak aplikatuko ditu, horiei datzekien baldintzak kontuan izanda, eta zamatzaileri ematen dion garraio-gutunean tarifa horiek aipatuz.

### 352. artikulua

Garraio-gutunak edota txartelak bidaiarien garraioan desberdinak izan daitezke, batzuk pertsonentzat eta besteak bagajeentzat; horietan guztietan, alabaina, hurrengo datuak jaso behar dira: eroalearen aipamena, igorpen-data, irteera- eta helmuga-tokiak, prezioa, eta bagajeen kasuan, fardelen kopurua eta pisua, baita horiek erraz identifikatzeko aipamenak ere.

### Artículo 353

Los títulos legales del contrato entre el cargador y porteador serán las cartas de porte, por cuyo contenido se decidirán las contestaciones que ocurran sobre su ejecución y cumplimiento, sin admitir más excepciones que las de falsedad y error material en su redacción.

Cumplido el contrato, se devolverá al porteador la carta de porte que hubiere expedido, y en virtud del canje de este título por el objeto porteado, se tendrán por canceladas las respectivas obligaciones y acciones, salvo cuando en el mismo acto se hicieren constar por escrito las reclamaciones que las partes quisieran reservarse, excepción hecha de lo que se determina en el artículo 336.

En caso de que por extravío u otra causa no pueda el consignatario devolver, en el acto de recibir los géneros, la carta de porte suscrita por el porteador, deberá darle un recibo de los objetos entregados, produciendo este recibo los mismos efectos que la devolución de la carta de porte.

### Artículo 354

En defecto de carta de porte, se estará al resultado de las pruebas jurídicas que haga cada parte en apoyo de sus respectivas pretensiones, conforme a las disposiciones generales establecidas en este Código para los contratos de comercio.

### Artículo 355

La responsabilidad del porteador comenzará desde el momento en que

### 353. artikulua

Garraio-gutunak izango dira zama-tzaile eta eroalearen arteko lege-titul- luak, eta agiri horren edukiaren arabera konponduko dira kontratua betetzean gerta daitezkeen eztabaidak, eta faltasuna zein idazkeraren inguruko oker materialak izango dira onartuko diren auzibide-salbuespen bakarrak.

Kontratua bete denean, eroaleari itzuliko zaio horrek luzatutako garraio-gutuna; titulu horren eta garraiatu- riko objektuaren arteko trukea egiten denean, ulertzen da kasuan kasuko bete- behar eta akzioak azkendu direla, salbu eta ekintza berean idatziz agerrarazi di- renean alderdiek erreserbatzen dituzten erreklamazioak, 336. artikulua ezarri- takoa izan ezik.

Kontsignatarioak gaiak jasotzean ezin badu itzuli eroaleak sinatutako garraio-gutuna berori galdu duelako edo beste edozein arrazoiren ondorioz, ob- jektu horien jasoagiria eman beharko dio, eta emate horrek garraio-gutuna itzultzearen ondorioak izango ditu.

### 354. artikulua

Garraio-gutunik izan ezean, alder- diek euren uzien alde egindako froga ju- ridikoen emaitzak hartuko dira kontuan, kode honetan merkataritzako kontra- tuen inguruan ezarritako xedapen oro- korren arabera.

### 355. artikulua

Eroalearen erantzukizuna hasten da berak merkatugaiak zuzenean edo ho-



reciba las mercaderías, por sí o por medio de persona encargada al efecto, en el lugar que se indicó para recibirlas.

### Artículo 356

Los portadores podrán rechazar los bultos que se presenten mal acondicionados para el transporte; y si hubiere de hacerse por camino de hierro, insistiendo en el envío, la empresa los porteará, quedando exenta de toda responsabilidad si hiciere constar en la carta de porte su oposición.

### Artículo 357

Si por fundadas sospechas de falsedad en la declaración del contenido de un bulto, determinare el porteador registrarlo, procederá a su reconocimiento ante testigos, con asistencia del remitente o consignatario.

No concurriendo el que de éstos hubiere de ser citado, se hará el registro ante Notario, que extenderá un acta del resultado del reconocimiento, para los efectos a que hubiere lugar.

3. Tener tres libros foliados y sellados, debiendo poner al principio de cada uno nota expresiva del número de folios que contenga, firmada por la Autoridad de Marina y, en su defecto, por la Autoridad competente.

En el primer libro, que se denominará Diario de Navegación, anotará día por día el estado de la atmósfera, los vientos que reinen, los rumbos que se hacen, el aparejo que se lleva, la fuerza de las máquinas con que se navegue, las distancias navegadas, las maniobras que se ejecuten y demás accidentes de la navegación; anotará también las averías que sufra el buque en su casco, máquinas, aparejo y pertrechos, cualquiera que sea la causa que las origine, así como los desperfectos y averías que experimente la carga, y los efectos e importancia de la echazón, si ésta ocurriera; y en los casos de resolución grave que exija asesorarse o reunirse en Junta a los Oficiales de la nave y aun a la tripulación y pasajeros, anotará los acuerdos que se tomen. Para las noticias indicadas se servirá del cuaderno de bitácora y del de vapor o máquinas que lleva el maquinista.

En el segundo libro, denominado de Contabilidad, registrará todas las par-

du-kontratuak edo horien kopia eskuetiak; zamaren ontzirapen-agiriak edo gidak, eta adituek eginiko ikustaldi nahiz arakatzearen akta, halakoa egin denean irteera-portuan.

2. Kode honen ale bat eramatea ontzian.

3. Folio eta zigiludun hiru liburu izatea; horietako bakoitzaren hasieran folio-kopurua zehazten duen oharra jarri behar da, eta marinako agintariak edo, halakorik izan ezean, agintari eskudunak sinatu behar dute ohar hori.

Lehenengo liburua Nabigazio Egunkaria deituko da, eta bertan egunean-egunean idatzohartuko dira atmosferaren egoera, haizeak, hartutako norabideak, aparailuak, nabigaziorako erabiltzen diren makinaren indarra, ibilitako luzerak edota eginiko maniobrak nahiz gainetako nabigazio-istripuak; horrez landara, kapitainak idatzohartuko ditu ontziaren kasko, makina, aparailu eta hornigaietan gertatutako matxurak, horiek gertatzeko arrazoia kontuan izan gabe, baita zamak izandako narriadura eta matxurak ere, edota zama hori itsasora ezinbestean botatzearen ondoreak eta garrantzia, halakoa gertatuz gero; arazoa larria izateagatik ontziko ofizialak, tripulazioa eta bidaiariak batzara bildu behar direnean, bertan hartutako erabakiak idatzohartu behar ditu kapitainak. Hori guztia gauzatzeko, kapitainak konpasontziaren koadernoan erabil dezake, baita makinistak daraman bapore- edo makina-koadernoan ere.

Bigarren liburua Kontabilitate Liburua deituko da, eta bertan erregistra-

tidas que recaude y pague por cuenta del buque, anotando con toda especificación, artículo por artículo, la procedencia de lo recaudado, y lo invertido en vituallas, reparaciones, adquisición de pertrechos o efectos, víveres, combustibles, aprestos, salarios y demás gastos, de cualquiera clase que sean. Además insertará la lista de todos los individuos de la tripulación, expresando sus domicilios, sus sueldos y salarios y lo que hubieren recibido a cuenta, así directamente como por entrega a sus familias.

En el tercer libro, titulado de Cargamentos, anotará la entrada y salida de todas las mercaderías, con expresión de las marcas y bultos, nombres de los cargadores y consignatarios, puertos de carga y descarga y los fletes que devenguen. En este mismo libro inscribirá los nombres y procedencia de los pasajeros, el número de bultos de sus equipajes y el importe de los pasajes.

4. Hacer, antes de recibir carga, con los Oficiales de la tripulación y dos Peritos, si lo exigieren los cargadores y pasajeros, un reconocimiento del buque, para conocer si se halla estanco con el aparejo y máquinas en buen estado y con los pertrechos necesarios para una buena navegación, conservando certificación del acta de esta visita, firmada por todos los que la hubieren hecho, bajo su responsabilidad.

Los Peritos serán nombrados, uno por el Capitán del buque y otro por los que pidan su reconocimiento, y en caso de discordia nombrará un tercero la Autoridad de Marina del puerto.

tu behar dira ontziaren kontura bildu eta ordaindutako partidak; bildutako horren jatorria eta hurrengo gastuak artikuluz artikuluz eta zehaztaperen guztiekin idatzohartu behar dira: elikagaiak, konponketak, hornigaiak, efektuak, bizigaiak, erregaiak, prestaketak, alokairuak eta gainerako gastuak, edozein motatakoak izanda ere. Halaber, liburu horretan tripulazioko kideen zerrenda sartuko da, horien egoitza, soldata eta alokairuak zehaztuta, baita kontura, zuzenean nahiz euren senideei emanda, jasotako zenbatekoak ere.

Hirugarren liburua Zamen Liburua izango da, eta bertan idatzohartuko ditu merkaturgai guztien sarrera eta irteera, ondokoa adierazita: marka eta fardelak, zamatzaile eta kontsignatarioen izenak, zamatze- nahiz deskarga-portuak eta sortutako pleitak. Liburu horretan inskribatuko dira, halaber, bidaiarien izena eta jatorria, horien bagajeen fardel-kopurua eta bidaiatxartelen zenbatekoa.

4. Zama jaso aurretik, ontzia arakatzeari tripulazioko ofizialekin eta, zamatzaile zein bidaiariekin hala eskatuz gero, bi adituekin batera, ontziaren aparailu eta makinak egoera onean dauden eta nabigazio ona izateko hornigai egokiak dituen jakiteko; bisita horretan eginko aktaren ziurtagiria gordeko du kapitainak, eta arakatzeari euren erantzukizunpean egin duten guztiek sinatu behar dute ziurtagiri hori.

Ontziaren kapitainak izendatuko du aditu bat, eta arakatzeari eskatu dutenek, bestea; horien arteko desadostasuna izanez gero, portuko marinaren agintariak izendatuko du hirugarren aditua.

5. Permanecer constantemente en su buque con la tripulación mientras se recibe a bordo la carga, y vigilar cuidadosamente su estiba; no consentir que se embarque ninguna mercancía o materia de carácter peligroso, como las sustancias inflamables o explosivas, sin las precauciones que están recomendadas para sus envases y manejo y aislamiento; no permitir que se lleve sobre cubierta carga alguna que por su disposición, volumen o peso dificulte las maniobras marineras y pueda comprometer la seguridad de la nave; y en el caso de que la naturaleza de las mercancías, la índole especial de la expedición, y principalmente la estación favorable en que aquélla se emprenda, permitieran conducir sobre cubierta alguna carga, deberá oír la opinión de los Oficiales del buque y contar con la anuencia de los cargadores y del naviero.

6. Pedir Práctico a costa del buque en todas las circunstancias que lo requieran las necesidades de la navegación, y más principalmente cuando haya de entrar en puerto, canal o río, o tomar una rada o fondeadero que ni él ni los Oficiales y tripulantes del buque conozcan.

7. Hallarse sobre cubierta en las recaladas y tomar el mando en las entradas y salidas de puertos, canales, ensenadas y ríos, a menos de no tener a bordo Práctico en el ejercicio de sus funciones. No deberá pernoctar fuera del buque, sino por motivo grave o por razón de oficio.

8. Presentarse, así que tome puerto por arribada forzosa, a la Autoridad

5. Zama ontzian jasotzen den bitartean, bertan izatea tripulazioarekin batera eta arretaz zaintzea zamalan hori; gai sukoi edo lehergaiak bezalako merkatugai arriskutsuak ontziratzean, horiek ontzietan bildu, erabili eta isolatzearen inguruan gomendatu diren neurriak hartzea; ontziaren gainaldean ez eramatea zamarik, baldin eta horren kokapenak, bolumenak edo pisuak, itsas-maniobrak oztopatu ez ezik, ontziaren segurtasuna ere arriskuan jarri ahal badu; merkatugaien izaerak, espedizioaren garrantziak eta, batik bat, espedizio hori hasteko urtaroaren egokitasunak ahalbidetzen badu ontziaren gainaldean zamaren bat eramatea, kapitainak ontziko ofizialen iritzia entzun beharko du, bai eta zamatzaille nahiz ontzi-ustiatzailearen baiezkkoa lortu ere.

6. Nabigazio-beharrizanen arabera beharrezkoa izanez gero, praktikoa eskatzea ontziaren kontura, batez ere, ontzi hori portu, ubide edo ibaian sartu behar denean, edota berak, ontziko ofizialek nahiz tripulazioak ezagutzen ez duten arrada zein ainguratokitik abiatu behar denean.

7. Jardunean ari den praktikorik izan ezean, ontziaren gainaldean egoitea lehorreratze-lanak gauzatzen direnean, eta agintea hartzea, portu, ubide, itsasadar eta ibaietan sartzerakoan. Kapitainak gaua ontzitik kanpo igarotzeko, arrazoi larria edo ogibidearen ondoriozkoa izan behar du.

8. Derrigorreko porturatzea gertatu denean, hogeita lau ordu igaro baino

Marítima, siendo en España, y al Cónsul español, siendo en el extranjero, antes de las veinticuatro horas, y hacerle declaración del nombre, matrícula y procedencia del buque, de su carga y motivo de arribada; cuya declaración visarán la Autoridad o el Cónsul, si después de examinada la encuentran aceptable, dándole la certificación oportuna para acreditar su arribo y los motivos que lo originaron. A falta de Autoridad Marítima o de Cónsul, la declaración deberá hacerse ante la Autoridad local.

9. Practicar las gestiones necesarias ante la Autoridad competente, para hacer constar en la certificación del Registro Mercantil del buque las obligaciones que contraiga conforme al artículo 583.

10. Poner a buen recaudo y custodia todos los papeles y pertenencias del individuo de la tripulación que falleciere en el buque, formando inventario detallado, con asistencia de los testigos pasajeros o, en su defecto, tripulantes.

11. Ajustar su conducta a las reglas y preceptos contenidos en las instrucciones del naviero, quedando responsable de cuanto hiciere en contrario.

12. Dar cuenta al naviero, desde el puerto donde arribe el buque, del motivo de su llegada, aprovechando la ocasión que le presten los semáforos, teléfonos, correos, etc., según los casos, poner en su noticia la carga que hubiere recibido, con especificación del nombre y domicilio de los cargadores,

lehen itsas-agintariaren aurrean agertzea, porturatze hori Espainian izan bada, edota Espainiako kontsularen aurrean, atzerrian izan bada, eta berari adieraztea ontziaren izena, matrícula zein jatorria, bai eta zama nahiz porturatzearen arrazoia ere. Agintari edo kotsul horrek adierazpena onartuko du, baldin eta berori aztertu ostean egokitzen jotzen badu; kasu horretan, ziurtagiria emango dio kapitainari, porturatzea eta horren arrazoiak egiaztatzeko. Itsas-agintari edo kotsulik ez dagoenean, adierazpena tokiko agintariaren aurrean egingo da.

9. Agintari eskudunaren aurrean gauzatu beharreko kudeaketak gauzatea, ontziaren Merkataritzako Erregistroak luzatutako ziurtagirian 583. artikuluko betebeharrak agerrazteko.

10. Tripulazioko kideren bat hiltzen bada ontzian, ondo zaintzea horren paperak eta ondasunak; horretarako, inbentario xehea egingo du, lekuko izango diren bidaiarien edo, halakorik izan ezean, tripulanteen aurrean.

11. Ontzi-ustiatzailearen jarraibideetan jasotako erregela eta aginduen arabera jardutea; bestela jokatzuz gero, kapitainak izango du egindakoaren gaineko erantzukizuna.

12. Ontzia portuan sartzen denean, ontzi-ustiatzaileari azaltzea sartze horren arrazoia, semaforo, telegrafo, posta eta abarrek eskainitako abaguneaz baliatuz, kasuan-kasuan; jasotako zahren berri ematea, ondokoa zehatzuz: zamatzailen izena eta egoitza, sortutako pleitak, eta ontziko izakinen arabera

fletes que devenguen y cantidades que hubiere tomado a la gruesa; avisarle su salida y cuantas operaciones y datos puedan interesar a aquél.

13. Observar las reglas sobre luces de situación y maniobras para evitar abordajes.

14. Permanecer a bordo, en caso de peligro del buque, hasta perder la última esperanza de salvarlo, y antes de abandonarlo oír a los Oficiales de la tripulación, estando a lo que decida la mayoría; y si tuviere que refugiarse en el bote, procurará ante todo llevar consigo los libros y papeles, y luego los objetos de más valor, debiendo justificar, en caso de pérdida de libros y papeles, que hizo cuanto pudo para salvarlos.

15. En caso de naufragio, presentar protesta en forma, en el primer puerto de arribada, ante la Autoridad competente o Cónsul español, antes de las veinticuatro horas, especificando en ella todos los accidentes del Naufragio, conforme al caso 8 de este artículo.

16. Cumplir las obligaciones que impusieren las Leyes y los Reglamentos de Navegación, Aduanas, Sanidad u otros.

### Artículo 613

El Capitán que navegare a flete común o al tercio, no podrá hacer por su cuenta negocio alguno separado; y si lo hiciere, la utilidad que resulte pertene-

hartutako zenbatekoak; irteeraren berri ematea, baita ontzi-ustiatzailearentzat interesgarriak izan daitezkeen beste eragiketa nahiz datuen berri ere.

13. Kokapen-argiei eta maniobrei buruzko erregelak betetzea, abordatzeak saihesteko.

14. Ontzia arriskuan dagoenean, bertan geratzea, onik ateratzeko azken itxaropena galdu arte, eta, ontzia utzi baino lehen, tripulazioko ofizialek esan beharrekoa entzutea, gehiengoak erabakitzen duena eginda; kapitainak txalupa hartu behar izanez gero, ahaleginak egingo ditu alde aurretik liburu eta paperak ez ezik, objektu balioetsuak ere hartzeko; halakoak galduz gero, kapitainak egiaztatu beharko du ahalak eta leherrak egin zituela horiek guztiak salbatzeko.

15. Ontzizkalpen kasuetan, hogeita lau ordu igaro baino lehen protesta egitea lehenengo sarrera-portuan, beharrezko formalitateekin eta agintari eskudunaren edo Espainiako kontsularen aurrean; protesta horretan, ontzizkalpen-istripuen zehaztapenak eman beharko ditu, artikuluko honen 8. zenbakian ezarritakoaren arabera.

16. Nabigazio, Aduana, Osasun eta abarretako lege eta erregelamenduek ezarri betebeharrak betetzea.

### 613. artikulua

Kapitaina pleit erkidearen edo pleit-herenaren mende ari denean nabigazioan, ezin du negozioerik egin bere kabuz; halako eragiketak eginez gero,

cerá a los demás interesados, y las pérdidas cederán en su perjuicio particular.

#### **Artículo 614**

El Capitán que, habiendo concertado un viaje, dejare de cumplir su empeño sin mediar accidente fortuito o caso de fuerza mayor que se lo impida, indemnizará todos los daños que por esta causa irrogee, sin perjuicio de las sanciones penales a que hubiere lugar.

#### **Artículo 615**

Sin consentimiento del naviero, el Capitán no podrá hacerse sustituir por otra persona; y si lo hiciere, además de quedar responsable de todos los actos del sustituto, y obligado a las indemnizaciones expresadas en el artículo anterior, podrán ser uno y otro destituidos por el naviero.

#### **Artículo 616**

Si se consumieran las provisiones y combustibles del buque antes de llegar al puerto de su destino, el Capitán dispondrá, de acuerdo con los Oficiales del mismo, arribar al más inmediato, para reponerse de uno y otro; pero si hubiera a bordo personas que tuviesen víveres de su cuenta, podrá obligarles a que los entreguen para el consumo común de cuantos se hallen a bordo, abonando su importe en el acto o, a lo más, en el primer puerto donde arribare.

#### **Artículo 617**

El Capitán no podrá tomar dinero a la gruesa sobre el cargamento; y si lo hiciere, será ineficaz el contrato.

irabaziak beste interesdunentzat izango dira, eta galerak, ordea, berarentzat.

#### **614. artikulua**

Bidaia itundu duen kapitainak ez badu betetzen agindua, tartean ezinbeste edo ezusterik gertatu gabe, eragindako kalteen ordaina eman beharko du; horrez gain, kasuan kasuko zigor-zeha penak jarri ahal zaizkio.

#### **615. artikulua**

Kapitainak ontzi-ustiatzailearen baimena behar du ordezkoa izendatzeko, eta baimenik izan ezean, ordezkoak gauzaturiko egintzen gaineko erantzukizuna izateaz gain, aurreko artikuluan aipatu kalte-ordainak ere eman beharko ditu; ontzi-ustiatzaileak bi-biak kendu ahal ditu kargutik.

#### **616. artikulua**

Ontziko hornidura eta erregaia kontsumitu badira helmugako portura iritsi baino lehen, kapitainak, ofizialekin ados jarrita, porturik hurbilenera sartzea aginduko du, horiek guztiak berriz hartzeko; ontziko pertsona batzuek euren bizigaiak badituzte, kapitainak agindu ahal die bizigai horiek emateko, ontzian dauden guztiak jan ditzaten; halakoetan, bizigaien balioa ordainduko die une horretan bertan, edo, gehienez jota, sartzen diren lehenengo portuan.

#### **617. artikulua**

Kapitainak ezin du dirurik hartu ontziko izakinen gain, eta, halakoa eginez gero, kontratua eragingabea izango da.



Tampoco podrá tomarlo para sus propias negociaciones sobre el buque, sino por la parte de que fuere propietario, siempre que anteriormente no hubiera tomado gruesa alguna sobre la totalidad ni exista otro género de empeño u obligación a cargo del buque. Pudiendo tomarlo, deberá expresar necesariamente cuál sea su participación en el buque.

En caso de contravención a este artículo, serán de cargo privativo del Capitán el capital, réditos y costas, y el naviero podrá además despedirlo.

### Artículo 618

El Capitán será responsable civilmente para con el naviero, y éste para con los terceros que hubieren contratado con él:

1. De todos los daños que sobrevinieren al buque y su cargamento por impericia o descuido de su parte. Si hubiere mediado delito o falta, lo será con arreglo al Código Penal.

2. De las sustracciones y latrocinios que se cometieren por la tripulación, salvo su derecho a repetir contra los culpables.

3. De las pérdidas, multas y confiscaciones que se impusieren por contravenir a las Leyes y Reglamentos de Aduanas, Policía, Sanidad y Navegación.

4. De los daños y perjuicios que se causaren por discordias que se susci-

pitainak ontziaren gaineko negoziazioak egin nahi dituzenean bere kabuz, bere jabetza-zatiari dagokion diru-kopurua bakarrik erabil dezake, baldin eta alde zurretik ez badu izakinen arabera beste zenbatekorik jaso, eta ez badago ontziaren gaineko beste bahi edo betebeharririk. Diru-kopuru hori hartu ahal duenean, kapitainak nahitaez adierazi behar du ontzian duen partaidetza.

Artikulu hau bete ezean, kapitainak bere ondarearekin ordaindu beharko ditu kapitala, korritu zein gastuak, eta ontzi-ustiatzaileak kaleratu ahal du kapitain hori.

### 618. artikulua

Kapitainak erantzukizun zibila du ontzi-ustiatzaileari begira, eta horrek, berriz, kapitainarekin kontratuak egin dituzten hirugarrenei begira, ondokoaren gain:

1. Kapitainaren trebetasun edo ardurarik ezaren ondorioz ontzi eta zama izandako kalteen gain. Delitu edo faltan kasuan, kapitainaren erantzukizuna Zigor Kodearen arabera zehaztuko da.

2. Tripulazioak egindako oste eta ohoinkerien gain; halakoetan, kapitainak errepeticio-eskubidea izango du errudunen aurka.

3. Aduana, Polizia, Osasun eta Nabigazioari buruzko lege eta erregelamenduak hausteagatik ezarritako galera, isun eta konfiskazioen gain.

4. Ontziko liskarrekin eragindako kalte-galeren gain, edota ontzia zerbitzatu

ten en el buque o por faltas cometidas por la tripulación en el servicio y defensa del mismo, si no probare que usó oportunamente de toda la extensión de su autoridad para prevenir las o evitarlas.

5. De los que sobrevengan por el mal uso de las facultades y falta en el cumplimiento de las obligaciones que le corresponden conforme a los artículos 610 y 612.

6. De los que se originen por haber tomado derrota contraria a la que debía, o haber variado de rumbo sin justa causa, a juicio de la Junta de Oficiales del buque, con la asistencia de los cargadores o sobrecargos que se hallaren a bordo.

No le eximirá de esta responsabilidad excepción alguna.

7. De los que resulten por entrar voluntariamente en puerto distinto del de su destino, fuera de los casos o sin las formalidades de que habla el artículo 612.

8. De los que resulten por inobservancia de las prescripciones del Reglamento de situaciones de luces y maniobras para evitar abordajes.

### **Artículo 619**

El Capitán responderá del cargamento desde que se hiciera entrega de él en el muelle o al costado a flote en el puerto en donde se cargue, hasta que lo entregue en la orilla o en el muelle del puerto de la descarga, a no haberse pactado expresamente otra cosa.

nahiz defendatzean, tripulazioaren hutssegiteek eragindakoen gain; erantzukizun horretatik aske geratzeko, kapitainak frogatu beharko du bere aginte osoa erabili zuela kalteok saihesteko.

5. Ahalmenak behar bezala ez erabiltezearen ondoriozko kalte-galeren gain, baita 610 eta 612. artikuluetan zehaztu betebeharrak ez betetzearen ondoriozkoen gain ere.

6. Hartu beharreko norabidearen kontrakoa hartzeagatik edo ofizialen batzaren iritzirako arrazoi zuzenik izan gabe norabidea aldatzeagatik eragindako kalteen gain; batza horretara ontzian dauden zamatzaille eta zamazainak joango dira.

Ez dago salbuespenik, kapitaina erantzukizun horretatik aske uzteko.

7. 612. artikuluan ezarri kasuez landa edo aipatu formalitateak bete gabe, helmugako portua ez den beste batean nahita sartzearen ondorioz eragindako kalteen gain.

8. Abordatzeak oztopatzeko, koka-pen-argiei eta maniobrei buruzko erregelek ezarritakoa ez betetzearen ondorioz eragindako kalteen gain.

### **619. artikulua**

Kontrako ituna esanbidez egin ezean, kapitainak zamaren gaineko erantzukizuna izango du, zama hori kaian ematen denetik edo zamalanak gauzatzeko portuan ur gainean ontziaren aldamean jartzen denetik, deskarga-portuko kaian edo itsasertzean ematen den arte.

**Artículo 620**

No será responsable el Capitán de los daños que sobrevinieren al buque o al cargamento por fuerza mayor; pero lo será siempre, sin que valga pacto en contrario, de los que se ocasionen por sus propias faltas.

Tampoco será personalmente responsable el Capitán de las obligaciones que hubiere contraído para atender a la reparación, habilitación y avituallamiento del buque, las cuales recaerán sobre el naviero, a no ser que aquél hubiere comprometido terminantemente su propia responsabilidad o suscrito letra o pagaré a su nombre.

**Artículo 621**

El Capitán que tome dinero sobre el casco, máquina, aparejo o pertrecho del buque, o empeñe o venda mercaderías o provisiones fuera de los casos y sin las formalidades prevenidas en este Código, responderá del capital, rédito y costas, e indemnizará los perjuicios que ocasione.

El que cometa fraude en sus cuentas, reembolsará la cantidad defraudada y quedará sujeto a lo que dispone el Código Penal.

**Artículo 622**

Si estando en viaje llegare a noticia del Capitán que habían aparecido corsarios o buques de guerra contra su pabellón, estará obligado a arribar al puerto neutral más inmediato, dar cuenta a su naviero o cargadores y esperar la ocasión de navegar en conser-

**620. artikulua**

Kapitainak ez du erantzukizunik izango ontziari edo zamari ezinbestearen ondorioz eragindako kalteengatik, baina bai beraren hutsegiteek eragindakoengatik, eta ezin izango da itunik egin horren aurka.

Kapitainak zuzeneko erantzukizuna du hirugarrenei begira, ontzia konpondu, prestatu eta hornitzeko lanetan hartutako betebeharren ondorioz, baldin eta kapitain horrek bere gain hartu badu esanbidez horren gaineko erantzukizuna, edota letra edo ordaindukua harpidetu badu bere izenean.

**621. artikulua**

Kapitainak erantzukizuna izango du eragindako kalteen gain, baldin eta dirua maileguan hartu badu, ontziaren kasko, makina, aparailu edo hornigaiak berme gisa jarriz, edota merkatugai zein hornigaiak bahitu edo saldu badi-tu, kode honek ezarritako kasu eta formalitateetatik kanpo.

Kontuak egitean iruzurrez diharduenak, iruzurrezko zenbateko horiek ordaindu ez ezik, Zigor Kodeak ezarritakoa ere bete beharko du.

**622. artikulua**

Bidaia bitartean kapitainak badaki bere banderaren kontrako kortsario edo gerra-ontziak agertu direla, portu neutral hurbilenean sartu beharko da, ontzi-ustiatzaile edo zamatzaiilei horren berri emango die, eta itxaron beharko du, beste ontzi batzuekin batera elkar gor-

va, o a que pase el peligro, o a recibir órdenes terminantes del naviero o de los cargadores.

### **Artículo 623**

Si se viere atacado por algún corsario, y después de haber procurado evitar el encuentro y de haber resistido la entrega de los efectos del buque o su cargamento, le fueren tomados violentamente, o se viere en la necesidad de entregarlos, formalizará de ello asiento en su libro de cargamento, y justificará el hecho ante la Autoridad competente, en el primer puerto donde arribe.

Justificada la fuerza mayor, quedará exento de responsabilidad.

### **Artículo 624**

El Capitán que hubiese corrido temporal o considerase haber sufrido la carga daño o avería, hará sobre ello protesta ante la Autoridad competente en el primer puerto donde arribe, dentro de las veinticuatro horas siguientes a su llegada, y la ratificará dentro del mismo término luego que llegue al punto de su destino, procediendo en seguida a la justificación de los hechos, sin poder abrir las escotillas hasta haberla verificado.

Del mismo modo habrá de proceder el Capitán, si, habiendo naufragado su buque, se salvase sólo o con parte de su tripulación, en cuyo caso se presentará a la Autoridad más inmediata, haciendo relación jurada de los hechos.

deta nabigatzeko abagunea heldu arte, arriskua igaro arte edota ontzi-ustiatzaille edo zamatzaileen agindu eztabaidaezinak jaso arte.

### **623. artikulua**

Kapitainak kortsarioaren erasoari eutsi eta ahaleginak egin dituenean borroaldia saihestu eta ontziko efektuak edo zama ez emateko, baina efektuok bortxakeriaz kendu zaizkionean edota derrigorrean eman behar izan dituenean, zamen liburuan idazkuna egin ez ezik, egitatea agintari eskudunaren aurrean ere egiaztatuko du, lehenengo sarrera-portuan.

Ezinbestea gertatu dela frogatuz gero, kapitainak ez du erantzukizunik izango.

### **624. artikulua**

Ekaitza gertatu denean edo kapitainaren iritzirako zamak kalte edo matxurak izan dituenean, horren gaineko protesta egingo du lehenengo sarrera-portuko agintari eskudunaren aurrean, bertara heldu eta hogeita lau ordu igaro baino lehen; epe-muga berberaren barruan helmugako portuan protesta hori berretsiko du, kasuan kasuko egitateak frogatuz. Kapitainak ezin izango ditu eskotilak ireki, hori guztia egiaztatuta arte.

Kapitainak modu berean jardun behar du, ontzizkalpenean bera bakkari edo tripulazioko kide batzuekin batera salbatu denean; halakoetan, hurbilen dagoen agintariaren aurrean agertuko da, egitatei buruz zinpeko adierazpena egiteko.

La Autoridad, o el Cónsul en el extranjero, comprobará los hechos referidos, recibiendo declaración jurada a los individuos de la tripulación y pasajeros que se hubieren salvado; y tomando las demás disposiciones que conduzcan para averiguar el caso, pondrá testimonio de lo que resulte del expediente en el libro de navegación y en el del Piloto, y entregará al Capitán el expediente original sellado y foliado, con nota de los folios, que deberá rubricar, para que lo presente al Juez o Tribunal del puerto de su destino.

La declaración del Capitán hará fe si estuviere conforme con las de la tripulación y pasajeros; si discordare, se estará a lo que resulte de éstas, salvo siempre la prueba en contrario.

### Artículo 625

El Capitán, bajo su responsabilidad personal, así que llegue al puerto de su destino, obtenga el permiso necesario de las Oficinas de Sanidad y Aduanas, y cumpla las demás formalidades que los Reglamentos de la Administración exijan, hará entrega del cargamento, sin desfalco, a los consignatarios, y, en su caso, del buque, aparejos y fletes al naviero.

Si por ausencia del consignatario, o por no presentarse portador legítimo de los conocimientos, ignorase el Capitán a quién debiera hacer legítimamente la entrega del cargamento, lo pondrá a disposición del Juez, o Tribunal o Autoridad a quien corresponda, a fin de

Agintariak, edo kontsulak atzerian, egitateak aztertu eta salbatu diren tripulazio-kideen nahiz bidaiarien zinpeko adierazpenak jasoko ditu; halaber, kasua konpontzeko neurriak hartuko ditu, eta espedienteak ondorioztatzen duenaren lekukotza jasoko du, nabigazio-liburuan eta pilotuaren liburuan; horrez gain, jatorrizko espediente zigiluduna eta folioduna emango dizkio kapitainari, eta folio-kopurua zehazten duen ohar sinatua jarri beharko du bertan, kapitainak helmugako portuko epaile edo auzitegiari eman diezaion espediente hori.

Kapitainaren adierazpena bat datorrenean tripulazioak eta bidaiariek egindakoekin, adierazpen horrek fede emango du; adierazpenok ez badatoz bat, azken horiek izango dira kontuan, kontrakoa frogatzen ez den bitartean.

### 625. artikulua

Helmugako portura iritsi, Osasun eta Aduanetako Bulegoen baimena lortu eta Administrazioaren erregelamenduek ezarritako beste formalitateak bete ostean, kapitainak bere erantzukizun pertsonalaren mende emango die zama kontsignatarioei, desbideratzerik gabe; hala denean, ontzia, aparailu eta pleitak emango dizkio ontzi-ustiaileari.

Kontsignatariora ez badago bertan, edo ontzirapen-agiriaren araberako eramailerik agertzen ez bada eta kapitainak ez badaki zuzenbidearen arabera zama nori eman behar dion, epaile, auzitegi edo agintari eskudunaren esku jarriko du berori, horrek erabaki de-

que resuelva lo conveniente a su depósito, conservación y custodia.

zan zama hori nola gordailutu, artatu eta zaindu.

### SECCIÓN III

#### *De los oficiales y tripulación del buque*

### III. ATALA

#### *Ontziko ofizialak eta tripulazioa*

#### **Artículo 626**

Para ser Piloto será necesario:

1. Reunir las condiciones que exigen las Leyes o Reglamentos de Marina o Navegación.

2. No estar inhabilitado con arreglo a ellos para el desempeño de su cargo.

#### **Artículo 627**

El Piloto, como segundo jefe del buque, y mientras el naviero no acuerde otra cosa, sustituirá al Capitán en los casos de ausencia, enfermedad o muerte, y entonces asumirá todas sus atribuciones, obligaciones y responsabilidades.

#### **Artículo 628**

El Piloto deberá ir provisto de las cartas de los mares en que va a navegar, de las tablas e instrumentos de reflexión que están en uso y son necesarios para el desempeño de su cargo, siendo responsable de los accidentes a que diere lugar por su omisión en esta parte.

#### **Artículo 629**

El Piloto llevará particularmente y por sí un libro foliado y sellado en to-

#### **626. artikulua**

Pilotu izateko:

1. Marina edo nabigazioari buruzko lege eta erregelamenduek ezarritako baldintzak bete behar dira.

2. Ezin da xedapen horien arabera-ko desgaiuntzarik izan, kargua betetzeko.

#### **627. artikulua**

Ontzi-ustiatzaileak besterik erabakitzen ez badu, pilotuak kapitaina ordeztuko du, ontziko bigarren buruzagi moduan absentzia- gaixotasun- edo heriotza-kasuetan, horren ordainketa, betebeharrak eta erantzukizun guztiak bere gain hartuz.

#### **628. artikulua**

Pilotuak nabigazioa zein itsasotan egin eta itsaso horretako mapak eraman behar ditu, baita bere kargua betetzeko beharrezko diren taula eta hausnarketa-tresna erabilgarriak ere; bestela, pilotuak erantzukizuna izango du gerta daitezkeen istripuen gain.

#### **629. artikulua**

Pilotuak konpasontziaren koaderno izeneko liburu folioduna eraman behar

das sus hojas, denominado Cuaderno de Bitácora, con nota al principio, expresiva del número de las que contengan, firmado por la Autoridad competente, y en él registrará diariamente las distancias, los rumbos navegados, la variación de la aguja, el abatimiento, la dirección y fuerza del viento, el estado de la atmósfera y del mar, el aparejo que se lleve largo, la latitud y longitud observada, el número de hornos encendidos, la presión del vapor, el número de revoluciones y, bajo el nombre de acaecimientos, las maniobras que se ejecuten, los encuentros con otros buques, y todos los particulares y accidentes que ocurran durante la navegación.

### Artículo 630

Para variar el rumbo y tomar el más conveniente al buen viaje del buque, se pondrá de acuerdo el Piloto con el Capitán. Si éste se opusiere, el Piloto le expondrá las observaciones convenientes en presencia de los demás Oficiales de mar. Si todavía insistiere el Capitán en su resolución negativa, el Piloto hará la oportuna protesta, firmada por él y por otro de los Oficiales en el libro de navegación, y obedecerá al Capitán, quien será el único responsable de las consecuencias de su disposición.

### Artículo 631

El Piloto responderá de todos los perjuicios que se causaren al buque y al cargamento por su descuido e impericia, sin perjuicio de la responsabilidad criminal a que hubiere lugar, si hubiere mediado delito o falta.

du bere kabuz; liburu horrek zigilua izango du orri guztietan, eta, hasieran, ohar bat jarri beharko da, orri-kopurua zehaztuz. Agintari eskudunak liburua sinatuko du eta bertan egunero erregistratu du ondokoa: ibilitako luzerak eta norabideak, konpasaren aldea, eraitsiera, haizearen noranzkoa eta indarra, atmosfera eta itsasoaren egoera, aparailu luzea, antzemandako latitude eta luzera, piztutako labe-kopuruak, bapore-presioa eta erreboluzio-kopurua. Horrez gain, hurrengoa ere jaso behar da, gertakizun izenarekin: eginiko maniobrak, beste ontziekin izandako topaketak, edota, nabigazio bitartean gertatutako jazokizun eta istripu oro.

### 630. artikulua

Norabidea aldatu eta bidaiari hobeto egokitzen zaiona hartzeko, pilotuak ados jarri behar da kapitainarekin. Kapitainak ezezkua emanaz gero, pilotuak kasuan kasuko ohararazpenak egingo ditu, gainerako itsas ofizialen aurrean. Hala ere, kapitainak ezezkoari ekiten badio, pilotuak protesta egokia egingo du nabigazio-liburuan, berak eta beste ofizial batek sinatuta; gero kapitainaren esana bete beharko du, eta horrek bakarrik izango du hartutako erabakia- ren gaineko erantzukizuna.

### 631. artikulua

Pilotuak du bere trebetasun edo ardurarik ezaren ondorioz ontzi eta zamari egindako kalteen gaineko erantzukizuna; halaber, pilotuak erantzukizun kriminala izango du, baldin eta delitu edo falta bat egin badu.

## Artículo 632

Serán obligaciones del Contra-maestre:

1. Vigilar la conservación del casco y aparejo del buque y encargarse de la de los enseres y pertrechos que forman su pliego de cargos, proponiendo al Capitán las reparaciones necesarias y el reemplazo de los efectos y pertrechos que se inutilicen y excluyan.

2. Cuidar del buen orden del cargamento, manteniendo el buque expedito para la maniobra.

3. Conservar el orden, la disciplina y el buen servicio de la tripulación, pidiendo al Capitán las órdenes e instrucciones convenientes, y dándole pronto aviso de cualquier ocurrencia en que fuere necesaria la intervención de su autoridad.

4. Designar a cada marinero el trabajo que deba hacer a bordo, conforme a las instrucciones recibidas, y velar sobre su ejecución con puntualidad y exactitud.

5. Encargarse por inventario del aparejo y todos los pertrechos del buque, si se procediere a desarmarlo, a no ser que el naviero hubiere dispuesto otra cosa.

Respecto de los Maquinistas, regirán las reglas siguientes:

1. Para poder ser embarcado como Maquinista naval formando parte de la dotación de un buque mercante, será necesario reunir las condiciones que las Leyes y Reglamentos exijan, y no

## 632. artikulua

Kontramaisuaren betebeharrak dira:

1. Ontziaren kasko eta aparailuaren artapena zaintzea, eta kargu-plegua osatzen duten tresna eta hornigaienez arduratzea; horretarako, kapitainari proposatuko dio beharrezko konponketak egitea eta erabilezin bihurtzeagatik baztertu diren efektu eta hornigaiak ordeztzea.

2. Zamaren egoera ona zaintzea, ontzia maniobrak egiteko prest jarrita.

3. Tripulazioaren ordena, diziplina eta zerbitzu onari eustea, kapitainari agindu eta jarraibide egokiak eskatuz; zerbait gertatzeagatik kapitainaren esku-hartzea behar izango balitz, horren berri ematea ahalik arinen.

4. Marinel bakoitzari zehaztea ontzian zer egin behar duen, jasotako jarraibideen arabera, eta zeregin horiek garaiz eta zehaztasunez betetzen direla zaintzea.

5. Ontzia ataldu bada, ontziaren aparailu eta hornigaien gaineko ardurua hartzea inbentario baten arabera, salbu eta ontzi-ustiatzaileak beste zerbait agindu badu.

Makinistei dagokienez, erregela hauek aplikatuko dira:

1. Norbaitek makinista moduan ontziratua nahi badu ontziko dotazioaren barruan, pertsona horrek bete behar ditu lege eta erregelamenduek ezarritako baldintzak, eta ezin du xedapen



estar inhabilitado con arreglo a ellas para el desempeño de su cargo. Los maquinistas serán considerados como Oficiales de la nave; pero no ejercerán mando ni intervención sino en lo que se refiera al aparato motor.

2. Cuando existan dos o más Maquinistas embarcados en un buque, hará uno de ellos de Jefe, y estarán a sus órdenes los demás Maquinistas y todo el personal de las máquinas; tendrá además a su cargo el aparato motor, las piezas de respeto, instrumentos y herramientas que al mismo concierne, el combustible, las materias lubricadoras y cuanto, en fin, constituye a bordo el cargo de Maquinista.

3. Mantendrá las máquinas y calderas en buen estado de conservación y limpieza, y dispondrá lo conveniente a fin de que estén siempre dispuestas para funcionar con regularidad, siendo responsable de los accidentes o averías que por su descuido e impericia se causen al aparato motor, al buque y al cargamento, sin perjuicio de la responsabilidad criminal a que hubiere lugar si resultare probado haber mediado delito o falta.

4. No emprenderá ninguna modificación en el aparato motor, ni procederá a remediar las averías que hubiese notado en el mismo, ni alterará el régimen normal de su marcha, sin la autorización previa del Capitán, al cual, si se opusiera a que se verificasen, le expondrá las observaciones convenientes en presencia de los demás Maquinistas u Oficiales; y si, a pesar de esto, el Capitán insistiese en su negativa, el

horien araberako desgaiuntzarik izan, kargua betetzeko. Makinistak ontziko ofizialtzat hartuko dira, baina motorrari lotutako gaietan bakarrik izango dute aginte eta esku-hartzea.

2. Ontzian bi makinista baino gehiago badaude, horietatik bat besteen buru izango da; hortaz, gainerako makinista eta makinetako langileak horren agindupean egongo dira. Horrez gain, makinistaren ardurapean geratuko dira hurrengoak: motorra, errespetu-piezak eta ontziko tresnak, erregaia, lubrika-garriak edota, azken finean, makinista karguari lotutako guztia.

3. Makinistak egoera onean artatu behar ditu makina eta galdarak; hortaz, makinistek beharrezko diren erabakiak har ditzakete, edozein unetan makina eta galdarak behar bezala ibiltzeko prest egon daitezten. Makinistak erantzukizuna izango du trebetasun edo ardurarik ezaren ondorioz motorrari, ontziari eta zamari egindako kalteen gain; halaber, erantzukizun kriminala izango du, baldin eta delitu edo falta bat egin badu.

4. Makinistek baimena eskatu behar diote kapitainari, ontziaren motorrean aldatetako egin, motorraren matxurak konpondu eta horren ibilera arrunta aldatzeko. Kapitainak ezezkoa emanez gero, pilotuak kasuan kasuko ohararazpenak egingo ditu, gainerako makinista eta ofizialen aurrean. Hala ere, kapitainak ezezkoari ekiten badio, makinista-buruak protesta egokia egingo du makina-koadernoan; gero kapitainaren

Maquinista Jefe hará la oportuna protesta, consignándola en el cuaderno de máquinas y obedecerá al Capitán, que será el único responsable de las consecuencias de su disposición.

5. Dará cuenta al Capitán de cualquier avería que ocurra en el aparato motor, y le avisará cuando haya que parar las máquinas por algún tiempo, u ocurra algún accidente en su departamento del que deba tener noticia inmediata el Capitán, enterándole además con frecuencia acerca del consumo de combustible y materias lubricadoras.

6. Llevará un libro o registro titulado Cuaderno de máquinas, en el cual se anotarán todos los datos referentes al trabajo de las máquinas; como son, por ejemplo, el número de hornos encendidos, las presiones del vapor en las calderas y cilindros, el vacío en el condensador, las temperaturas, el grado de saturación del agua en las calderas, el consumo del combustible y de materias lubricadoras, y, bajo el epígrafe de Ocurrencias notables, las averías y descomposiciones que ocurran en máquinas y calderas, las causas que las produjeron y los medios empleados para repararlas; también se indicarán, tomando los datos del Cuaderno de Bitácora, la fuerza y dirección del viento, el aparejo largo y el andar del buque.

### Artículo 633

El Contra maestre tomará el mando del buque en caso de imposibilidad o inhabilitación del Capitán y Piloto, asumiendo entonces sus atribuciones y responsabilidad.

esana bete beharko du, eta horrek bakarrik izango du hartutako erabakiaren gaineko erantzukizuna.

5. Makinistek motorrak izandako edozein matxuraren berri eman behar diote kapitainari, eta makinak gelditu behar direnean aldi baterako, edo euren sailean kapitainak jakin beharreko zerbait gertatu denean, horren berri ere emango diote; halaber, maiz-sarri azalduko diote erregai eta lubrikagarrien kontsumoa.

6. Makinistek makinaren koaderno deitutako liburu edo erregistroa eraman behar dute, makinaren egindako lan guztiak bertan idazteko, hala nola: piztutako labe-kopurua, baporeak galdara eta zilindroetan eragindako presioa, kondetsadorearen hutsartea, tenperaturak, galdaretako saturazio-maila, erregai eta lubrikagarrien kontsumoa. Horrez landa, kontuzko gertakizun deitutako epigrafean hauxe jasoko dute: makina eta galdaren matxura nahiz nariadurak, horiek gertatzeko arrazoiak eta konpontzeko bideak; halaber, hai-zearen indarra eta noranzkoa adieraziko dira, bai eta aparailu luzea eta ontziaren ibilera ere, konpasontziaren koadernoko datuak kontuan hartuta.

### 633. artikulua

Kontramaisuak bere gain hartuko du ontziaren agintea, kapitain eta pilotuak aginte hori egikaritu ezin dutenean edota horretarako desgaiak direnean, euren eskurantz eta erantzukizunak hartuz.

**Artículo 634**

El Capitán podrá componer la tripulación de su buque con el número de hombres que considere conveniente; y, a falta de marineros españoles, podrá embarcar extranjeros avecindados en el país, sin que su número pueda exceder de la quinta parte de la tripulación. Cuando en puertos extranjeros no encuentre el Capitán suficiente número de tripulantes nacionales, podrá completar la tripulación con extranjeros, con anuencia del Cónsul o Autoridades de Marina.

Las contratas que el Capitán celebre con los individuos de la tripulación y demás que componen la dotación del buque, y a que se hace referencia en el artículo 612, deberán constar por escrito en el libro de contabilidad, sin intervención del Notario o Escribano, firmadas por los otorgantes y visadas por la Autoridad de Marina si se extienden en los dominios españoles, o por los Cónsules o Agentes consulares de España si se verifica en el extranjero, enumerando en ellas todas las obligaciones que cada uno contraiga y todos los derechos que adquiera; cuidando aquellas Autoridades de que estas obligaciones y derechos se consignen de un modo claro y terminante que no dé lugar a dudas ni reclamaciones.

El Capitán cuidará de leerles los artículos de este Código que les conciernen, haciendo expresión de la lectura en el mismo documento.

Teniendo el libro los requisitos prevenidos en el artículo 612 y no apareciendo indicio de alteración en sus

**634. artikulua**

Kapitainak bidezko deritzon kidekopurua sar dezake bere tripulazioan, eta marinel espainiar nahikorik izan ezean, Espainiako auzotasuna duten atzerritarrek ontziratatu ahal ditu, baina horien zenbatekoa ezin izan daiteke tripulazioaren bostenetik gorakoa. Kapitainak ez badu aurkitu nazioko tripulazio nahikorik atzerriko portuetan, atzerritarrekin osa dezake bere tripulazioa, baldin eta kontsularen edo marinarako agintariaren adostasuna badu.

Kapitainak tripulazioko kideekin eta ontziko dotazioa osatzen duten beste pertsonekin egindako kontratak, 612. artikulua aipatzen dituenak, idatziz jaso behar dira kontabilitate-liburuan, notario edo eskribauaren esku-hartzerik gabe; egileleek kontrata horiek sinatu behar dituzte eta marinarako agintariak onartuko ditu, Espainiako lurretan egin badira, edota kontsul nahiz agente kontsularrek, atzerrian egin badira. Kontrata horietan alderdi bakoitzaren betebeharrak eta eskubideak zerrendatuko dira, eta agintari haiek zaindu behar dute betebeharrak nahiz eskubide horiek modu argi eta eztabaiaezinezin agerrarazten direla, zalantza edo erreklamaziorik egon ez dadin.

Kode honetan eurei buruz jasotako artikulua irakurriko dizkie kapitainak, eta agirian adieraziko da irakurketa hori egin dela.

Liburuak 612. artikuluko betekizunak baditu eta partidak aldatzearen inguruko susmorik ez badago, liburu

partidas, hará fe en las cuestiones que ocurran entre el Capitán y la tripulación sobre las contratas extendidas en él y las cantidades entregadas a cuenta de las mismas.

Cada individuo de la tripulación podrá exigir al Capitán una copia, firmada por éste, de la contrata y de la liquidación de sus haberes, tales como resulten del libro.

### Artículo 635

El hombre de mar contratado para servir en un buque no podrá rescindir su empeño ni dejar de cumplirlo, sino por impedimento legítimo que le hubiere sobrevenido.

Tampoco podrá pasar del servicio de un buque al de otro sin obtener permiso escrito del Capitán de aquél en que estuviere.

Si, no habiendo obtenido esta licencia, el hombre de mar contratado en un buque se contratase en otro, será nulo el segundo contrato, y el Capitán podrá elegir entre obligarle a cumplir el servicio a que primeramente se hubiera obligado, o buscar a expensas de aquél quien le sustituya.

Además perderá los salarios que hubiere devengado en su primer empeño, a beneficio del buque en que estaba contratado.

El Capitán que, sabiendo que el hombre de mar está al servicio de otro buque, le hubiere nuevamente contratado sin exigirle el permiso de que tratan los párrafos anteriores, respon-

horrek fede emango du bertan jasotako kontratuei eta horien kontura emandako zenbatekoei buruz, kapitainaren eta tripulazioaren artean sortutako arazoetan.

Tripulazioko kide bakoitzak kontrataren kopia eska diezaioke kapitainari, baita hartzekoen likidazioarena ere, liburuak ondorioztatutakoaren arabera; kapitainak sinatu behar ditu kopia horiek.

### 635. artikulua

Ontzian zerbitzatzeko kontratatu den itsasgizonak gertatze bidezko eta zuzenbidearen arabera eragozpenaren ondorioz bakarrik baztertu ahal du bete beharreko agindua.

Itsasgizona zein ontzitan izan eta ontzi horretako kapitainak idatziz emandako baimena beharko du, zerbitzua utzi eta beste ontzi batera joateko.

Halako baimenik izan gabe, ontzi batean kontraturiko itsasgizona beste batean kontratatzen bada, bigarren kontratua deuseza izango da, eta kapitainak aukera dezake itsasgizona lehenengo zerbitzua betetzera behartzea, edo ordezkoa aurkitzea haren kontura.

Gainera, itsasgizon horrek lehenengo zerbitzuaren alokairuak galduko ditu, zein ontzitan kontratatuta izan eta ontzi horren mesederako.

Itsasgizona beste ontzi baten zerbitzupean dagoela jakinda kapitainak kontratua egiten badio aurreko lerro-kadek aipatu baimenik eskatu gabe, artikulua honetako hirugarren lerro-kadak

derá subsidiariamente al del buque a que primero pertenecía el hombre de mar, por la parte que éste no pudiese satisfacer, de la indemnización de que trata el párrafo tercero de este artículo.

### Artículo 636

No constando el tiempo determinado por el cual se ajustó un hombre de mar, no podrá ser despedido hasta la terminación del viaje de ida y vuelta al puerto de su matrícula.

### Artículo 637

El Capitán tampoco podrá despedir al hombre de mar durante el tiempo de su contrata, sino por justa causa, reputándose tal cualquiera de las siguientes:

1. Perpetración de delito que perturbe el orden en el buque.
2. Reincidencia en falta de subordinación, disciplina o cumplimiento del servicio.
3. Ineptitud y negligencia reiteradas en el cumplimiento del servicio que deba prestar.
4. Embriaguez habitual.
5. Cualquier suceso que incapacite al hombre de mar para ejecutar el trabajo de que estuviese encargado, salvo lo dispuesto en el artículo 644.
6. La deserción.

Podrá, no obstante, el Capitán, antes de emprender el viaje, y sin expresa razón alguna, rehusar que vaya a bor-

aipatu kalte-ordaina ordaindu beharko zaio lehenengo ontziko kapitainari, eta ordainketa horri dagokionez, bigarren kapitain horrek erantzukizun subsidiarioa izango du, itsasgizonak ordaindu ezin duen zatian.

### 636. artikulua

Ezin bada jakin itsasgizonari eginko kontratuaren epe zehatza, ezin izango da berori kaleratu, matrikula-porturako joan-etorria amaitu arte.

### 637. artikulua

Kontratak dirauen bitartean, kapitainak arrazoi zuzenaren ondorioz bakarrik kaleratu ahal du itsasgizona, eta halakoak dira:

1. Ontziko ordena oztopatzen duen delitua burutzea.
2. Baten baino gehiagotan erakustea subordinazio- nahiz diziiplina-eza, edota zerbitzua ez betetzea.
3. Eskaini beharreko zerbitzua betetzean, trakets eta arduragabekeriaz jardutea.
4. Ohiko mozkorkeria izatea.
En el primer caso, serán los gastos de cuenta del naviero, y en el segundo, correrán a cargo de los dueños de las mercaderías en cuyo beneficio se hizo la operación.

Si la descarga se verificara por ambas causas, los gastos se distribuirán proporcionalmente entre el valor del buque y el del cargamento.

**Artículo 823**

La custodia y conservación del cargamento desembarcado estará a cargo

**821. artikulua**

Derrigorreko porturatzearen gastuak ontzi-ustiatzailearen eta pleit-emailearen kontura geratzen dira, baina horiek ez dute erantzukizunik zamatzaileek porturatzearen ondorioz izan ditzaketen galeren gain, porturatze hori legebidezkoa izan bada.

Gainerako kasuetan, ontzi-ustiatzaileak eta kapitainak erantzukizun mankomunatuak izango dute.

**822. artikulua**

Zama deskargatu behar bada ontzia konpondu behar delako edo matxura-arriskua dagoelako, kapitainak lehorreratzeko baimena eskatu behar dio epaile edo auzitegi eskudunari; interesduna edo zamaren ordezkaria, halakoa izanez gero, lehorreratze horren jakinaren gain egon behar dira.

Atzerriko portuan, Espainiako kontsulak eman beharko du baimen hori, halakoa izanez gero.

Lehenengo kasuan, ontzi-ustiatzaileak ordainduko ditu gastuak, eta bigarrean, eragiketarik zein merkatugairen mesederako izan eta horien jabeak.

Deskarga bi arrazioen ondorioz egin bada, gastuak lainean banatuko dira ontziaren eta zamaren artean.

**823. artikulua**

Kapitainak zaindu eta artatu beharko du lehorreratutako zama, eta horren

del Capitán, que responderá de él a no mediar fuerza mayor.

### **Artículo 824**

Si apareciere averiado todo el cargamento o parte de él, o hubiere peligro inminente de que se averiase, podrá el Capitán pedir al Juez o Tribunal competente, o al Cónsul, en su caso, la venta de todo o parte de aquél, y el que de esto deba conocer, autorizarla, previo reconocimiento y declaración de Peritos, anuncios y demás formalidades del caso, y anotación en el libro, conforme se previene en el artículo 642.

El Capitán justificará en su caso la legalidad de su proceder, so pena de responder al cargador del precio que habrían alcanzado las mercaderías llegando en buen estado al puerto de su destino.

### **Artículo 825**

El Capitán responderá de los perjuicios que cause su dilación, si, cesando el motivo que dio lugar a la arribada forzosa, no continuase el viaje.

Si el motivo de la arribada hubiere sido el temor de enemigos, corsarios o piratas, precederán a la salida, deliberación y acuerdo en junta de Oficiales del buque e interesados en la carga que se hallaren presentes, en conformidad con lo dispuesto en el artículo 819.

gaineko erantzukizuna izango du, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

### **824. artikulua**

Zama osoaren edo zati baten matxura gertatu bada, edo hori gertatzeko hur-hurreko arriskua badago, kapitainak epaile edo auzitegi eskudunari edo, hala denean, kontsulari eskatuko dio zama osoa edo zati bat saltzeko; horren gaineko eskumena duenak salmenta egiteko baimena eman behar du, behin adituek arazoa aztertu eta adierazpen egokia egin eta gero, kasuan kasuko iragarkiak eta formalitateak bete osatean, eta liburuan 642. artikulua agindutako idatzoharra egindakoan.

Hala denean, kapitainak egiaztatu behar du legearen arabera jardun duela; bestela, zamatazileari begira erantzukizuna izango du, helmugako portura egoera onean heldu balira merkatugaiek izango zuketuen prezioaren gain.

### **825. artikulua**

Kapitainak atzeratzearen ondoriozko kalteen gaineko erantzukizuna izango du, baldin eta derrigorreko porturatzea ekarri duen arrazoa amaitutakoan, ez badio ekiten bidaiari.

Derrigorreko porturatzearen arrazoa izan bada etsai, kortsario edo piraten beldurra, ontzia portutik irten baino lehen batza egin behar da, ofizialek eta zaman interesa dutenek gaia eztabaidatu eta erabakia har dezaten, 819. artikuluan xedatutakoaren arabera.



## SECCIÓN III

*De los abordajes***Artículo 826**

Si un buque abordase a otro, por culpa, negligencia o impericia del Capitán, Piloto u otro cualquiera individuo de la dotación, el naviero del buque abordador indemnizará los daños y perjuicios ocurridos, previa tasación pericial.

**Artículo 827**

Si el abordaje fuese imputable a ambos buques, cada uno de ellos soportará su propio daño y ambos responderán solidariamente de los daños y perjuicios causados en sus cargos.

**Artículo 828**

La disposición del artículo anterior es aplicable al caso en que no pueda determinarse cuál de los dos buques ha sido causante del abordaje.

**Artículo 829**

En los casos expresados, quedan a salvo la acción civil del naviero contra el causante del daño, y las responsabilidades criminales a que hubiere lugar.

**Artículo 830**

Si un buque abordare a otro por causa fortuita o de fuerza mayor, cada nave y su carga soportará sus propios daños.

**Artículo 831**

Si un buque abordare a otro, obligado por un tercero, indemnizará los da-

## III. ATALA

*Abordatzeak***826. artikulua**

Kapitainaren, pilotuaren edo dotazioko beste kide baten erru, arduragabekeria edo trebetasunik ezaren ondorioz ontzi batek beste bat abordatzen badu, ontzi abordatzailearen ustiatzaileak eman beharko du kalte-galeren ordaina, adituek horien tasazioa egin eta gero.

**827. artikulua**

Abordatzea bi ontzietan egotzi ahal zaienean, ontzi bakoitzak bere gain hartzen ditu berak izandako kalteak, eta biek erantzukizun solidarioa dute euren karguei eragindako kalte-galeren gain.

**828. artikulua**

Aurreko artikuluko xedapena aplikatu behar da ezin daitekeenean zehaztu zein ontzik eragin duen abordatzea.

**829. artikulua**

Aipatu kasu horietan, ontzi-ustiatzaileak kaltea eragin duenaren aurkako akzio zibila egikari dezake, eta, horrez gain, kasuan kasuko erantzukizun kriminala ere eska dezake.

**830. artikulua**

Ontzi batek ezuste edo ezinbestearen ondorioz abordatzen duenean beste, ontzi eta zama bakoitzak aurre egin behar die berak izandako kalteei.

**831. artikulua**

Ontzi batek beste bat abordatzen badu hirugarren batek behartuta, hi-

ños y perjuicios que ocurrieren el naviero de este tercer buque, quedando el Capitán responsable civilmente para con dicho naviero.

### **Artículo 832**

Si, por efecto de un temporal o de otra causa de fuerza mayor, un buque que se halla debidamente fondeado y amarrado, abordare a los inmediatos a él, causándoles averías, el daño ocurrido tendrá la consideración de avería simple del buque abordado.

### **Artículo 833**

Se presumirá perdido por causa de abordaje el buque que, habiéndolo sufrido, se fuera a pique en el acto, también el que, obligado a ganar puerto para reparar las averías ocasionadas por el abordaje, se perdiese durante el viaje o se viera obligado a embarrancar para salvarse.

### **Artículo 834**

Si los buques que se abordan tuvieren a bordo práctico ejerciendo sus funciones al tiempo del abordaje no eximirá su presencia a los Capitanes de las responsabilidades en que incurran; pero tendrán éstos derecho a ser indemnizados por los prácticos, sin perjuicio de la responsabilidad criminal en que éstos pudieran incurrir.

### **Artículo 835**

La acción para el resarcimiento de daños y perjuicios que se deriven de los abordajes no podrá admitirse si no se presenta dentro de las veinticuatro horas protesta o declaración ante la Auto-

rugarren ontzi horren ustiatzaileak ordainduko ditu kalte-galerak, eta kapitainak erantzukizun zibila izango du, ontzi-ustiatzaile horri begira.

### **832. artikulua**

Ekaitzaren edo ezinbesteko beste kasu baten ondorioz ondo ainguratu eta lotuta dagoen ontziak albokoak abordatu eta matxurak eragiten ditueanean, ulertuko da gertatutako kaltea dela abordatzea jasan duen ontziaren matxura soil.

### **833. artikulua**

Ontzia abordatzearen ondorioz galdu dela uste izango da honako kasuetan: abordatzea jasan eta zuzenean hondortzen denean; abordatzeak ekarritako matxurak konpontzeko porturatu behar denean eta bidaiari galtzen denean; edota hondoz jo behar duenean salbatzeko.

### **834. artikulua**

Abordatzea jasan duten ontzietan praktikoa egon arren eta abordatzea gertatzen den unean hori bere eginkizunak gauzatzen aritu arren, kapitainek kasuan kasuko erantzukizuna izango dute; hala ere, praktikoei kalte-ordaina eman beharko diete, eta, horrez landara, erantzukizun kriminala ere izan dezakete.

### **835. artikulua**

Abordatze kasuetan, kalte-galeren medeapena eskatzeko akzioa onartzeko, protesta edo adierazpen egokia egin behar da hurrengo hogeita lau orduetan, abordatzea non gertatu eta bertako

ridad competente del punto en que tuviere lugar el abordaje, o la del primer puerto de arribada del buque, siendo en España, y ante el Cónsul de España, si ocurriese en el extranjero.

### **Artículo 836**

Para los daños causados a las personas o al cargamento, la falta de protesta no puede perjudicar a los interesados que no se hallaban en la nave o no estaban en condiciones de manifestar su voluntad.

### **Artículo 837**

La responsabilidad civil que contraen los navieros en los casos prescritos en esta Sección, se entiende limitada al valor de la nave con todas sus pertenencias y fletes devengados en el viaje.

### **Artículo 838**

Cuando el valor del buque y sus pertenencias no alcanzare a cubrir todas las responsabilidades, tendrá preferencia la indemnización debida por muerte o lesiones de las personas.

### **Artículo 839**

Si el abordaje tuviere lugar entre buques españoles en aguas extranjeras, o si, verificándose en aguas libres, los buques arribaren a puerto extranjero, el Cónsul de España en aquel puerto instruirá la sumaria averiguación del suceso, remitiendo el expediente al Capitán General del Departamento más inmediato para su continuación y conclusión.

agintari eskudunaren aurrean: Espainian, porturatzea burutzeko lehenengo tokiko agintariaren aurrean, edota atzerrian, Espainiako kontsularen aurrean.

### **836. artikulua**

Pertsoneri edo zamari eragindako kalteen kasuan, protestarik egin ez arren ezin zaie kalterik egin ontzian ez zeuden interesdunei, edo, bertan izanda, euren borondatea adierazi ezin zutenei.

### **837. artikulua**

Atal honetan araututako kasuetan, ontzi-ustiatzaileek erantzukizun zibila izango dute, eta horren gehieneko muga izango da ontziaren eta horren gehigarrien balioa gehi bidaian sortutako pleitak.

### **838. artikulua**

Ontziaren eta gehigarrien balioa ez denean nahiko erantzukizun guztiak estaltzeko, lehenespenez ordainduko dira pertsonen heriotza eta lesioen ondoriozko kalte-ordainak.

### **839. artikulua**

Abordatzea atzerriko uretan gertatuta Espainiako ontzien artean, edota, ur askeetan izan arren, ontziak atzerriko portuan sartu badira, Espainiako kontsulak instruitu behar du gertakizunaren azterketa sumarioa, eta Sail hurbilenoen Kapitain Nagusiari bidaliko dio espedientea, horrek ekin diezaion eta prozedura amai dezan.

SECCIÓN IV  
*De los naufragios*

**Artículo 840**

Las pérdidas y desmejoras que sufran el buque y su cargamento a consecuencia del naufragio o encalladura, serán individualmente de cuenta de los dueños, perteneciéndoles en la misma proporción los restos que se salven.

**Artículo 841**

Si el naufragio o encalladura procedieren de malicia, descuido o impericia del Capitán, o porque el buque salió a la mar no hallándose suficientemente reparado y pertrechado, el naviero o los cargadores podrán pedir al Capitán la indemnización de los perjuicios causados al buque o al cargamento por el siniestro, conforme a lo dispuesto en los artículos 610, 612, 614 y 621.

**Artículo 842**

Los objetos salvados del naufragio quedarán especialmente afectos al pago de los gastos del respectivo salvamento, y su importe deberá ser satisfecho por los dueños de aquéllos antes de entregárselos, y con preferencia a otra cualquiera obligación si las mercaderías se vendiesen.

**Artículo 843**

Si navegando varios buques en conserva, naufragare alguno de ellos, la

IV. ATALA  
*Ontzizkalpenak*

**840. artikulua**

Ontzizkalpenaren edo hondoa jotzearen kasuan ontzi eta zamari eragindako kalteei dagokienez, jabe baikoitzak berari eragindako kalteei egin behar die aurre, eta salbaturiko hondarrak proportzio berean banatuko dira.

**841. artikulua**

Ontzizkalpena edo hondoa jotzea sortu denean kapitainaren aurrearretarik ezaren, maltzurkeriaren edota trebetasun nahiz ardurarik ezaren ondorioz, edota itsasoratu aurretik ontzia ez delako behar bezala konpondu edo hornitu, ontzi-ustiatzaileak edo zamatzaiileak kapitainari eska diezaioke, ontzi edo zamaren gain sortu diren kalte-galeren ordaina emateko, 610, 612, 614 eta 621. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

**842. artikulua**

Ontzizkalpenetik salbatutako objektuak beren-beregi lotuko zaizkio kasuan kasuko salbamendu-gastuen ordainketari; objektuen jabeek horiek jaso aurretik ordaindu behar dituzte gastuok, eta merkatugaiak saltzen badira, beste edozein betebeharrak bete baino lehen egin beharko da ordainketa.

**843. artikulua**

Zenbait ontzi elkarrekin gordeta ari badira nabigatzen, eta horietako

carga salvada se repartirá entre los demás en proporción a lo que cada uno pueda recibir.

Si algún Capitán se negase sin justa causa a recibir la que le correspondía, el Capitán náufrago protestará contra él, ante dos Oficiales de mar, los daños y perjuicios que de ello se sigan, ratificando la protesta dentro de las veinticuatro horas de la llegada al primer puerto, e incluyéndola en el expediente que debe instruir con arreglo a lo dispuesto en el artículo 612.

Si no fuere posible trasladar a los demás buques todo el cargamento náufrago, se salvarán con preferencia los objetos de más valor y de menos volumen, haciéndose la designación por el Capitán con acuerdo de los Oficiales de su buque.

#### Artículo 844

El Capitán que hubiere recogido los efectos salvados del naufragio continuará su rumbo al puerto de su destino, y, en llegando, los depositará, con intervención judicial, a disposición de sus legítimos dueños.

En el caso de variar de rumbo, si pudiere descargar en el puerto a que iban consignados, el Capitán podrá arribar a él si lo consintiesen los cargadores o sobrecargos presentes y los Oficiales y pasajeros del buque, pero no lo podrá verificar, aun con este consentimiento, en tiempo de guerra o cuando el puerto sea de acceso difícil y peligroso.

batzen ontzizkalpena gertatzen bada, salbatutako zama besteen artean banatuko da, bakoitzak hartu ahal duenaren arabera.

Kapitainak bidezko arrazoirik izan gabe ezezkoa ematen badio bere zatia jasotzeari, ontzizkalpena jasan duen kapitainak kalte-galeren inguruko protesta egingo du horren aurka, bi itsas-ofizialen aurrean; lehenengo portura heldu eta hurrengo hogeita lau orduetan, kapitainak protesta hori berretsiko du, 612. artikulua aginduz instruitu behar duen espedientearen sartuta.

Ezinezkoa bada ontzizkaldutako zama osoa beste ontzietan uztea, lehenenez salbatuko dira balio handia eta bolumen txikia duten objektuak, eta kapitainak zehaztuko ditu halakoak, ontziko ofizialekin ados jarrita.

#### 844. artikulua

Ontzizkalpenean salbatutako efektuak jaso dituen kapitainak bidaiari ekingo dio helmugako porturantz; bertara heldutakoan, efektuok euren legebidezko jabeen esku utziko ditu, epailearen esku-hartzearekin.

Norabidea aldatuz gero, kontsignazioa zein portutan gauzatu eta deskarga bertan egin daitekeenean, kapitaina portu horretan sartuko da, baldin eta zamatzaille, zamazain, ofizial eta bidaiariak horren gaineko adostasuna ematen badute; adostasun hori izan arren, kapitainak ezin izango du halakorik egin, gerra dagoenean edota portuan sartzeko maniobra zaila ez ezik, arriskutsua ere denean.

Todos los gastos de esta arribada serán de cuenta de los dueños de la carga, así como el pago de los fletes que, atendidas las circunstancias del caso, se señalen por convenio o por decisión judicial.

### Artículo 845

Si en el buque no hubiere interesado en la carga que pueda satisfacer los gastos y los fletes correspondientes al salvamento, el Juez o Tribunal competente podrá acordar la venta de la parte necesaria para satisfacerlo con su importe. Lo mismo se ejecutará cuando fuese peligrosa su conservación, o cuando en el término de un año no se hubiese podido averiguar quiénes fueren sus legítimos dueños.

En ambos casos se procederá con la publicidad y formalidades determinadas en el artículo 579, y el importe líquido de la venta se constituirá en depósito seguro, a juicio del Juez o Tribunal, para entregarlo a sus legítimos dueños.

## TÍTULO V

### DE LA JUSTIFICACIÓN Y LIQUIDACIÓN DE LAS AVERÍAS

#### SECCIÓN PRIMERA

*Disposiciones comunes  
a toda clase de averías*

### Artículo 846

Los interesados en la justificación y liquidación de las averías podrán

Zamaren jabeek ordainduko dituzte, bai porturatze-gastuak, baita kasuan kasuko inguruabarren arabera hitzarmenez edo epailearen erabakiaren bitartez zehaztutako pleitak ere.

### 845. artikulua

Ontzian ez badago zaman interesa duen pertsonarik salbamenduaren gastu eta pleitak ordaintzeko, epaile edo auzitegi eskudunak erabaki dezake zamaren zati bat saltzea, gastu horiei aurre egiteko. Horretara jardun behar da, halaber, zama horren artapena arriskutsua denean, edota urtebete igarotakoan, ezinezkoa izan denean zamaren jabeak nortzuk diren jakitea.

Kasu bietan, 579. artikuluko publikizitatea eta formalitateak bete behar dira, eta salmentaren zenbateko likidoarekin epaile edo auzitegiaren iritziz ziurra den gordailua eratuko da, gero euren legebidezko jabeiei emateko.

## V. TITULUA

### MATXURAK EGIAZTATU ETA LIKIDATZEA

#### LEHENENGO ATALA

*Matxura guztiei aplikatzeko  
moduko xedapenak*

### 846. artikulua

Matxuren gaineko erantzukizunari, likidazioari eta ordainketari dagokie-

convenirse y obligarse mutuamente en cualquier tiempo acerca de la responsabilidad, liquidación y pago de ellas.

A falta de convenios se observarán las reglas siguientes:

1. La justificación de la avería se verificará en el puerto donde se hagan las reparaciones, si fueren necesarias, o en el de descarga.

2. La liquidación se hará en el puerto de descarga si fuere español.

3. Si la avería hubiere ocurrido fuera de las aguas jurisdiccionales de España, o se hubiere vendido la carga en puerto extranjero por arribada forzosa, se hará la liquidación en el puerto de arribada.

4. Si la avería hubiese ocurrido cerca del puerto de destino, de modo que se pueda arribar a dicho puerto, en él se practicarán las operaciones de que tratan las reglas primera y segunda.

### Artículo 847

Tanto en el caso de hacerse liquidación de las averías privadamente en virtud de lo convenido, como en el de intervenir la Autoridad judicial a petición de cualquiera de los interesados no conformes, todos serán citados y oídos si no hubieren renunciado a ello.

Quando no se hallaren presentes o no tuvieren legítimo representante, se hará la liquidación por el Cónsul en puerto extranjero, y donde no lo hubie-

nez, matxura horiek egiaztatu eta likidatzeko interesa dutenek hitzarmenak egin ditzakete eta elkarrekiko bete-beharrak ezar ditzakete.

Hitzarmenik izan ezean, erregela hauek aplikatuko dira:

1. Matxura egiaztatu behar da konponketak egiteko portuan, halakoak behar izanez gero, edota deskarga-portuan.

2. Likidazioa deskarga-portuan egingo da, hori Espainian bada.

3. Matxura Espainiako jurisdikzio-uretatik kanpo gertatu bada, edo derri-gorrek porturatzearen ondorioz zama atzerriko portuan saldu bada, likidazioa sarrera-portuan egingo da.

4. Matxura gertatu bada helmugako portutik gertu eta ontzia portu horretan sartu ahal bada, lehenengo eta bigarren erregelek aipatu eragiketarik burutu behar dira.

### 847. artikulua

Likidazioa egin daiteke modu pribatuan, hitzartutakoa gogoan izanda, edota agintari judizialaren esku-hartzearekin, hitzarmenarekin ados ez dauden interesdunek hala eskatuta; kasu batean zein bestean, dei egin behar zaie interesdun guztiei eta horiek esan beharreko entzungo da, horri uko egin diotenean izan ezik.

Interesdunak ez badaude bertan edo horiek ez badute legebidezko ordezkarririk, kontsulak egingo du likidazioa atzerriko portuan, eta halakorik izan

re, por el Juez o Tribunal competente, según las Leyes del país y por cuenta de quien corresponda.

Cuando el representante sea persona conocida en el lugar donde se haga la liquidación, se admitirá y producirá efecto legal su intervención, aunque sólo esté autorizado por carta del naviero, del cargador o del asegurador.

### **Artículo 848**

Las demandas sobre averías no serán admisibles si no excedieren del 5 por ciento del interés que el demandante tenga en el buque o en el cargamento siendo gruesas, y del 1 por ciento del efecto averiado, si fueren simples, deduciéndose en ambos casos los gastos de tasación, salvo pacto en contrario.

### **Artículo 849**

Los daños, averías, préstamos a la gruesa y sus premios, y cualesquiera otras pérdidas, no devengarán interés de demora sino pasado el plazo de tres días, a contar desde el en que la liquidación haya sido terminada y comunicada a los interesados en el buque, en la carga o en ambas cosas a la vez.

### **Artículo 850**

Si por consecuencia de uno o varios accidentes de mar ocurrieren en un mismo viaje averías simples y gruesas del buque, del cargamento o de ambos, se determinarán con separación los

ezean, epaile edo auzitegi eskudunak; horretarako, kasuan kasuko herriaren legeak izango dira kontuan, eta gastuak ere erantzukizuna duenaren kontura geratuko dira.

Ordezkaría ezaguna denean likidazioa egiten den tokian, horren esku-hartzea onartuko da eta esku-hartze horrek lege-ondoreak izango ditu, ordezkaría horrek ontzi-ustiatzaile, zamatzaile edo aseguratzaileak gutun bidez emandako baimena bakarrik izan arren.

### **848. artikulua**

Matxura-demanda onartzeko, demandatzaileak ontzian edo zaman duen interesaren ehuneko 5etik gorakoa izan behar da demanda hori, matxura handien kasuan, eta matxuratutako efektuaren ehuneko 1etik gorakoa, matxura soilen kasuan; betiere, tasazio-gastuak kendu behar dira, kontrako itunik izan ezean.

### **849. artikulua**

Kalteek, matxurek, ontziko izakinen araberako maileguez eta horien sariek, edota gainerako galerek berandutze-korrituak sortuko dituzte, hiru eguneko epean; epe hori zenbatzen hasiko da likidazioa amaitu eta ontzian, zaman edo bietan interesa dutenei horren berri eman zaienetik.

### **850. artikulua**

Itsas-istripu baten edo gehiagoren ondorioz bidaia berean matxura soilak eta handiak eragin bazaizkio ontziari, zamari edo biei, matxura bakoitzari dagozkion gastu eta kalteak bereizi behar



gastos y daños pertenecientes a cada avería en el puerto donde se hagan las reparaciones o se descarguen, vendan o beneficien las mercaderías.

Al efecto, los Capitanes estarán obligados a exigir de los Peritos tasadores y de los Maestros que ejecuten las reparaciones, así como de los que tasen o intervengan en la descarga, saneamiento, venta o beneficio de las mercaderías, que en sus tasaciones o presupuestos y cuentas pongan con toda exactitud y separación los daños y gastos pertenecientes a cada avería, y en los de cada avería, los correspondientes al buque y al cargamento, expresando también con separación si hay o no daños que procedan de vicio propio de la cosa y no de accidente de mar; y en el caso de que hubiere gastos comunes a las diferentes averías y al buque y su carga, se deberá calcular lo que corresponde por cada concepto y expresarlo distintamente.

## SECCIÓN II

### *De la liquidación de las averías gruesas*

#### **Artículo 851**

A instancia del Capitán se procederá privadamente, mediante el acuerdo de todos los interesados, al arreglo, liquidación y distribución de las averías gruesas.

A este efecto, dentro de las cuarenta y ocho horas siguientes a la llegada del buque al puerto, el Capitán convocará a todos los interesados para que

dira, konponketak zein portutan egin, edota merkatugaiak zein portutan deskargatu nahiz saldu eta portu horretan.

Horretarako, kapitainak aditu tasa-tzaileei, konponketaz arduratuko diren maisuei eta merkatugaien deskarga, ongitze, salmenta edo onuretan esku hartu dutenei eskatuko die euren tasazio, aurrekontu eta kontuak egitean zehaztasunez eta berezita agerrarazteko matxura bakoitzari dagozkion kalte eta gastuak, eta matxura bakoitzaren barruan, halaber, ontziari eta zamari dagozkienak; horrez gain, itsas-istri-puaren ondoriozkoak izan beharrean gauzaren berezko akatsen ondoriozko kalteak badaude, hori adierazi behar da, eta, matxura, ontzi eta zama desberdinei dagozkien gastu erkideak izanez gero, horietako bakoitzaren zenbatekoa kalkulatu behar da, berezita agerrarazteko.

## II. ATALA

### *Matxura handiak likidatzea*

#### **851. artikulua**

Kapitainak hala eskatuta, matxura handiak modu pribatuan konpondu, likidatu eta banatuko dira, interesdun guztien arteko akordioaren bidez.

Hortaz, ontzia portura heldu eta hurrengo berrogeita zortzi orduak igaro baino lehen, kapitainak dei egingo die interesdun guztiei, matxura handien

resuelvan si el arreglo o liquidación de las averías gruesas habrá de hacerse por Peritos y liquidadores nombrados por ellos mismos, en cuyo caso se hará así, habiendo conformidad entre los interesados.

No siendo la avenencia posible, el Capitán acudirá al Juez o Tribunal competente, que lo será el del puerto donde hayan de practicarse aquellas diligencias, conforme a las disposiciones de este Código, o al Cónsul de España, si lo hubiese, y si no, a la Autoridad local, cuando hayan de verificarse en puerto extranjero.

#### **Artículo 852**

Si el Capitán no cumpliera con lo dispuesto en el artículo anterior, el naviero o los cargadores reclamarán la liquidación, sin perjuicio de la acción que les corresponda para pedirle indemnización.

#### **Artículo 853**

Nombrados los Peritos por los interesados o por el Juez o Tribunal, procederán, previa la aceptación, al reconocimiento del buque y de las reparaciones que necesite y a la tasación de su importe, distinguiendo estas pérdidas y daños de los que provengan de vicio propio de las cosas.

También declararán los Peritos si pueden ejecutarse las reparaciones desde luego, o si es necesario descargar el buque para reconocerlo y repararlo.

Respecto a las mercaderías, si la avería fuere perceptible a la simple

konponketa edo likidazioa euren izendatutako aditu eta likidatzaileen bidez egingo denentz erabakitzeke; halakoen esku-hartzea erabakiz gero, kasuan kasuko izendapenak egingo dira, interesdunok ados jarrita.

Adostasunik lortu ezean, kapitainak epaile edo auzitegi eskudunera joko du. Halakoa izango da: eginbide horiek zein portutan gauzatu eta bertako epaile edo auzitegia, kode honetako xedapenen arabera; Espainiako kontsula, halakoa izanez gero; edota tokiko agintaria, eginbideok atzerriko portuan gauzatu behar direnean.

#### **852. artikulua**

Kapitainak ez badu betetzen aurreko artikulua xedatutakoa, ontzi-ustiatzaileak edo zamatzaileek likidazioa erreklamatu dute; horrez gain, kalte-ordaina eskatzeko akzioa egikari dezakete.

#### **853. artikulua**

Interesdunek, epaileak edo auzitegiak adituak izendatutakoan, horiek izendapena onartu eta ontzia zein horren konponketak aztertuko dituzte; jarraian, konponketen tasazioa egiteaz gain, galera horiek eta gauzen berezko akatsen ondoriozko kalteak bereizi beharko dituzte.

Halaber, adituek azalduko dute konponketak zuzenean egin daitezkeen, edota ontzia deskargatu behar den, berrori aztertu eta konpontzeko.

Merkatugaien kasuan matxura lehen begi-kolpean antzeman daitekeenean,

vista, deberá verificarse su reconocimiento antes de entregarlas. No apreciando a la vista al tiempo de la descarga, podrá hacerse después de su entrega, siempre que se verifique dentro de las cuarenta y ocho horas de la descarga, y sin perjuicio de las demás pruebas que estimen convenientes los Peritos.

#### Artículo 854

La evaluación de los objetos que hayan de contribuir a la avería gruesa, y la de los que constituyen la avería, se sujetará a las reglas siguientes:

1. Las mercaderías salvadas que hayan de contribuir al pago de la avería gruesa, se valorarán al precio corriente en el puerto de descarga, deducidos fletes, derechos de Aduanas, y gastos de desembarque, según lo que aparezca de la inspección material de las mismas, prescindiendo de lo que resulte de los conocimientos, salvo pacto en contrario.

2. Si hubiere de hacerse la liquidación en el puerto de salida, el valor de las mercaderías cargadas se fijará por el precio de compra con los gastos hasta ponerlas a bordo, excluido el premio del seguro.

3. Si las mercaderías estuvieren averiadas, se apreciarán por su valor real.

4. Si el viaje se hubiere interrumpido, las mercaderías se hubieren vendido en el extranjero y la avería no pudiere regularse, se tomará por capital contribuyente el valor de las mercaderías en

horiek eman baino lehen aztertu behar dira. Deskarga gauzatzean ez bada halakorik ikusten, azterketa merkatugaiak eman eta gero egin daiteke, hurrengo berrogeita zortzi orduak igaro baino lehen, betiere; horrez gain, adituek bidezko dertzetzen beste frogak egin daitezke.

#### 854. artikulua

Matxura handian parte hartu behar duten objektuak eta matxura horretan sartzen direnak ebaluatzeko, erregela hauek aplikatuko dira:

1. Salbatutako merkatugaiak helmugako portuan duten ohiko prezioaren arabera parte hartzen dute, zenbateko horri pleitak, aduana-zerga eta lehorreratze-gastuak kendu eta gero; kontrako itunik izan ezean, balio hori kalkulatzeko, merkatugaien ikuskatze materialak ondorioztatzen duena izango da kontuan, ez, ordea, ontzirapen-agirietan agertzen dena.

2. Likidazioa irteera-portuan egin behar bada, zamatutako merkatugaien balioa izango da erosketa-prezinoa gehi horiek ontziratzeke egin diren gastuak, aseguruaren saria kenduta.

3. Merkatugaiak matxuraturik badaude, horien benetako balioa hartuko da kontuan.

4. Bidaia geldiarazi bada, merkatugaiak atzerrian saldu badira eta matxura ezin bada arautu, parte-hartzeari lotutako kapitala izango da merkatugaiak sarrera-portuan duten balioa, edo-

el puerto de arribada, o el producto líquido obtenido en su venta.

5. Las mercaderías perdidas que constituyeren la avería gruesa se apreciarán por el valor que tengan en los conocimientos sus especies y calidades, y no constando, se estará a lo que resulte de las facturas de compra expedidas en el puerto de embarque, aumentando a su importe los gastos y fletes causados posteriormente.

6. Los palos cortados, las velas, cables y demás aparejos del buque inutilizados con el objeto de salvarlo, se apreciarán según el valor corriente, descontando una tercera parte por diferencia de nuevo a viejo.

Esta rebaja no se hará en las anclas y cadenas.

7. El buque se tasará por su valor real en el estado en que se encuentre.

8. Los fletes representarán el 50 por ciento como capital contribuyente.

### Artículo 855

Las mercaderías cargadas en el combés del buque contribuirán a la avería gruesa si se salvaren; pero no darán derecho a indemnización si se perdieren habiendo sido arrojadas al mar por salvamento común, salvo cuando en la navegación de cabotaje permitieran las Ordenanzas marítimas su carga en esa forma.

ta horiek saltzean lortutako zenbateko likidoa.

5. Galtzearen ondorioz matxura handian sartu diren merkatugaien balioa izango da ontzirapen-agirian adierazitako espezie eta kalitatearen arabera; datuok jasotzen ez badira, ontziratze-portuan luzatutako erosketak fakturen arabera zehaztuko da balio hori, eta zenbateko horri gehitu behar zaizkio geroago sortzen diren gastu eta pleitak.

6. Moztutako mastak, belak edo kableak, eta ontzia salbatzeko erabilezin bihurtu diren gainerako aparailuak ohiko balioaren arabera balioetsiko dira, eta zenbateko horri herena kenduko zaio, berritik zaharrerako diferentzia dela eta.

Ez da halako kenketarik egingo aingura eta kateen kasuan.

7. Ontzia bere benetako balioaren arabera tasatuko da, ontzi hori zein egoeratan dagoen aintzakotzat hartuta.

8. Pleitak bere balioaren ehuneko 50ean hartuko du parte.

### 855. artikulua

Ontziko konbesean zamaturiko merkatugaiak salbatzen direnean, horiek ere parte hartzen dute matxura handian; salbamendu arrunta dela-eta merkatugai horiek itsasora bota eta galdu badira, alabaina, ez dute kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik sorraraziko, kabotaje-nabigazioko itsas-ordenantzek hori ahalbidetzen dutenean izan ezik.

Lo mismo sucederá con las que existan a bordo y no consten comprendidas en los conocimientos o inventarios, según los casos.

En todo caso, el fletante y el Capitán responderán a los cargadores de los perjuicios de la echazón, si la colocación en el combés se hubiere hecho sin consentimiento de éstos.

### Artículo 856

No contribuirán a la avería gruesa las municiones de boca y guerra que lleve el buque, ni las ropas ni vestidos de uso de su Capitán, Oficiales y tripulación.

También quedarán exceptuadas las ropas y vestidos de uso de los cargadores, sobrecargos y pasajeros que al tiempo de la echazón se encuentren a bordo.

Los efectos arrojados tampoco contribuirán al pago de las averías gruesas que ocurran a las mercaderías salvadas en riesgo diferente y posterior.

### Artículo 857

Terminada por los Peritos la valuación de los efectos salvados, y de los perdidos que constituyan la avería gruesa, hechas las reparaciones del buque, si hubiere lugar a ello, y aprobadas en este caso las cuentas de las mismas por los interesados o por el Juez o Tribunal, pasará el expediente íntegro al liquidador nombrado para

Hori berori gertatuko da, ontzian izan arren ontzirapen-agirietan edo inbentarioetan jaso ez diren merkatugaiekin, kasuan-kasuan.

Edonola ere, zamatzaillei begira, pleit-emaile eta kapitainak erantzukizuna izango dute zama ezinbestean itsasora botatzearen ondorioz gertatutako galeren gain, baldin eta zama hori konbesean kokatu bada euren adostasunik gabe.

### 856. artikulua

Ez dute parterik hartzen matxura handian ontziak daramatzen aho- nahiz gerra-munizioek, ezta kapitainaren, ofizialen eta tripulazioaren arropa eta jantziek ere.

Halaber, salbuetsita geratzen dira zamatzaille, zamazain eta bidaiarien arropa eta jantziak, baldin eta ontzian badaude zama itsasora botatzen den unean.

Botatako objektuak ez dira erabiliko geroko arrisku desberdin batean salbatutako merkatugaien matxura handiak ordaintzeko.

### 857. artikulua

Adituek balioetsiko dituzte salbatu diren efektuak eta galtzearen ondorioz matxura handian sartu direnak; horrez gain, hala denean, kasuan kasuko konponketak egingo dituzte, eta interesdunek, epaile edo auzitegiak horien inguruko kontuak onetsi behar dituzte. Hori guztia egindakoa, izendatutako likidatzaileari eskualdatu behar zaio es-

que proceda a la distribución de la avería.

### Artículo 858

Para verificar la liquidación, examinará el liquidador la protesta del Capitán, comprobándola, si fuere necesario, con el libro de navegación, y todos los contratos que hubieren mediado entre los interesados en la avería, las tasaciones, reconocimientos periciales y cuentas de reparaciones hechas. Si por resultado de este examen hallare en el procedimiento algún defecto que pueda lastimar los derechos de los interesados o afectar la responsabilidad del Capitán, llamará sobre ello la atención para que se subsane, siendo posible, en otro caso, lo consignará en los preliminares de la liquidación.

En seguida procederá a la distribución del importe de la avería, para lo cual fijará:

1. El capital contribuyente, que determinará por el importe del valor del cargamento, conforme a las reglas establecidas en el artículo 854.

2. El del buque en el estado que tenga, según la declaración de Peritos.

3. El 50 por ciento del importe del flete, rebajado el 50 por ciento restante por salarios y alimentos de la tripulación.

Determinada la suma de la avería gruesa conforme a lo dispuesto en este

pedientea, horrek matxuraren banaketa egin dezan.

### 858. artikulua

Likidazioa egiteko, likidatzaileak ondokoa aztertu behar du: kapitainaren protesta, beharrezkoa izanez gero, protesta hori nabigazio-liburuarekin alderatuz; matxuran interesa dutenek egingako kontratuak; tasazioak; adituek egindako azterketak eta konponketen kontuak. Hori guztia aztertu ondoren, likidatzaileak uste badu prozedurak akatsen bat duela, eta horren ondorioz kaltea eragin ahal zaiela interesdunen eskubideei edo ukitu ahal dela kapitainaren erantzukizuna, horren inguruko ohartarazpena egingo du, ahal izanez gero akats hori ongitzeko; bestela, likidazioaren atarikoetan agerraraziko du akatsa.

Jarraian, matxuraren zenbatekoa banatuko du, eta horretarako, hauxe finkatu behar du:

1. Parte-hartzeari lotutako kapitala; horren zenbatekoa zamak duen balioaren araberakoa izango da, 854. artikuluko erregelak kontuan izanda.

2. Ontziaren balioa, horren egoera edozein izanda ere; adituek zehaztuko dute balio hori.

3. Pleitaren ehuneko 50, eta beste ehuneko 50 urrituko da, tripulazioaren alokairuak eta mantenua direla bide.

Behin matxura handiaren zenbatekoa kode honetan xedatutakoaren ara-

Código, se distribuirá a prorrata entre los valores llamados a costearla.

### Artículo 859

Los aseguradores del buque, del flete, y de la carga estarán obligados a pagar por la indemnización de la avería gruesa tanto cuanto se exija a cada uno de estos objetos, respectivamente.

### Artículo 860

Si, no obstante la echazón de mercaderías, rompimiento de palos, cuerdas, y aparejos, se perdiere el buque corriendo el mismo riesgo, no habrá lugar a contribución alguna por avería gruesa.

Los dueños de los efectos salvados no serán responsables a la indemnización de los arrojados al mar, perdidos o deteriorados.

### Artículo 861

Si después de haberse salvado el buque del riesgo que dio lugar a la echazón, se perdiere por otro accidente ocurrido durante el viaje, los efectos salvados y subsistentes del primer riesgo continuarán afectos a la contribución de la avería gruesa, según su valor en el estado en que se encuentren, deduciendo los gastos hechos para su salvamento.

### Artículo 862

Si, a pesar de haberse salvado el buque y la carga por consecuencia del cor-

bera zehaztutakoan, berori lainean banatuko da, matxura ordaintzeko erabili behar diren balioen artean.

### 859. artikulua

Ontziaren, pleitaren eta zamaren aseguratzailerek matxura handiaren ondoriozko kalte-ordaina eman beharko dute, objektu horietako bakoitzak ordaindu beharreko kopuruaren arabera, hurrenez hurren.

### 860. artikulua

Merkatugaiak ezinbestean itsasora bota arren, eta, mastak, sokak eta aparailuak apurtuta ere, ontzia arrisku berean galtzen bada, ez da ezer ordaindu behar matxura handiaren zioz.

Salbatutako efektuen jabeek ez dute kalte-ordainik ordaindu behar itsasora botatako, galdutako edo narriatutako efektuengatik.

### 861. artikulua

Merkatugaiak ezinbestean itsasora botatzea ekarri zuen arriskua gainditu eta ontzia salbatu ostean berori galtzen bada bidaiari gertatutako beste istripu baten ondorioz, lehenengo arriskuan salbatutako efektuak matxura handiari lotuta geratuko dira, une eta egoera horretan duten balioaren arabera; hala ere, salbamendu-gastuak kendu behar dira.

### 862. artikulua

Mastak mozteagatik edo nahita beste edozein kalte eragiteagatik ontzia

te de palos y de otro daño inferido al buque deliberadamente con aquel objeto, luego se perdieren o fueren robadas las mercaderías, el Capitán no podrá exigir de los cargadores o consignatarios que contribuyan a la indemnización de la avería, excepto si la pérdida ocurriere por hecho del mismo dueño o consignatario.

### **Artículo 863**

Si el dueño de las mercaderías arrojadas al mar las recobrase después de haber recibido la indemnización de avería gruesa, estará obligado a devolver al Capitán y a los demás interesados en el cargamento la cantidad que hubiere percibido, deduciendo el importe del perjuicio causado por la echazón y de los gastos hechos para recobrarlas.

En este caso, la cantidad devuelta se distribuirá entre el buque y los interesados en la carga, en la misma proporción con que hubieren contribuido al pago de la avería.

### **Artículo 864**

Si el propietario de los efectos arrojados los recobrare sin haber reclamado indemnización, no estará obligado a contribuir al pago de las averías gruesas que hubieren ocurrido al resto del cargamento después de la echazón.

### **Artículo 865**

El repartimiento de la avería gruesa no tendrá fuerza ejecutiva hasta que haya recaído la conformidad, o, en su defecto, la aprobación del Juez o Tribunal, previo examen de la liquidación

salbatu arren, gero merkatugaiak galdu edo lapurtzen badira, kapitainak ezin die eskatu zamatzaile edo kontsignatarioei matxuraren ziozko kalte-ordaina ordaintzeko, kasu batean izan ezik: galera gertatu denean jabeak edo kontsignatarioak burututako egitate baten ondorioz.

### **863. artikulua**

Itsasora bota diren merkatugaien jabeak horiek berreskuratzen baditu matxura handiaren ziozko kalte-ordaina jaso eta gero, jasotako zenbateko hori itzuli beharko die kapitainari eta zama interesa duten beste pertsonaei, behin merkatugaiok itsasora ezinbestean botatzearen ondoriozko kaltea eta horiek berreskuratzeo gastuak kenduta.

Kasu horretan, itzulitako zenbatekoa banatuko da ontziaren eta zama interesa dutenen artean, matxura ordaintzean izan duten parte-hartzearen arabera.

### **864. artikulua**

Itsasora botatako efektuen jabeak horiek berreskuratzen baditu kalte-ordainik erreklamatu gabe, ez ditu zertan ordaindu botatze horren ostean beste zamari eragindako matxura handiak.

### **865. artikulua**

Matxura handiaren banaketa bete-arazlea izan dadin, lehenik eta behin bertan dauden interesdunek edo horien ordezkariak likidazioa aztertu eta horren inguruan esan behar dutena en-



y audiencia instructiva de los interesados presentes o de sus representantes.

### Artículo 866

Aprobada la liquidación, corresponderá al Capitán hacer efectivo el importe del repartimiento y será responsable a los dueños de las cosas averiadas, de los perjuicios que por su morosidad o negligencia se les sigan.

### Artículo 867

Si los contribuyentes dejaren de hacer efectivo el importe del repartimiento en el término de tercer día después de haber sido a ello requeridos, se procederá, a solicitud del Capitán, contra los efectos salvados, hasta verificar el pago con su producto.

### Artículo 868

Si el interesado en recibir los efectos salvados no diere fianza suficiente para responder de la parte correspondiente a la avería gruesa, el Capitán podrá diferir la entrega de aquéllos hasta que se haya verificado el pago.

## SECCIÓN III

### *De la liquidación de las averías simples*

### Artículo 869

Los Peritos que el Juez o Tribunal o los interesados nombren, según los casos, procederán al reconocimiento y valuación de las averías en la for-

tzungo da; gero, horien adostasuna edo, halakorik lortu ezean, epaile edo auzitegiaren onespena behar da.

### 866. artikulua

Likidazioa onetsi denean, kapitainari dagokio banaketa gauzatzea, eta matxuratutako gauzen jabeei begira, kapitainak erantzukizuna izango du atzerapenaren edo arduragabekeriaren ondorioz eragindako galeren gain.

### 867. artikulua

Parte-hartzaileek eurei dagokien zenbatekoa ordaintzen ez badute, horretarako agindeia egin zaienetik hiru eguneko epean, salbatutako efektuen aurka jo daiteke, kapitainak hala eskatuta, ordainketaren zenbatekoa lortu arte.

### 868. artikulua

Salbatutako efektuak jasotzeko interesa duenak ez badu fidantza nahiko jarri matxura handiari lotuta ordaindu behar duen zatia ordaintzeko, kapitainak ez dizkio emango efektu horiek ordainketa egin arte.

## III. ATALA

### *Matxura soilak likidatzea*

### 869. artikulua

Kasuan-kasuan epaileak, auzitegiak edo interesdunek izendatutako adituek matxurak aztertu eta balioetsi behar dituzte, 853. artikuluan eta 854. artiku-

ma prevenida en el artículo 853 y en el 854, reglas 2 a la 7, en cuanto les sean aplicables.

## **LIBRO IV**

### **DE LA SUSPENSIÓN DE PAGOS, DE LAS QUIEBRAS Y DE LAS PRESCRIPCIONES**

#### **TÍTULO PRIMERO**

### **DE LA SUSPENSIÓN DE PAGOS Y DE LA QUIEBRA EN GENERAL**

Derogado por Ley 22/2003, de 9 de julio, Concursal.

#### **TÍTULO II**

### **DE LAS PRESCRIPCIONES**

#### **Artículo 942**

Los términos fijados en este Código para el ejercicio de las acciones procedentes de los contratos mercantiles serán fatales, sin que contra ellos se dé restitución.

#### **Artículo 943**

Las acciones que en virtud de este Código no tengan un plazo determinado para deducirse en Juicio se regirán por las disposiciones del Derecho común.

#### **Artículo 944**

La prescripción se interrumpirá por la demanda u otro cualquier género de

luaren 2. erregelatik 7.erakoetan agindutakoaren arabera, horiek aplikatzeko modukoak diren heinean.

## **IV. LIBURUA**

### **ORDAINKETA-ETENDURA, PORROTAK ETA PRESKRIPZIOAK**

#### **LEHENENGO TITULUA**

### **ORDAINKETA-ETENDURA ETA PORROTA OROKORREAN**

Uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legeak indargabetua.

#### **II. TITULUA**

### **PRESKRIPZIOAK**

#### **942. artikulua**

Kode honetan merkataritzako kontratuen ondoriozko akzioak egikaritzeko ezarri diren epe-mugak luzaezinak dira, eta horien aurka ez dago itzulterik.

#### **943. artikulua**

Kode honen arabera judizioan egikaritzeko epe zehatzik ez duten akzioei zuzenbide erkideko arauak aplikatuko zaizkie.

#### **944. artikulua**

Preskripzioa geldiarazten da, zordunaren kontrako demandaren edo bes-

interpelación jurídica hecha al deudor; por el reconocimiento de las obligaciones, o por la renovación del documento en que se funde el derecho del acreedor.

Se considerará la prescripción como no interrumpida por la interpelación judicial, si el actor desistiese de ella, o caducara la instancia, o fuese desestimada su demanda.

Empezará a contarse nuevamente el término de la prescripción en caso de reconocimiento de las obligaciones, desde el día en que se haga; en el de su renovación, desde la fecha del nuevo título; si en él se hubiere prorrogado el plazo del cumplimiento de la obligación, desde que éste hubiere vencido.

#### **Artículo 945**

La responsabilidad de los Agentes de Bolsa, Corredores de Comercio o Intérpretes de buques, en las obligaciones que intervengan por razón de su oficio, prescribirán a los tres años.

#### **Artículo 946**

La acción real contra la fianza de los Agentes mediadores sólo durará seis meses, contados desde la fecha del recibo de los efectos públicos, valores de comercio o fondos que se les hubieren entregado para las negociaciones, salvo los casos de interrupción o suspensión expresados en el artículo 944.

#### **Artículo 947**

Las acciones que asisten al socio contra la sociedad, o viceversa, pres-

telako agindei judizialaren ondorioz; betebeharrak aintzakotzat hartzearen ondorioz, edota hartzekodunaren esku-bidea zein agiritan oinarritu, eta agiri hori berriztatzearen ondorioz.

Auzi-jartzaileak atzera egiten badu agindei judizialean, auzialdia iraungitzen bada edota demandari gaitziritzia eman bazaio, ulertzen da agindei horrek ez duela preskripzioa geldiarazten.

Betebeharrak aintzatestearen kasuan, preskripzioaren epe-muga berriro hasiko da zenbatzen aintzatespen hori egiten den egunetik; berriztatzearen kasuan, titulu berriaren datatik; eta titulu horretan betebeharra betetzeko epea luzatu bada, epe hori muga-eguneratu denetik.

#### **945. artikulua**

Burtsa-agente, merkataritzako artekari edo ontzietako interpretatzaileek euren ogibidearen ondoriozko betebeharren gaineko erantzukizuna dute, eta erantzukizun horren preskripzioa gertatzen da, hiru urte igaro eta gero.

#### **946. artikulua**

Agente bitartekariak jarritako fidantzaren aurkako akzioak sei hilabate bakarrik iraungo du, negoziazioa gauzatzeko eman zaizkien efektu publiko, merkataritzako balore edo funtsak jasotzen dituztenetik zenbatzen hasita, 944. artikuluan aipatu geldiarazpen-edo etete-kasuak salbu.

#### **947. artikulua**

Bazkideak sozietatearen aurka dituen akzioen edo alderantzizkoen pres-

cribirán por tres años, contados según los casos, desde la separación del socio, su exclusión o disolución de la sociedad.

Será necesario, para que este plazo corra, inscribir en el Registro Mercantil, la separación del socio, su exclusión o la disolución de la sociedad.

Prescribirá asimismo por cinco años, contados desde el día señalado para comenzar su cobro, el derecho a percibir los dividendos o pagos que se acuerden por razón de utilidades o capital sobre la parte o acciones que a cada socio corresponda en el haber social.

#### **Artículo 948**

La prescripción en provecho de un asociado que se separó de la sociedad o que fue excluido de ella, constando en la forma determinada en el artículo anterior, no se interrumpirá por los procedimientos judiciales seguidos contra la sociedad o contra otro socio.

La prescripción en provecho del socio que formaba parte de la sociedad en el momento de su disolución no se interrumpirá por los procedimientos judiciales contra otro socio, pero sí por los seguidos contra los liquidadores.

#### **Artículo 949**

La acción contra los socios Gerentes y administradores de las compañías o sociedades terminará a los cuatro años, a contar desde que por cualquier

kripzioa gertatzen da, hiru urte igaro ondoren; epe hori zenbatzen hasiko da bazkidea banandu edo baztertzen denetik, edota sozietatea desegiten denetik, kasuan-kasuan.

Epea zenbatzen has dadin, bazkidearen banantzea nahiz baztertzea edo sozietatearen desegitea Merkataritzako Erregistroan inskribatuta egon behar da.

Bazkide bakoitzak sozietatearen hartzekoan duen partaidetzaren edo akzioen ondoriozko dibidenduak nahiz ordainketak jasotzeko eskubidea preskribitzen da bost urte igaro eta gero; epe hori zenbatzen hasiko da kobrantzarako zehaztu den egunetik.

#### **948. artikulua**

Bazkidea sozietatetik banandu edo baztertu denean eta hori aurreko artikulua agindu bezala agerrarazi denean, bazkidearen aldeko preskripzioa ez da geldiaraziko sozietatearen edo beste bazkide baten aurkako prozedura judizialen ondorioz.

Sozietatea desegitean bertako bazkidearen aldeko preskripzioa baze goen, preskripzio hori ez da geldiaraziko beste bazkide baten kontrako prozedura judizialen ondorioz, bai, ordea, likidatzaileen kontrako prozeduren ondorioz.

#### **949. artikulua**

Konpainia edo sozietateetako bazkide kudeatzaileen nahiz administratzaileen kontrako akzioa lau urte igaro ondoren amaituko da, edozein arrazoi-

motivo cesaren en el ejercicio de la administración.

### Artículo 950

Las acciones procedentes de letras de cambio se extinguirán a los tres años de su vencimiento, háyanse o no protestado.

Igual regla se aplicará a las libranzas y pagarés de comercio, cheques, talones, y demás documentos de giro o cambio, y a los dividendos, cupones e importe de amortización de obligaciones emitidas conforme a este Código.

### Artículo 951

Las acciones relativas al cobro de portes, fletes, gastos a ellos inherentes y de la contribución de averías comunes, prescribirán a los seis meses de entregar los efectos que los adeudaron.

El derecho al cobro del pasaje prescribirá en igual término, a contar desde el día en que el viajero llegó a su destino, o del en que debía pagarlo.

### Artículo 952

Prescribirán al año:

1. Las acciones nacidas de servicios, obras, provisiones, y suministros de efectos o dinero para construir, reparar, pertrechar o avituallar los buques o mantener la tripulación, a contar desde la entrega de los efectos y dinero o de los plazos estipulados para

ren ondorioz administrazio-zereginak uzten dituztenetik zenbatzen hasita.

### 950. artikulua

Kanbio-letra muga-eguneratu eta hiru urte igaro ondoren gertatzen da horien ondoriozko akzioen preskripzioa, letra horiek protestatu zein ez.

Erregela berbera aplikatuko zaie hurrengoei: merkataritzako igortze eta ordaindukoiei, txekeei, taloiei eta gainerrako kanbio-agiriei, baita dibidenduei, kupoiei eta kode honen arabera jaulkitako obligazioen amortizazio-zenbatekoari ere.

### 951. artikulua

Garraioak nahiz pleitak eta horiei datzekien gastuak kobratzeko akzioen, edota matxura handien parte-hartzea kobratzekoen preskripzioa gertatzen da, zorra sortu zuten efektuak eman eta sei hilabete igaro ondoren.

Bidaia kobratzeko eskubidea epe-muga berdinean preskribitzen da, bidaiaria helmugara iritsi zenetik edo ordainketa egin behar zuenetik zenbatzen hasita.

### 952. artikulua

Urtebete igaro eta gero preskribitzen dira hurrengoak:

1. Ontzia eraiki, konpondu edo hornitzeko edota tripulazioari mantenua emateko egin diren zerbitzu, obra nahiz horniduren edo eskainitako diruaren ondoriozko akzioak; epea zenbatuko da, efektuak eta dirua eman direnetik, ordainketak egiteko hizpatu diren

su pago, y desde la prestación de los servicios o trabajos, si éstos no estuvieren contratados por tiempo o viaje determinados. Si lo estuviesen, el tiempo de la prescripción comenzará a contarse desde el término del viaje o del contrato que les fuere referente; y si hubiera interrupción en éstos, desde la cesación definitiva del servicio.

2. Las acciones sobre entrega del cargamento en los transportes terrestres o marítimos, o sobre indemnización por sus retrasos y daños sufridos en los objetos transportados, contado el plazo de la prescripción desde el día de la entrega del cargamento en el lugar de su destino, o del en que debía verificarse según las condiciones de su transporte.

Las acciones por daños o faltas no podrán ser ejercitadas si al tiempo de la entrega de las respectivas expediciones, o dentro de las veinticuatro horas siguientes, cuando se trate de daños que no apareciesen al exterior de los bultos recibidos, no se hubiesen formalizado las correspondientes protestas o reservas.

3. Las acciones por gastos de la venta judicial de los buques, cargamentos o efectos transportados por mar o tierra, así como las de su custodia, depósito y conservación, y los derechos de navegación y de puerto, pilotaje, socorro, auxilios y salvamentos, contándose el plazo desde que los gastos se hubieren hecho y prestado los auxilios, o desde la terminación del expediente, si se hubiere formalizado sobre el caso.

epeak igaro direnetik, edota zerbitzuak nahiz lana eskaini direnetik, horiek ez badira kontratatu epe edo bidaia zehatz baterako. Horrela kontratatu badira, preskripzioaren epea zenbatuko da bidaiaren edo kontratuaren epe-mugatik; eta epe horiek geldiarazi badira, zerbitzua behin betiko amaitzen denetik.

2. Lurgaineko garraioan zein itsas-garraioan zama ematearen inguruko akzioak, edota atzerapenaren nahiz garraiatuturiko objektuek izandako kalteen ondoriozkoak; preskripzioaren epea zenbatuko da, zama helmugan ematen denetik, edota garraio-baldintzen araberaman eman behar zenetik.

Protesta edo erreserba egin behar da, kasuan kasuko espedizioak ematen diren unean, edo jasotako fardelen kanpoaldean akatsik agertzen ez bada, hurrengo hogeita lau orduetan; bestela, ezin izango dira egikaritu kalte edo hutssegiteen ondoriozko akzioak.

3. Ontziak eta itsasoz nahiz lurgainetik garraiatuturiko zama edo efektuak judizioan saltzearen ondoriozko gastuen gaineko akzioak, baita efektuok zaindu, gordailutu eta artatzearen gainekoak ere, edota nabigazio-, portu-, pilotutza-, sorospen-, laguntza-, eta salbamendu-eskubideak; epea zenbatuko da gastuak egin eta laguntzak eskaini direnetik, edota espediente amaitu denetik, kasuaren gain halakoa egin bada.

**Artículo 953**

Las acciones para reclamar indemnización por los abordajes prescribirán a los dos años del siniestro.

Estas acciones no serán admisibles si no se hubiere hecho la correspondiente protesta por el capitán del buque perjudicado, o quien le sustituyere en sus funciones, en el primer puerto donde arribaron, conforme a los casos 8 y 15 del artículo 612, cuando éstos ocurrieren.

**Artículo 954**

Prescribirán por tres años, contados desde el término de los respectivos contratos o desde la fecha del siniestro que diere lugar a ellas, las acciones nacidas de los préstamos a la gruesa o de los seguros marítimos.

### TÍTULO III DISPOSICIÓN GENERAL

**Artículo 955**

En los casos de guerra, epidemia oficialmente declarada o revolución, el Gobierno podrá, acordándolo en Consejo de Ministros y dando cuenta a las Cortes, suspender la acción de los plazos señalados por este Código para los efectos de las operaciones mercantiles, determinando los puntos o plazas donde estimen conveniente la suspensión, cuando ésta no haya de ser general en todo el Reino.

**953. artikulua**

Abordatzeen ondoriozko kalte-ordaina erreklamatzeko akzioa preskribitzen da, ezbeharrak gertatu eta bi urte igaro ondoren.

Akzio horiek ez dira onartuko, baldin eta ontzi kaltetunaren kapitainak edo horren eginkizunak betetzen dituenak ez badu egin kasuan kasuko protesta lehenengo sarrera-portuan, 612. artikulua 8 eta 15. zenbakien arabera.

**954. artikulua**

Ontziko izakinen arabeko mailegari edo itsas-aseguruei buruzko akzioen preskripzioa gertatzen da, kasuan kasuko kontratuen epe-muga heldu edo ezbeharrak gertatu eta hiru urte igaro ondoren.

### III. TITULUA XEDAPEN OROKORRA

**955. artikulua**

Gerra-, modu ofizialean adierazitako izurrite- edo iraultza-kasuetan, Ministroen Kontseiluaren erabakiz eta Gorteei kontuak azalduz, Gobernuak eten ditzake kode honetan merkataritzako eragiketen ondorioei begira zehaztutako epeak; etete hori erresuma osorako ez denean, Gobernuak zehaztu behar du zein toki edo hiritan aplikatuko den.





**§2.**  
**Kanbio-letra eta**  
**Txekeari buruzko Legea**

**§2.**  
**Ley Cambiaria y del Cheque**



# **Ley 19/1985, de 16 de julio, Cambiaría y del Cheque**

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

I

La adaptación del ordenamiento sobre la letra de cambio, el cheque y el pagaré a la llamada legislación uniforme de Ginebra supone dar un paso decisivo encaminado a la renovación de nuestro Derecho Mercantil, tan necesitado de reforma. Si esta necesidad es predicable de otros sectores del ordenamiento mercantil, en pocos se hace tan evidente como en el de estos títulos valores, cuya regulación casi centenaria ha sido repetidamente denunciada por no servir para proteger adecuadamente los créditos incorporados a dichos documentos.

La regulación de la letra de cambio, contenida en el Título X del Libro II del Código de Comercio, está inspirada directamente en la de su homónimo francés, dominado, cuando aquel se promulgó, por una concepción instrumental de la cambial, sobre la que incidían directamente todos los avatares del negocio causal. Esta concepción choca abiertamente con las necesidades del tráfico jurídico contemporáneo, en el que la circulación de los títulos no puede quedar sometida al mismo régimen que la simple cesión de créditos. Estas insuficiencias están directamente vinculadas al sistema de excepciones oponibles por

# **Uztailaren 16ko 19/1985 Legea, Kanbio-letra eta Txekeari buruzkoa**

ZIOEN AZALPENA

I

Kanbio-letra, txeke eta ordaindukoaren antolamendua Genevako erabereko legeriari egokitzean, kontuzko aurrerapausoa eman da, zalantza-izpirik gabe eraldatze-beharrizana duen merkataritzako zuzenbidea berriztatzeko. Egin-eginean ere, merkataritzako antolamenduaren zenbait atal ukitu behar dira, baina balore-tituluen esparruan eraldaketa behar-beharrezkoa izan da, behin baino gehiagotan salatu delako ehun urte bete dituen arauetak ez di-tuela behar bezala babesten tituluok barneratutako eskubideak.

Kanbio-letraren arauketa Merkataritza Kodearen II. liburuko X. tituluari jaso da. Kode horren zuzeneko oinarria Frantziako eredia izan da, izen berbera duena; kode hori aldarrikatu zenean, kanbio-letra tresna moduan ikusi zen, alegia, letra zein kontraturen ondorioz sortu eta kontratu horren gorabeherak zuzeneko eragina zuten letraren gain. Ulerkera horrek, ordea, aurrez aurre egiten du topo egungo trafikokoarekin, eta tituluen zirkulazioari ezin zaio aplikatu kreditu-lagapenaren arauketa hutsa. Akats horiek lotzen dira, gainera, kanbio-zordunak jarri ahal dituen salbuespenen sistemarekin; izan

el deudor cambiario, del que la circunstancia de ser la Ley de Enjuiciamiento Civil anterior al Código de Comercio ha hecho un problema eminentemente procesal, cuando, por el contrario, su solución es determinante del régimen jurídico sustantivo de estos títulos. Dicho con otras palabras: del régimen de excepciones que se adopte depende que se perpetúe la configuración causalista de la letra, o bien que se inicie la tendencia a la abstracción del título.

## II

Estas insuficiencias no son, sin embargo, el único factor determinante de la reforma que se propone. A aquéllas hay que agregar la voluntad política de incorporar a España al conjunto de los Estados que están contribuyendo a llevar a la realidad el propósito, explícito, por ejemplo, en el artículo 3.h), del Tratado de Roma, constitutivo de la Comunidad Económica Europea, de aproximar las legislaciones nacionales en la medida necesaria para el funcionamiento del Mercado común.

Es sabido que el Derecho Mercantil ha reivindicado históricamente la nota de universalidad, mucho antes de que las relaciones de toda índole entre los pueblos y entre los Estados alcanzasen el grado de fluidez que tienen en la actualidad. En efecto, el intercambio empresarial entre Estados dotados de similares sistemas políticos, que reconocen, a su vez, similares sistemas de organización económica, requiere la existencia de regulaciones homogéneas en un buen número de instituciones.

ere, Prozedura Zibilaren Legea Merkataritza Kodearen aurrekoa denez gero, arazoa prozesu-arazo bihurtu da, baina horren irtenbideak tituluen arauketa substantiboa ukitzen du. Beste hitz batzuez esanda: aukeratzten den salbuespen-arauketak ekarriko du letraren kari bidezko ulerkerak irautea, edota kontrara, tituluaren abstrakzioarako joera hastea.

## II

Edonondik begira dakiola ere, hutsune horiek ez dira hemen proposatzen den eraldaketa egiteko arrazoi bakarrik. Horrez gain, zenbait estatu laguntzen ari dira, Europako Ekonomia Erkidegoa eratzeke Erromako Tratatuaren 3. h) artikuluan esanbidez aipatu helburua erdiesteko, alegia, Merkatu Bakarraren esparruan nazio-legeriak hurbiltzeko; horrenbestez, bada halako borondate politikoa, Espainia ere estatu-talde horretan sartzeko.

Jakinekkoa da Merkataritzako zuzenbidez denaz bezainbatean, betidanik eskatu izan dela horren unibertsaltasuna, baita herrien eta estatuen arteko harremanak egun bezain ohikoak izan aurretik ere. Hortaz, antzeko sistema politikoak dituzten estatuek aldi berean pareko antolaketa ekonomikoak aintzatesten badituzte, zenbait erakunde modu bertsuan arautu beharko dira, estatu horien arteko enpresa-elkartrukeari begira.

Una de las categorías del entorno institucional común —la autonomía de la voluntad— ha permitido que los sectores interesados acudiesen en no pocas ocasiones a la autorregulación y a la unificación de prácticas negociables pero cuando la autorregulación no es posible, han sido los Estados y las organizaciones internacionales quienes han procurado acentuar los perfiles comunes de las instituciones necesarias para que el tráfico jurídico se desarrolle adecuadamente. Uno de estos casos los constituye el ordenamiento de la letra de cambio, pagaré a la orden y cheque, contenido en las Leyes uniformes anejas a los convenios de Ginebra de 7 de junio de 1930 y 19 de marzo de 1931. Esta Ley recoge, sustancialmente, la regulación ginebrina.

### III

La opción manifiesta por el sistema de las Leyes de Ginebra se fundamenta, ante todo, en la superioridad técnica de esa normativa frente a la de nuestro Código de Comercio.

Las novedades que la Ley incorpora tienen múltiples manifestaciones, y comienzan por la sencillez con que se delimitan los requisitos formales de los títulos regulados y el vigor con que se defiende la validez genérica de cada una de las declaraciones a ellos incorporadas, aunque algunas de las demás este afectada por vicios invalidantes. Se trata, en definitiva, de facilitar la circulación de estos documentos sin imponer al adquirente la carga de examinar, además de la regularidad formal

Izatez, erakunde erkide horietako batek —borondatearen autonomiak— ahalbidetu du baten baino gehiagotan sektore interesdun bakoitzak eginera negoziakorrek arautu eta bateratzea, baina hori ezinezkoa izan denean, estatuek eta nazioarteko erakundeek ahaleginak egin dituzte, trafiko juridikoa behar bezala gauzatzeko erakundeen ezaugarri erkideak nabarmentzeko. Horren adibide dugu kanbio-letraren, agindurako ordaindukoaren eta txekearen arauketa, Genevan 1930. urteko ekainaren 7an eta 1931. urteko martxoaren 19an sinatutako hitzarmenei erantsi zaizkien erabereko legeetan jasotakoa.

### III

Genevako legeetan ageri den sistema aukeratu da ezbairik gabe, batik bat ikuspegi teknikitik arauketa hori Espainiako Kodean agertzen dena baino askoz hobea delako.

Legeak berrikuntza anitz ekarri ditu. Lehenik eta behin, araututako tituluak betekizun formalak erraz zehaztu ez ezik, gogor defendatu da tituluok barneratutako adierazpenak orokorrean baliozkoak izango direla, nahiz eta batzuetan, baliogabetasuna ekarriko duten akatsak izan. Azken buruan agiri horien zirkulazioa erraztu nahi da, eta, horregatik, titulua eskuratzen duenak endosuen erregulartasun formala aztertu beharko du, ez, ordea, kasuan kasuko adierazpenen baliozkotasuna.

de los endosos, la validez intrínseca de todas las declaraciones procedentes. Acoge también situaciones que se producen, en la práctica, tales como los títulos en blanco, que están huérfanos de regulación en los textos vigentes, la suscripción de estos documentos alegando una representación inexistente (problema para cuya solución hay que acudir hoy a categorías extracambiarías), el cheque para abonar en cuenta o el cheque certificado o conformado. Al referirse a los requisitos formales del título cabe resaltar la desaparición de la mención de la cláusula valor en la letra de cambio, rastro evidente de la concepción causal que denomina, si bien no con absoluta exclusividad, el sistema vigente.

La superioridad técnica de los textos ginebrinos resalta especialmente en los artículos 17 de la Ley de la Letra de Cambio y 22 de la del Cheque, de los que son fiel trasunto los artículos 20 y 128, respectivamente, de ésta. En ellos se delimita negativamente y con encomiable sencillez el régimen de excepciones, sin necesidad de acudir a listas tasadas, lo que contrasta con la tajante dicción del vigente artículo 480 del Código de Comercio, que tantas matizaciones jurisprudenciales ha recibido en sus cien años de vigencia.

Merece también mención especial la configuración del aval. El texto trata de poner fin a la polémica doctrinal y jurisprudencial sobre la naturaleza jurídica de esa declaración cambiaria, optando por su definición como obligación autónoma, válida aunque sea nula

Beste alde batetik, praktikan gertatzen diren egoerak ere bildu dira legera, hala nola: titulu zuriak igortzea, indarreko testuetan arautu ez direnak; agiriak ordezkariaren bidez sinatzea, halakorik ez dagoenean (egun kanbio-letratik kanpoko kategorietara jo behar da arazo hori konpontzeko); kontuan abonatzeko txekea edota txeke ziurtatu edo adostua. Tituluaren betekizun formalei dagokienez, azpimarra daiteke kanbio-letran desagertu dela balio-klausularen inguruko aipamena, eta horrek argiro erakusten du indarreko sisteman kari bidezko ulerkera dela nagusi, modu eskusiboan izan ez arren.

Genevako testuen gailentasun tekniko ia ikus daiteke, batez ere, Kanbio-letrari buruzko Legearen 17. artikuluan eta Txekearen Legearen 22. artikuluan. Artikulu horiek bat datoz bete-betean lege honen 20 eta 128. artikuluekin, hurrenez hurren. Horietan modu negatiboan eta argiro mugatu da salbuespenen arauketa, zerrenda itxiak aipatu gabe; Merkataritza Kodearen indarreko 480. artikulua, aldiz, kontrakoa egin du, eta ehun urte baino gehiago indarrean egon eta gero, jurisprudenziak ñabardura ugari egin dizkio artikulu horren eduki zorrotzari.

Aipatzeko modukoa da, baita ere, abalaren arauketa. Testuak amaiera eman nahi izan dio kanbio-adierazpen horren izaera juridikoaren inguruan doktrinan nahiz jurisprudenzian izan den eztabaidari, ondokoa ezarrita: erakunde hori betebeharraren autonomia da, hots, ba-

la obligación garantizada por motivo distinto de los vicios de forma.

Las normas sobre presentación a la aceptación, en el caso de la letra, y al pago de las tres clases de títulos regulados denotan la flexibilidad con que se aborda esta materia; cabe destacar la ampliación de los plazos para presentar a la aceptación las letras de cambio giradas a la vista y, en general, para la presentación al pago de estos títulos.

#### IV

Las Leyes Uniformes tienen el propósito manifiesto de fortalecer la posición jurídica del acreedor cambiario. Tal propósito tiene su reflejo en esta Ley no solo en la formulación de las excepciones oponibles, a la que ya se ha hecho mención para subrayar su carácter sustantivo, sino en otros ámbitos. Cabe destacar en primer lugar la flexibilidad con que se aborda el régimen de protesto, permitiendo su sustitución por declaraciones del librado o de la Cámara de Compensación o su eliminación. También supone una novedad, al menos como formulación normativa, el que la rigurosa obligación del aceptante de la letra de cambio y de sus avalistas no quede sometida a condición de protesto o declaración equivalente. Otro mecanismo fundamental para reforzar la garantía del tenedor es el establecimiento de la solidaridad pasiva absoluta de los deudores cambiarios, a los que, con independencia de su posición en el título se podrá demandar conjunta o sepa-

liozkoa, bermatutako betebeharra deuseza izan arren, forma-akatsekin zerikusirik ez duen arrazoi baten ondorioz.

Tituluak aurkezteari dagokionez (dela, letraren kasuan, onarpenerako, dela, araututako hiru tituluen kasuan, ordainketarako), horren inguruko arauak erakusten dute gai hori ere malgutasunez jorratu dela; ildo horri ekinez, nabarmendu daiteke luzatu direla agerian igorritako letrak onarpenerako aurkezteko epeak, baita, oro har, tituluok ordainketarako aurkezteko epeak ere.

#### IV

Duda-izpirik gabe, erabereko legeen helburua da kanbio-hartzekodunaren egoera indartzea. Hori ikus daiteke, hala jar daitezkeen salbuespenak aipatzean, eta hori adierazi dugu salbuespen horien izaera substantiboa azpimarratu dugunean, nola beste esparru batzuetan. Hasteko, protestoaren erakundea malgutasunez arautu da, horren ordez igorpenduaren edo Konpentsazio Ganberaren adierazpenak erabil daitezkeelako, edota protesta egiteko betebeharra ken daiteke. Halaber, berrikuntza moduan ekar daiteke hizpidera protesta edo horren baliobesteko adierazpena ez dela beharrezkoa, kanbio-letra onartzen duenaren edo horren abal-emaileen betebeharrak zorrotza baliozkoa izan dadin. Ildo berari segiz, ukandunaren bermea sendotzeko beste bide bat da kanbio-zordunen artean erabateko solidaritate pasiboa ezartzea; bestela esanda, zordun horiei batera zein banan-banan eska dakieke ordainketa, eurek tituluaren duten egoe-

radamente. También pueden enmarcarse entre las medidas que van a suponer indirectamente, una mejor situación del acreedor, el establecimiento de un interés de demora más adecuado a la situación del momento en que se produzca el impago de uno de los títulos. Para el concreto caso del cheque se prevé una cláusula penal que jugará contra el librador que emita un cheque sin tener provisión de fondos en poder del librado. Un nuevo cauce procedimental para el juicio ejecutivo cambiario completa las medidas tendentes a reforzar la posición del tenedor, además de la reforma del artículo 1.429 de la Ley de Enjuiciamiento Civil, para incluir en el enunciado de los títulos ejecutivos al pagaré y al cheque.

La Ley dedica, en fin, dos capítulos a resolver los problemas derivados del conflicto de Leyes.

V

No puede negarse el descrédito relativo que rodea hoy a la letra de cambio en nuestra sociedad; es cierto que tal actitud no deriva exclusivamente, ni siquiera principalmente, de las insuficiencias normativas que han sido expuestas. La situación crítica que vive nuestra economía y una desmesurada utilización de la letra de cambio, tanto en el mercado de bienes y servicios de consumo como en el mercado financiero, y unas leyes procesales obsoletas, no son factores extraños al elevadísimo número de impagados que recogen las estadísticas. La nueva Ley, rigurosa con el deudor, quiere cambiar ciertos usos que han contribuido a ese descré-

ra kontuan hartu gabe. Halaber, ezarri da tituluren bat ez ordaintzeko unearri hobeto egokitzen zaion berandutzakorritua, eta horrek ere hartzekodunaren egoera babestuko du, zeharka izan arren. Txekearen kasuan, esaterako, txekea igortzen duenak ez badu funts-hornikuntzarik igorpenduaren esku, zigor-klausula ezarriko zaio. Azkenik, ukandunaren egoera babestu nahi duen sistema hori biribiltzeko, prozedura berria arautu da kanbio-judizio betearazleari begira; horrez landara, Prozedura Zibilaren Legearen 1429. artikulua eraldatu da, ordaindukoa eta txekea titulu betearazleen artean sartzeko.

Amaitzeko, legeak bi kapitulu erabili ditu, lege-gatazken ondoriozko arazoak konpontzeko.

V

Ageri-agerikoa da egungo gizartean kanbio-letra ez dela begi onez ikusten, baina esan daiteke horrek ez duela zerikusirik aipatu hutsune edo akatsekin. Bateko, ekonomian gertatzen ari den krisialdiak, besteko, kontsumo-ondasun eta -zerbitzuen merkatuan nahiz finantza-merkatuan kanbio-letra gehiegi erabili izanak, eta, azken buruan, prozesu-legeak zeharo zaharkituak izateak halabeharrez ekarri dute ez-ordainketen kopurua izatea estatistikek erakusten duten bezain handia. Zordunaz denaz bezainbatean, lege berria oso gogorra izan da, bai kanbio-letraren inguruko ospe txarra eragin duten eginerak aldatu ahal izateko, baita konfiantza berre-



dito, restableciendo la confianza en el ordenamiento jurídico y en uno de los valores fundamentales de la vida empresarial, la buena fe.

La normativa jurídica que introduce esta ley, absolutamente necesaria y conveniente, no impide que, tras los oportunos estudios y cuando las circunstancias económicas y sociales lo requieran, pueda abordarse la elaboración de un texto legal complementario y específico que establezca las normas que hayan de regir para las letras emitidas en operaciones realizadas por los consumidores y usuarios. Las diferentes orientaciones de los ordenamientos jurídicos de otros países europeos, así como la inexistencia de normativa uniforme en esta materia, aconsejan no introducir en la presente Ley su regulación definitiva, sin perjuicio de que ello pueda y deba hacerse en el momento oportuno.

zartzeko ere, orokorrean antolamendu juridikoaren gain, eta, bereziki, enpresa-munduan kontuzko balio den onustearen gain.

Guztiarekin, lege honen bitartez ezarritako arauketa izan da ezinbestekoa bezain egokia; hori gorabehera, kasuan kasuko azterketak egin ostean eta ekonomia- nahiz gizarte-inguruabarrek halaxe ahalbidetzen dutenean, lege-testu osagarri eta berezia egin beharko da, kontsumitzaile eta erabiltzaileek eginitiko eragiketen ondoriozko letrak arautzeko. Europako beste herri batzuetako antolamendu juridikoetan joera desberdinak antzeman daitezke; horrez landa, gai horretan ez dago erabereko arauketarik, eta, horren ondorioz, badirudi ez dela bidezkoa lege honetan behin betiko arauketa jasotzea. Edonondik begira dakiola ere, urrats hori eman beharko da, abagunea heltzen denean.

## TÍTULO PRIMERO DE LA LETRA DE CAMBIO Y DEL PAGARÉ

### CAPÍTULO PRIMERO De la emisión y de la forma de la letra de cambio

#### Artículo 1

La letra de cambio deberá contener:

1. La denominación de letra de cambio inserta en el texto mismo del título expresada en el idioma empleado para su redacción.

## LEHENENGO TITULUA KANBIO-LETRA ETA ORDAINDUKOA

### LEHENENGO KAPITULUA Kanbio-letraren jaulkipena eta forma

#### 1. artikulua

Kanbio-letrak ondokoa jaso behar du:

1. Kanbio-letra izena testuan bertan, letra idazteko erabili den hizkuntza berean.

2. El mandato puro y simple de pagar una suma determinada en pesetas o moneda extranjera convertible admitida a cotización oficial.

3. El nombre de la persona que ha de pagar, denominada librado.

4. La indicación del vencimiento.

5. El lugar en que se ha de efectuar el pago.

6. El nombre de la persona a quien se ha de hacer el pago o a cuya orden se ha de efectuar.

7. La fecha y el lugar en que la letra se libra.

8. La firma del que emite la letra, denominado librador.

## Artículo 2

El documento que carezca de alguno de los requisitos que se indican en el artículo precedente no se considera letra de cambio, salvo en los casos comprendidos en los párrafos siguientes:

a) La letra de cambio cuyo vencimiento no este expresado se considerará pagadera a la vista.

b) A falta de indicación especial, el lugar designado junto al nombre del librado se considerará como el lugar del pago y, al mismo tiempo, como lugar del domicilio del librado.

c) La letra de cambio que no indique el lugar de su emisión se conside-

2. Diru kopuru zehatza ordaintzeko agindu huts eta soila; diru kopuru hori pezetatan ordain daiteke, baita kotizazio ofizialean onartu eta pezeta bihurtzeko modukoa den atzerriko moneta ere.

3. Ordainketa egin behar duen pertsonaren izena; pertsona hori igorpen du deitzen da.

4. Muga-egunaren aipamena.

5. Ordainketa egiteko tokia.

6. Ordainketa zein pertsonak jaso behar duen edo ordainketa hori noren agindura egin behar den.

7. Letra igortzeko data eta tokia.

8. Letra jaulkitzen duenaren sinadura; pertsona horri igortzaile deitzen zaio.

## 2. artikulua

Aurreko artikuluan ezarritako betekizun guztiak ez dituen agiria ezin da kanbio-letra gisa kalifikatu, ondoren go lerrokadek adierazitako kasuetan izan ezik:

a) Muga-egunik adierazten ez duen kanbio-letra agerian ordaindu behar dela ulertuko da.

b) Aipamen berezirik egin ez bada, ordainketa egin beharko da igorpen duaren izenaren ondoan zehaztutako tokian, eta toki hori igorpen duaren egoitza dela ulertuko da.

c) Kanbio-letrak ez badu jaulkipen-tokirik adierazi, igortzailearen izena-

rará librada en el lugar designado junto al nombre del librador.

Tendrán la consideración de cláusulas facultativas todas las menciones puestas en la letra distintas de las señaladas en el artículo precedente.

### Artículo 3

Cuando la letra se gira contra dos o más librados, se entenderá que se dirige indistintamente a cada uno, para que cualquiera de ellos pague el importe total de la misma.

### Artículo 4

La letra de cambio también podrá girarse:

- a) A la orden del propio librador.
- b) Contra el propio librador.
- c) Por cuenta de un tercero.

### Artículo 5

La letra de cambio podrá ser pagadera en el domicilio de un tercero, sea en la localidad en que el librado tiene su domicilio, sea en otra localidad.

En este caso, el pago se reclamará del tercero, salvo que se exprese que pagará el propio librado.

### Artículo 6

En una letra de cambio pagadera a la vista o a un plazo desde la vista, podrá disponer el librador que la cantidad correspondiente devengue intereses. En cualquier otra letra de cambio,

ren ondoan zehaztutako tokian igorri dela ulertuko da.

Aurreko artikuluan ezarritako aipamenak ez direnak hartuko dira nahibadako klausulatzat.

### 3. artikulua

Letra igortzen denean bi igorpendu edo gehiagoren aurka, ulertuko da bietako edozeini zuzendu zaiola, horrek ordain dezan zenbateko osoa.

### 4. artikulua

Halaber, kanbio-letra igor daiteke:

- a) Igortzailearen beraren agindura.
- b) Igortzailearen beraren aurka.
- c) Hirugarren baten kontura.

### 5. artikulua

Kanbio-letra hirugarren baten egoitzan ordain daiteke, egoitza hori igorpenduaren herria zein beste bat izan.

Halakoetan, hirugarrenari eskatuko zaio ordainketa, salbu eta igorpenduak ordainduko duela adierazi denean.

### 6. artikulua

Agerian edo ageritik epe batera ordaindu beharreko kanbio-letretan, igortzaileak xeda dezake kasuan kasuko zenbatekoak korrituak sorraraziko dituela. Bestelako kanbio-letraren batean

semejante estipulación se considerará como no escrita.

El tipo de interés anual deberá indicarse en la letra y, a falta de esta indicación, la cláusula correspondiente se considerará como no escrita.

Los intereses correrán a partir de la fecha en que se libre la letra de cambio mientras no se indique otra fecha al efecto.

### **Artículo 7**

Cuando en una letra de cambio figure escrito el importe de la misma en letra y en números será válida la cantidad escrita en letra, en caso de diferencia.

La letra de cambio cuyo importe este escrito varias veces por suma diferente, ya sea en letra, ya sea en números, será válida por la cantidad menor.

### **Artículo 8**

Cuando una letra de cambio lleve firmas de personas incapaces de obligarse, o firmas falsas, de personas imaginarias, o firmas que por cualquier otra razón no puedan obligar a las personas que hayan firmado la letra o aquellas con cuyo nombre aparezca firmada, las obligaciones de los demás firmantes no dejarán por eso de ser válidas.

### **Artículo 9**

Todos los que pusieren firmas a nombre de otro en letras de cambio deberán hallarse autorizados para ello

halako hizpaketarik jarritz gero, ulertuko da hizpaketa hori ez dela idatzi.

Urteko korritu-tasa letran adierazi behar da; bestela, ulertuko da kasuan kasuko klausula ez dela idatzi.

Korrituak sorraraziko dira kanbio-letra igortzen denetik, salbu eta beste dataren bat zehazten denean horretarako.

### **7. artikulua**

Kanbio-letraren zenbatekoa letraz eta zenbakiz adierazi denean, eta bi zenbateko horiek bat ez datozenean, letraz jasotakoa hartuko da kontuan.

Zenbatekoa baten baino gehiagotan agertuz gero kopuru desberdinak adierazita letraz zein zenbakiz, kopururik txikiena hartuko da kontuan.

### **8. artikulua**

Kanbio-letran betebeharrak hartzeko gaitasunik ez duten pertsonen sinadurak agertu arren, edota sinadura faltsuak, ustezko pertsonenak eta beste arrazoi batzuk direla-bide sinatzailea betebeharrean jar ezin dezaketen sinadurak agertu arren, horrek ez du esan nahi gainerako sinatzaileen betebeharrak baliorik ez dutenik.

### **9. artikulua**

Kanbio-letran norbaitek sinadura jartzen badu inoren izenean, horretarako baimena izan behar du, ordezkatuak

con poder de las personas en cuya representación obraren, expresándolo claramente en la antifirma.

Se presumirá que los administradores de Compañías están autorizados por el solo hecho de su nombramiento.

Los tomadores y tenedores de letras tendrán derecho a exigir a los firmantes la exhibición del poder.

### Artículo 10

El que pusiere su firma en una letra de cambio, como representante de una persona sin poderes para obrar en nombre de ella, quedará obligado en virtud de la letra. Si la pagare, tendrá los mismos derechos que hubiera tenido el supuesto representado. Lo mismo se entenderá del representante que hubiere excedido sus poderes, sin perjuicio de la responsabilidad cambiaria del representado dentro de los límites del poder.

### Artículo 11

El librador garantiza la aceptación y el pago.

Podrá eximirse de la garantía de la aceptación, pero toda cláusula por la cual se exonere de la garantía del pago se considerará como no escrita.

### Artículo 12

Cuando una letra de cambio, incompleta en el momento de su emisión, se hubiese completado contrariamente a los acuerdos celebrados, el incumpli-

emandako ahalordearen bitartez, eta hori argiro adierazi behar du sinaduraren aurrean.

Ulertuko da konpainietako administratzaileek baimen hori dutela, euren izendapen hutsaren ondorioz.

Letren hartzaile eta ukandunek sinatzaileei eska diezaiekete ahalordea erakustea.

### 10. artikulua

Norbaitek bere sinadura jartzen badu kanbio-letran beste pertsona baten ordezkari moduan, horren izenean jarduteko ahalorderik izan gabe, hark letra horren ondoriozko betebeharrak hartuko ditu. Pertsona horrek letra ordainduz gero, ustezko ordezkatuaren eskubideak izango ditu. Hori berori gertatuko zaio ordezkariari, ahalordearen edukia gainditzen badu; hala ere, ordezkatuak kanbio-erantzukizuna izango du, ahalordearen mugen barruan.

### 11. artikulua

Igortzaileak onarpena eta ordainketa bermatzen ditu.

Onarpenaren bermea ken daiteke, baina ulertuko da ordainketaren bermea kentzeko klausulak ez direla idatzi.

### 12. artikulua

Jaulkipen-unean osatugabea den letra geroago osatzen bada egindako hitzarmen aurka, hitzarmen horien ez-betetzea ezin da ukandunaren aurka

miento de estos acuerdos no podrá alegarse contra el tenedor, a menos que este haya adquirido la letra de mala fe o con culpa grave.

### Artículo 13

Cuando la extensión de las menciones que hayan de figurar en la letra así lo exija, podrá ampliarse el documento en que conste la letra de cambio, incorporando un suplemento por medio de una hoja adherida en la que se identifique la misma y en la que podrán hacerse constar cualesquiera menciones previstas en la presente Ley, con excepción de las enumeradas en el artículo primero, que deberán figurar en el documento en que se creó la letra.

## CAPÍTULO II

### Del endoso

### Artículo 14

La letra de cambio, aunque no este expresamente librada a la orden, será transmisible por endoso.

Cuando el librador haya escrito en la letra de cambio las palabras «no a la orden», o una expresión equivalente, el título no será transmisible, sino en la forma y con los efectos de una cesión ordinaria.

El endoso podrá hacerse incluso a favor del librado, haya aceptado o no, del librador o de cualquier otra persona obligada en la letra. Todas estas personas podrán endosarla de nuevo.

alegatu, azken horrek letra gaitzuste edo erru larriz eskura duenean izan ezik.

### 13. artikulua

Kambio-letra jasotzen duen agiria zabal daiteke, bertan jaso beharreko aipamenak oso luzeak direnean. Horretarako, kanbio-letraren identifikazioa jasotzen duen orria gehitzen zaio agiri horri, eranskina osatuz. Eranskin horrek jaso dezake legeak ezarritako aipamenetarik edozein, lehenengo artikuluan ezarritakoak izan ezik; azken horiek letra sortu duen agirian jaso behar dira nahitaez.

## II. KAPITULUA

### Endosua

### 14. artikulua

Kambio-letra endosu bidez eskualda daiteke, letra hori esanbidez agindura igortzen ez bada ere.

Igortzaileak «ez agindurako» klausula edo horren baliobesteko esamoldea idazten badu letran bertan, titulu hori lagapen arruntaren bidez bakarrik eskualda daiteke.

Endosua igorpenduaren, igortzailearen edota letraren beste edozein betebeharekoren mesedetan ere egin daiteke, igorpenduak letra onartu duen ala ez kontuan hartu gabe.

**Artículo 15**

El endoso deberá ser total, puro y simple. Toda condición a la que aparezca subordinado se considerará no escrita.

El endoso parcial será nulo.

El endoso al portador equivaldrá a un endoso en blanco.

**Artículo 16**

El endoso deberá escribirse en la letra o en su suplemento y será firmado por el endosante.

Será endoso en blanco el que no designe al endosatario o consista simplemente en la firma del endosante. En este último caso, para que el endoso sea válido deberá estar escrito al dorso de la letra de cambio.

**Artículo 17**

El endoso transmite todos los derechos resultantes de la letra de cambio.

Cuando el endoso este en blanco, el tenedor podrá:

1. Completar el endoso en blanco, el tenedor con su nombre o con el de otra persona.
2. Endosar la letra nuevamente en blanco o hacerlo designando un endosatario determinado.
3. Entregar la letra a un tercero, sin completar el endoso en blanco y sin endosarla.

**15. artikulua**

Endosua oso, huts eta soila izan behar da; endosua edozein baldintza-  
ren mende jarriz gero, ulertuko da baldintza hori ez dela idatzi.

Zatikako endosua deuseza izango da.

Eramailearentzako endosua endosu zuriaren baliobestekoa izango da.

**16. artikulua**

Endosua letran bertan edo horren eranskinean jaso behar da nahitaez, eta adierazpen hori endosatzaileak sinatu behar du.

Endosu zuriak dira endosu-hartzailerik izendatzen ez dutenak edota endosatzailearen sinadura besterik ez dutenak. Azken kasu horretan, endosua kanbio-letraren atzealdean idatzi behar da, baliozkoa izan dadin.

**17. artikulua**

Endosua kanbio-letraren ondoriozko eskubide guztiak eskualdatzen ditu.

Endosu zuriaren kasuan, ondoko aukerak ditu ukandunak:

- 1) Endosu zuria betetzea, beraren edo beste pertsona baten izenarekin.
- 2) Letra berriro endosatzea, zuriz edota endosu-hartzaille zehatza izendatuz.
- 3) Letra gainontzeko bati ematea, endosu zuria bete gabe eta letra endosatu gabe.

### **Artículo 18**

El endosante, salvo cláusula en contrario, garantiza la aceptación y el pago frente a los tenedores posteriores.

El endosante puede prohibir un nuevo endoso. En este caso, no responderá frente a las personas a quienes ulteriormente se endosare la letra.

### **Artículo 19**

El tenedor de la letra de cambio se considerará portador legítimo de la misma cuando justifique su derecho por una serie no interrumpida de endosos, aun cuando el último endoso este en blanco. A tal efecto, los endosos tachados se considerarán como no escritos. Cuando un endoso en blanco vaya seguido de otro endoso, el firmante de este se entenderá que adquirió la letra por el endoso en blanco.

Cuando una persona sea desposeída de una letra de cambio, por cualquier causa que fuere, el nuevo tenedor que justifique su derecho en la forma indicada en el párrafo precedente no estará obligado a devolver la letra si la adquirió de buena fe.

### **Artículo 20**

El demandado por un acción cambiaria no podrá oponer al tenedor excepciones fundadas en sus relaciones personales con el librador o con los tenedores anteriores, a no ser que el tene-

### **18. artikulua**

Kontrako klausularik izan ezean, endosatzaileak letraren onarpena eta ordainketa bermatzen ditu, bere osteko ukandunei begira.

Endosatzaileak endosu berria debeka dezake. Halakoetan, endosatzaileak ez du erantzukizunik izango, baldin eta letra hori beste pertsona batzuei endosatzen bazaie.

### **19. artikulua**

Kanbio-letraren ukanduna letra horren eramaile legitimotzat hartzeko, ukandun horrek bere eskubidea frogatu behar du, etengabeko endosu-kate bat oinarri harturik; frogapen hori baliozkoa izango da, nahiz eta azken endosua zuria izan. Ulertuko da endosu zirriboratuak ez direla idatzi. Endosu zuri baten ondoren, beste endosu bat egiten denean, azken horren sinatzaileak letra endosu zuriaren bidez eskuratu duela ulertzen da.

Edozein arrazoi dela bide, pertsona bati kanbio-letraren edukitza kentzen bazaio, ukandun berriak ez du letra itzultzeko betebeharririk, baldin eta letra hori onustez eskuratu badu. Horretarako, ukandun horrek bere eskubidea frogatu behar du, aurreko lerrokadan azaldutakoaren arabera.

### **20. artikulua**

Kanbio-akzioaren ondorioz demandatua izan denak ezin du ukandunaren aurka auzibidezko salbuespenik jarri, baldin eta salbuespen horren oinarri badira demandatuak igortzailearekin



dor, al adquirir la letra, haya procedido a sabiendas en perjuicio del deudor.

### Artículo 21

Cuando el endoso contenga la mención «valor al cobro», «para cobranza», «por poder», o cualquier otra que indique un simple mandato, el tenedor podrá ejercer todos los derechos derivados de la letra de cambio, pero no podrá endosar esta sino a título de comisión de cobranza.

En este caso, las personas obligadas, sólo podrán invocar contra el tenedor las excepciones que pudieran alegarse contra el endosante.

La autorización contenida en el endoso de apoderamiento no cesará por la muerte del mandante, ni por su incapacidad sobrevenida.

### Artículo 22

Cuando un endoso contenga la mención «valor en garantía», «valor en prenda», o cualquier otra que implique una garantía, el tenedor podrá ejercer todos los derechos que derivan de la letra de cambio, pero el endoso hecho por él sólo valdrá como comisión de cobranza.

Las personas obligadas no podrán invocar contra el tenedor de una letra recibida en prenda o en garantía las excepciones fundadas en sus relaciones personales con el endosante que las transmitió en garantía, a menos que el

edota aurreko ukandunekin dituen harreman pertsonalak, salbu eta, letra eskuratzean, ukandunak jardun duenean zordunari kalte egin diola jakinda.

### 21. artikulua

Endosuak jaso duenean «kobratzeko balioa», «kobrantzarako», «ahalorde bidez» edo mandatu hutsa adierazten duen beste edozein klausula, ukandunak kanbio-letraren ondoriozko eskubide guztiak egikari ditzake, baina ezin izango du letra endosatu, kobrantzarako komisio moduan ez bada bederen.

Halakoetan, betebeharrpeko pertsonen endosatzailearen aurkako salbuespenak bakarrik erabil ditzakete ukandunaren kontra.

Ahalduntze-endosuan jasotako baimena ez da amaitzen mandatugilearen heriotzaren edo horren gertatze bidezko ezgaitasunaren ondorioz.

### 22. artikulua

Endosuak jaso duenean «berme balioa», «bahi balioa», «ahalorde bidez» edo bermea adierazten duen beste edozein klausula, ukandunak kanbio-letraren ondoriozko eskubide guztiak egikari ditzake, baina horrek eginiko endosuak kobrantzarako komisioaren balioa besterik ez du.

Endosatzaileak bahi edo berme moduan endosatu duenean kanbio-letra, betebeharrpeko pertsonen ezin dute salbuespenik jarri ukandunaren aurka, endosatzaile horrekin dituzten harreman pertsonalak badira salbuespen horren

tenedor, al recibir la letra, hubiera procedido a sabiendas en perjuicio del deudor.

### **Artículo 23**

El endoso posterior al vencimiento, que no podrá ser realizado por el aceptante, producirá los mismos efectos que un endoso anterior. Sin embargo, el endoso posterior al protesto o a la declaración equivalente por falta de pago o al vencimiento del plazo establecido para levantar el protesto no producirá otros efectos que los de una cesión ordinaria.

El endoso sin fecha se considerará hecho antes de terminar el plazo fijado para levantar el protesto, salvo prueba en contrario.

### **Artículo 24**

La cesión ordinaria de la letra transmitirá al cesionario todos los derechos del cedente, en los términos previstos en los artículo 347 y 348 del Código de Comercio.

El cesionario tendrá derecho a la entrega de la letra. Iguales efectos producirá la transmisión de la letra por cualquier otro medio distinto del endoso.

## **CAPÍTULO III De la aceptación**

### **Artículo 25**

El tenedor o el simple portador de una letra de cambio podrá presentarla

oinarri; ukandunak, letra jasotzean, jakinaren gainean jardun badu zordunaren kaltean erabil daitezke salbuespenok.

### **23. artikulua**

Onartzaileak ezin du muga-egunaren osteko endosurik egin, baina beste guztiek muga-egunaren aurreko ondoreak izango dituzte. Hala ere, ordainketa-ezari buruzko protestoaren edo horren baliobesteko adierazpenaren ondoren egindako endosuak, bai eta protesta egiteko epea muga-eguneratu eta gero egindakoak ere, lagapen arruntaren ondoreak besterik ez dituzte sortzen.

Ulertzen da datarik ez duen endosua egin dela protesta egiteko epea amaitu baino lehen, horren kontrako frogarik izan ezean.

### **24. artikulua**

Letraren lagapen arruntaren bidez, lagatzaileak bere eskubide guztiak eskualdatzen dizkio lagapen-hartzaileari, Merkataritza Kodearen 347 eta 348. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

